

Zu hemen zaude.

# goiena



## 1979KO EUROPAKO SOKATIRA TXAPELKETAKOEI AITORTZA

Euskadiko Sokatira Txapelketako lur gaineko finala jokatu da bihar Aramaion; horren ostean, duela 45 urte Aramaiotik Suediara Europako Sokatira Txapelketa jokatzera joan zen Aramaioko taldea omenduko dute / 13

GOIENAK elkartu ditu martitzenean, Aramaioko plazan, 1979an Suediara sokatira txapelketara joandako lau lagun. Ezkerretik eskumara: Heriberto Arriolabengoa, Juan Jose Ibabe, Patxi Jauregi eta Jon Andoni Axpe.

XABIER URTZELAI



### 49.500 lagunek izango dute eskualdean botoa emateko aukera domekan

Europako Parlamenturako hauteskundeetan hogeitahutesleku izango dira Debagoieneran / 2

#### SINADURAK

 EDORTA ARANA / 6	 JON KORTABARRIA MANTZIDOR / 24
 AITZOL ILLARRAMENDI / 9	 HORAZIO ARGARATE / 29
 AINHOA PARDINA / 19	 IZAR ODRIOZOLA / 40

**Gaur irekiko dituzte Bergarako kanpoko igerilekuak; udako bainu denboraldiaren hasiera izango da / 20**



Klima larrialdiaren argazki osatua: zazpi ikuspuntu

Manuel Pimentel idazleari elkarrizketa

**Gipuzkoako Futbol Sariak banatuko dituzte gaur Oñatin, Aloña Mendiren 75. urteurrena baliatuta / 32**

**Ander Malbadi albizurtarrak irabazi du 'Algaraka' lehiaketako sari nagusia / 34**

# 2 MÓ 99€

## erreflexuen aurkako betaurreko graduatuak

Kontsaltatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



## MULTIÓPTICAS

943 79 29 95  
Otalora Lizentziaduna, 18  
ARRASATE



eskatu hitzordua

943 76 15 75  
Ibargarai, 16  
BERGARA



www.multiópticas.com







Debagoiendar bat bozkutzen. GOIENA

# 49.483 debagoiendar botoa ematera deituta

Europako Parlamenturako 720 legebiltzarkideak aukeratuko dira E9an, eta 34 alderdik aurkeztu dituzte euren proposamenak; egunaren jarraipena egingo du 'Goiena.eus'-ek eta emaitzak kontsultatu ahal izango dira bertan 23:00etatik aurrera

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE Domekan izango dira Europako Parlamenturako hauteskondeak eta 49.483 debagoiendarrek eman ahal izango dute botoa. Ohi bezala, hauteskunde mahaiak goizeko bederatzietan zabalduko dituzte eta arratsaldeko zortziak arte egongo da botoa emateko aukera. 720 europarlamentari aukeratuko dira, guztira, eta Euskal Herriko herritarrek Espainiari dagozkion 61 eta Frantziari dagozkion 81 parlamentariaren ordezkaritza bozkatzeko dute.

## Boto-emaitzak

Debagoiengan ia 49.500 herritardau deituta bozkatzera, Espainiako Estatistika Institutuak (INE) emandako datuen arabera, eta honako hauek dira kopuruak, herriz herri: Arrasaten 16.924 lagun daude deituta; Bergaran, 11.213; Oñatin, 8.789; Aretxabaletan, 5.554; Eskoriatzan, 3.241; Antzuolan, 1.600; Aramaion, 1.135; Elgetan, 858; eta Leintz Gatzagan, 169.

EAEko hiru lurraldeei dagozkien, Gipuzkoan 557.031 pertsonak eman ahal izango dute botoa; Araban, berriz, 253.146k; eta Bizkaian, 901.886k.

## Hautesleku aldaketa Oñatin

Debagoiengan hogeita hautesleku egongo dira Europako hauteskondeei begira. Arrasaten sei gune egongo dira; Bergaran, bost; Oñatin, hiru; eta Aretxabaletan, Eskoriatzan, Antzuolan, Aramaion, Elgetan eta Leintz Gatzagan bana.

Alabaina, Legebiltzarreko hauteskundeetan baino hautesleku bat gutxiago egongo da –orduan 21 izan ziren–, Oñatin Olakuako dorrean eta Txiki Txokon egon ohi diren mahaiak Natur Eskolako eraikinean egongo direlako. Hortaz, Olakuako, San Lorentzoko eta Ugarkaldeko boto-emaitzak Natur Eskolan emango dute botoa. Atarrietan eman dute aldaketaren berri.

Hauteskunde mahaiak dagozkien, berriz, 79 izango dira

–78 izan ziren A21ean–: Arrasaten, 29; Bergaran, hamazazpi; Oñatin, hamabost –hauteslekuak murriztu arren, mahai kopurua mantentzen da–; Aretxabaletan, zortzi –Legebiltzarrekoetan baino bat gehiago–; Eskoriatzan, lau; Aramaion eta Antzuolan, bina; eta Elgetan eta Leintz Gatzagan, bana.

## Zenbait alderdi, koalizioan

EAEko alderdi nagusiak –EH Bildu eta EAJ– koalizio banatan aurkeztuko dira domekako hauteskundeetara. EH Bildu Orain Errepublikak izenpean aurkeztuko da Kataluniako Ezker Errepublikanoarekin (ERC), Galiziako Bloke Nazionalistarekin eta Balear Uharteetako Ara Mes

## OÑATIN OLAKUAKO DORREKO ETA TXIKI TXOKOKO MAHAIK NATURESKOLAN JARRIKO DITUZTE

alderdiarekin batera. Euskal Herriko ezker abertzaleko alderdiko zerrendaburua Pernando Barrena da, baina Orain Errepublikak alderdiko zerrendetako bigarren hautagaia da.

EAJren kasuan ere, koalizioan aurkeztuko da, Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioaren (CEUS) izenburupean Nafarroako eta Espainiako beste zenbait alderdirekin; hain zuzen ere, Geroa Nafarroako Sozialberdeak Europarekin, Atarrabia Taldearekin, Kanariar Koalizioarekin eta Balear Uharteetako Uhartetarako Proposamena alderdiarekin. Alderdi jeltzaleko Oihane Agirreogitia da CEUSEko zerrendaburua.

Denera, 34 alderdik aurkeztu dituzte euren hauteskunde programak eta horien artean aukeratu ahal izango dute herritarrek. Besteak beste, gainerako alderdi nagusiek ere aurkeztu dituzte euren hautagaitzak: PSOE, PP, Sumar edota Podemos alderdiek.

## Abstentzioa

Europako Parlamentuko hauteskundeak izaten dira hauteskunde guztietatik parte-hartze baxuena izaten dutenak, eta, inkestek diotenaren arabera, domekan parte-hartzea %50etik beherakoa izango da. Horrekin lotuta, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak abstentziarako dei egin du, haien esanetan domekako hauteskundeek "ez dutelako inolako aldaketarik ekarriko". Besteak beste, Europako Parlamenturako hauteskundeak "Mendebaldeko oligarkia indartu eta zilegitzeko eginda" daudela nabarmendu du mugimendu sozialistak. Hori dela eta, *NATOr*i eta *Europako Batasunari* ez lelopean, "gerraren, genozidioaren eta austeritatearen aurkako" aldarriak plazaratzeko asmoz, manifestazioa egingo dute gaur, 19:00etan, Donostian.

## Emaitzen jarraipena Goienan

Gainerako hauteskundeetan bezala, *Goiena.eus* atariak hauteskunde egunaren eta Debagoieneko hauteslekuen zuzeneko jarraipena egingo du. Halaber, emaitzak gaueko hamaiketatik aurrera kontsultatu ahal izango dira [www.goiena.eus/hauteskundeak](http://www.goiena.eus/hauteskundeak) atarian.



## Europar aldaketa "orain" eragin behar da, EH Bilduren ustez

Atzo arratsaldean, Arrasateko Seber Altube plazan izan ziren EH Bilduko Mertxe Aizpurua Diputatuen Kongresuko bozeramailea eta Josu Aztiria legebiltzarkidea, hauteskunde-kampaina ekitaldian. Europako hauteskundeetan bozkatzeko duen garrantzia azpimarratu zuten, eta ultrasokunak Europar izan duen gorakadak ekar ditzakeen "atzerapausoak" izan zituzten hizpide. "EH Bilduren jardura ardatz nagusiak euskal nazioaren defentsa, antifaxismoa eta Europako gero eta ordezkaritza gehiagok erakusten dituzten gogo militaristak gelditzea" izango direla azaldu zuten koalizio soberanistakoez. Ezker abertzaleko kideek gaineratu zuten aldaketarako unea "orain" dela eta Europako hauteskundeetan erabakitzen dela "Euskal Herriak Europako politikagintzan eragiteko duen aukera". Herritarrei bozkatzeko dei egin zieten.



## EAJ, klima aldaketaren aurkako lidergoia berreskuratu nahian

EAJk ere ekitaldi politikoa egin zuen atzo goizean, Arrasateko Biteri plazan, eta EAJren hautagai Aitana Agirrek adierazi zuen klima larrialdia aurre egiteko proposamenak Europako Batasunera eramango dituztela. Energia alternatibo eta berriztagarrien inbertsioak bultzatu nahi dituztela esan zuen, "horiek izango direlako etorkizuneko eta gaur egungo energia-iturriak. Halaber, hidrogenoaren "euskal korridorea" bultzatu nahi dutela ere azaldu zuen. Azpimarratu zuen EBri eskatuko diotela energia teknologia berritzaileen inbertsioak sustatzeko. "Euskadiko enpresen, ekonomien, bertako biztanleen eta gure herrikideen osasuna eta etorkizuna bermatu nahi dugu. Euskadiren ahotsa betiere Europar egonda, hobeto erantzungo diogulako klima aldaketak jartzen dizkigun arazoei"; hori esanez amaitu zuen Agirrek.



# Makina-erremintaren Biurtekoa, gaur arte

Aste osoan izan dira zabalik Barakaldoko BECeko sei pabiloiak BIEMH Makina-erremintaren Biurtekoan. Euskal Herrian egiten den nazioarteko industria azokarik garrantzitsuen da eta bertan parte hartu dute Debagoieneko hainbat enpresak ere

**Amaia Txintxurreta Guridi** ARRASATE Oraingo BIEMH Makina-erremintaren Biurtekoan 1.558 enpresa parte-hartzaile daude, 29 herrialdetatik etorritakoak. Guztira, 3.500 produktu eta zerbitzutik gora ari dira erakusten, 400 berritasun daude, 1.910 makina eta 105 robot. Lehen aldiz, gainera, robotikari, automatizazioari eta digitalizazioari eskainitako eremu bat dago. Eta beste batean, *Robot demo* izenekoan, robotak martxan ari dira erakusten.

Fabrikazio aurreratuko azoka liderra den heinean, aurtengo aldia benetako ikuskizun industrial eta teknologikoa ari da izaten, eta nazioarteko presentzia handia dauka, besteak beste, Alemania, Italia, Portugal, AEB, Japonia, Taiwan, Turkia eta beste hainbat herrialdetako enpresak daude eta.

**Debagoieneko enpresak ere bai** Hain urrutira joan barik, bailarako enpresak ere badaude. Tartean, Arrasateko Fagor Automation eta Mondragon Engineering and Business Solutions, Oñatiko Ulma Embedded Solutions eta Danobat taldeko Bergarako Soraluze enpresa.

Soraluceko zuzendari nagusi Rafa Idigorasek adierazi du 2021etik 2023ra urte "oso onak" izan zirela –bai eskaeretan eta baita fakturazioan ere–, baina nabaritzen ari direla orain merkatu eskaerak murrizten ari direla, gehienbat, Europako subkontratazio tailerretatik, eta makina estandar gutxiago eta enpresa handiendako proiektu berezi gehiago saltzen dituztela.

Aurten, ezaugarri hauek dituen makina ari dira azokan erakusten: "Iaz Osintxuko planta berria inauguratu genuenean abiarazi genuen *Performance line* linea berriko SAD modeloko fresatzeko makina bat ari gara erakusten; irailan Chicagoko azokan

ere erakutsiko dugu". Horrez gain, bibrazioak arintzearekin zerikusia duten bi teknologia ere aurkeztu dituzte. Atzerriko merkatuetan, gainera, "oso ondo" baloratuta daudenak: "Gure produktuen %90 edo %95 esportatu egiten ditugu eta aipatutako teknologiak mundu mailan bakarrak dira eta patentatuta dauzkagu", esan du. Nahiz eta gaineratu duen egoera geopolitikoak eragin zuzena duela ekonomian eta industrian, eta azpimarratu du Europa nahiko "ahul" dagoela; bereziki, Alemania.

Bestetik, Fagor Automationeko Espainiako merkaturako CNC salmenta arduradun Joaquin Olabek aurtengo azokaren balorazio positiboa egin du: "Aurreikuspen onekin heldu ginen Biurtekoaren edizio honetara, besteak beste, erakusketari asko zeudelako izena emanda. Jakin bagenekien jende asko etorriko zela, eta horrela izan da. Gure aurreikuspen guztiak bete dira. Jende asko gerturatu da, bezero ugari etorri dira, harreman berriak ere egin ditugu... Gainera, agenda bete bat genuen bezeroekin jarririko hitzorduekin, eta guztiakin egoteko aukera izan dugu. Biurtekoaren balorazio positiboa egiten dugu".

**Herrialde gonbidatua, Mexiko** Urtero herrialde bat gonbidatzen dute azokara bere produktuak erakustera; aurten, Mexiko. Eta hango 70 enpresa daude erosle posibleen artean.

Aste osoan zehar zabalik izan ostean, gaur, egubakoitza, itxi-ko ditu ateak aurtengo azokak.

**AURTEN 1.558 ENPRESA PARTE-HARTZAILE DAUDE, 29 HERRIALDETATIK ETORRITAKOAK**



Bergarako Soraluze enpresaren standa, BECen. 'IREKIA.EUSKADI.EUS'

**m**  
Mondragon  
Unibertsitatea

**Gure ikasleen ahotan**



**Izen-abizenak:** Ander Riviere Garcia  
**Herria:** Aretxabaleta  
**Gradua:** Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako (LEINN) bigarren maila

**"LEINNen, profesionalki hazteaz gain, eremu pertsonala eta balioak ere asko lantzen dira"**

**Zergatik aukeratu zenuen LEINN?**

Praktiken bidez ezagutza sortzeko aukera emango lidakeen eta talde-lana sustatuko lukeen gradu bat ikasi nahi izan dut betidanik. Horregatik, LEINN aukeratu nuen, enpresa-trebetasunak garatzeko eta sormena eta ekintzailtza lantzeko gradu ideala delako.

**Nola ari da izaten LEINNen bitzako esperientzia?**

Esperientzia zoragarria izaten ari da. Proiektuetan

ikaskuntza handiak lortzen ditugu; gure produktuak eta zerbitzuak mundu errealean probatzen ditugu eta enpresa bat kudeatzen ikasten dugu. LEINNen, profesionalki hazteaz gain, eremu pertsonala eta balioak ere asko lantzen dira.

**Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitatetik?**

Gehien gustatzen zaidana da komunitate handi bateko kide izateko aukera ematen digula. Horri esker, lagun berriak eta kontaktu profesionalak eskura ditzakegu.

**Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan; nola egiten da hori?**

Lehenengo egunetik, gutako ia guztiok enpresa bat nola eratzen den eta martxan nola jartzen den jakin gabe iristen gara, baina, coach-en eta aholkularien laguntzari esker, enpresa bat sortu eta proiektuen bidez funtzionarazi ahal izateko adina ezagutza lortzen dugu.

**Zer moduz taldean lan eginda?**

Talde-lanak zailtasunak ekar ditzake batzuetan, baina, ondo

dakigunez, taldean lan egiten ikastea nahitaezkoa da emailtza eta helburu handiagoak lortu nahi izanez gero. Hori horrela, errendimendu handiko talde bilakatze bidea lantzen ari gara.

**Ze proiektutan ari zarete lanean LEINNen barne?**

Gaur egun, besteak beste, Basque Country Off-Road izeneko proiektu batean ari naiz lanean. Bertan, Off Road mendiko motorretan ibilbide gidatuak eskaintzen ditugu Elorrión, eta cross country modalitateko lasterketak diseinatu eta antolatzen ditugu. Gaur egun, lasterketa bat diseinatzen ari gara Euskadiko Motoziklismo Federazioarekin, ekainaren 16an izango dena, Elorrión.

**Zer-nolako izan da atzerriko esperientzia? Non izan zarete?**

Duela aste batzuk, New Yorkeko bigarren ikasketa bidaiatik itzuli ginen. Esperientzia ahaztezinak dira bidaia horiek, atzerrian askotariko ezagutzak eta ikaskuntzak jasotzen baititugu.



# 7.225 bikote ezkondu ziren joan den urtean

Ezkontzek, kopuruz, azken hamarkadetan jaitsiera txiki bat izan duten arren, datuen arabera tasa nahiko altuetan mantentzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan. 7.225 izan ziren joan den urtean. Ezkontza hausturak, berriz, 3.343 izan ziren 2021ean

**Gontzal Belategi Zubia** DEBAGOIENA Ezkontzak ohiko fenomenotzat hartu daitezke euskal gizartean. Hori erakusten dute Eustatek zabalduak datuek, joan den urtean 7.225 ezkontza izan ziren-eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Hala ere, azken hamar urteetako datuei erreparatu gero, ezkontza kantitateak behera egin duela ikusi daiteke, askorik ez bada ere. 2014an, esaterako, 7.937 ezkontza izan ziren EAEn. 2010eko hamarkadan jende gehien ezkondu zen urtea 2017a izan zen, 8.061 ezkontzarekin. Azken urteetako datu baxuena, berriz, 2020an erregistratu zen, COVID-19aren pandemiaren eraginez. 4.057 ezkontza ospatu ziren, guztira, urte hartan.

## Aldaketak ezkontza motetan

Ezkontzeko joera gutxi gorabehera mantendu egin den arren, ezkontzeko modua dezente aldatu da azken hamarkadetan. 2023ko datuei erreparatu gero, 677 ezkontza izan ziren kanonikoak; hau da, Elizatik ezkondu zirenak. Hori 2023ko ezkontza guztien %9,4 bakarrik da. Gai-nontzeko 6.548 ezkontzak zibilak izan ziren, ezkontza guztien %90,6. Hiru hamarkada atzera eginda, 1992ra, zehazki, erreallitate oso bestelakoa zela ikusi

daiteke. Urte hartan ezkontza guztien %24,2 soilik izan ziren ezkontza zibilak. Horrenbestez, datuak ikusiz gero, ezkontzeko modua asko aldatu dela ondorioztatu daiteke.

## Ezkontza homosexualak

2005az geroztik, aztertu beharreko berrikuntza bat agertu zen ezkontzen alorrean: sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak. Urte hartan bertan sexu bereko 74 pertsona ezkondu ziren EAEn. Aipatu beharrekoa da legea uztailean jarri zela in-

darrean. Urte hartatik hona, datuek erakusten dute goranzko joera izan dutela sexu bereko pertsonen arteko ezkontzek. 2010ean 142 izan ziren sexu bereko ezkontzak, 2018an 208 eta 2020an, berriz, 146. Pandemia osteko urteetan igoera handia izan zuten ezkontza horiek, eta beti mantendu da 250 ezkontza-erren bueltan. Joan den urtean, adibidez, 242 izan ziren.

Sexu bereko ezkontzen barruan, bada aipatzeko moduko beste datu bat. Lehen urteetan gizon-zkoek osatutako bikoteak ez-

kontzen ziren gehiago, eta, 2018az geroztik, emakumez osatutako bikoteak. 2005ean ezkontza guztien %75,67 hartzen zuten gizon-zkoen arteko ezkontzek, eta %24,12 emakumezkoenak. 2018an gertatu zen aldaketa, eta emakumezkoen ezkontzak %57,21 izan ziren. Gizon-zkoenak, berriz, 42,78. 2023an, aldiz, emakumezkoen arteko ezkontzak %56,19 izan ziren eta gizon-zkoenak, %43,8.

## Ezkontza hausturak

Ezkontzekin estuki lotuta daude haien hausturak. 2021eko datuek erakusten dutenez, urte hartan 3.343 ezkontza haustura gertatu ziren, guztira. Horietatik 3.210 dibortzio zuzenak izan ziren eta 132, banantzeak. Falta den haustura deuseztatze bidez egin zen; hau da, ezkontza juridikoki inoiz existitu ez izana.

Haustura horiek hainbat modutan gerta daitezke, adostasunez edo adostasunik gabe. Dibortzioei dagokienez, 669 izan ziren adostasunik gabekoak, ezkontza haustura guztien %20,01. Adostasunezko dibortzioak, berriz, 2.541 izan ziren, hausturen %76. Aurrez aipatu bezala, deuseztatze bakarria izan zen 2021ean, eta %0,02 da hori. Adostasunik gabeko banaketak, aldiz, 24 izan ziren, %0,71. Azkenik, adostasuneko banaketak 108 izan ziren, ezkontza haustura guztien %3,23.

## Alor juridikoa

Ezkontzetan alor juridikoa aspektu garrantzitsua da. Azpimarratzeko moduko aspektuetako bat ezkontzen eta izaerazko bikoteen artean dagoen aldea. "Bietan aitortza publikoa duen lotura bat eraikitzen da, batzuetan bien arteko aldea nabarmena da, baina beste batzuetan ez

horrenbestekoa", dio Amaia Madina Agirre abokatuak.


EAEn ezkontzek eta izatezko bikoteek antzerako eskubideak dituzte, abokatuaren arabera; hala ere, badira ezberdintasun batzuk: "Ezberdintasun nabarmenak fiskalitate mailan eta ondasunen kudeaketan izaten dira". Prozesuan ere aldeak daude: "Prozedura azkarragoa da izatezko bikoteetan. Ezkontzaren prozedura luzea da, edo luzeagoa, gutxienez". Arazoa beste autonomia erkidegoetara mugituz gero dator: "Ezkontza araudia bakarria da Estatu mailan, eta interpretazio maila oso landua du. Izatezko bikoteetan, berriz, autonomia erkidego bakoitzak bere legedia du". Horren eraginez, segurtasun maila handiagoa du ezkontzak, lekuz aldatuz gero eskubide berberak mantentzen dituelako.

Aurrez aipatutako dibortzioei eta banaketei dagokienez ere badago aldea, abokatuak adierazi duenez. Dibortzioak lotura erabat apurtzea dakar, eta apurketa hori berreskurazina da. Bide horrek etorkizunean berriro ezkontzeko aukera ematen du, pertsona berarekin zein ezberdinarekin. Banantzeak, aldiz, lotura etetea dakar. Bide horrek etorkizunean lotura hori berrezartzeko aukera ematen du, baina ez berriro ezkontzekoa. Garai batean, derrigorra zen banantzea dibortziatu ahal izateko, baina gaur egun ez da horrela.

## EZKONTZEK ETA IZAERAZKO BIKOTEK ANTZEKO ESKUBIDEAK DITUZTE AITORTUTA EAE BARRUAN

## Ezkontza-hausturak EAEn

ITURRIA: EUSTAT



## EH Bilduk eskualderako proiektu estrategikoa aurkeztuko du

Ekainaren 12an, eguaztena, izango da proiektuaren aurkezpena, Bergarako Seminarixoan, 18:00etan

### G.B.Z. DEBAGOIENA

Debagoienerako proiektu estrategikoa lantzen ibili da EH Bildu, eta ekainaren 12an, eguaztena, aurkeztuko die herritarrei. Bergarako Seminarixoan izango da aurkezpena, 18:00etan hasita.

Hiru ardatz nagusi izango ditu proiektu estrategikoa: ongizatea, trantsizio ekosoziala eta sozioekonomia. "Bizi ditugun garaiek erantzun berriak eta politika egiteko bestelako moduak eskatzen dituzte. Betiko inertiak

jarraitzea ez da aukera bat. Politika anbiziotsuak behar dira. Debagoienera badaude baldintzak jauzi kualitatibo bat emateko. Udalgintzan erakutsi ditugun kudeaketa gaitasuna eta sormena eskualde-eskalarara eramatera goaz", azaldu dute.

Eragileei eta norbanakoei aurkezpena bertaratzeko dei egin diete: "EH Bildutik eskua luzatzen diegu eskualdeko eragile sozial eta ekonomikoiei, baita gizarte zibilari ere, bide hau elkarrekin egiteko".



EH Bilduko hainbat kide, aurkezpeneko dei egiten. EH BILDU



# "Proiektu berrientzat bultzada dira sari hauek"

**MIKEL GARCIA ARRUABARRENA** INGENIARI ELEKTRONIKOA

Iazko Mondragon TFM-TFG sarietan Orbea mugikortasun osasungarria eta iraunkorra saria lortu zuen; duela gutxi zabaldu da aurtengo lanak entregatzeko epea

**Iñigo Barrena** ARRASATE

Mondragon TFG-TFM sarietarako proiektuak aurkezteko epea zabaldu dute duela gutxi. Urtero, XXI. mendeko erronkei ekarpena egiten dieten TFG edo TFMak saritzen dituzte, eta, era berean, gazteek erronka horiei aurre egiteko dituzten ideia eta proiektu berritzaileak bistaratu. Iazko sarietako bat Orbea saria izan zen, eta mugikortasun osasungarria eta iraunkorra ditu oinarri. Irabazlea Mikel Garcia Arruabarrena izan zen (Irun, 1999), Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan masterra egiten ari zela. Orain, Ikerlanen dihardu lanean, eta harekin izan da GOIENA, iazko esperientziari buruz jarduteko.

**Zertan datza zure proiektua?**

Helburu nagusia bigarren bizitzako bateriak aprobetxatzea zen, eta bigarren aukera bat ematea bateria horiei. Kasu honetan, aplikazioa azken miliako ibilgailu elektriko batean izan zen. Nik erabili nituen bateriak horiek Nissan auto batekoak ziren, eta erretiratuta zeuden, degradatuta zeudelako. Hain bigarren bizitza bat emateko beste aplikazio bat eman nien. **Zergatik aukeratu zenuen proiektu hori lantzea?**

Dagoeneko ezagutza bat banuen bateriekin; izan ere, praktikak baterien gainean egin nituen. Horrez gain, masterra ere elektronikaren gainean zen, eta ikusten zen elektronikako hainbat aspektu landuko nituela proiektu hori garatuz.

**Ze erronka izan zenituen?**

Bateriek ez zituzten hasierako prestazioak betetzen. Degradatuta zeudela ikusten zen, eta, hain zuzen, ezin zituztela prestazio berak eman.

**Nolako prozesua izan zen?**

Lehenengo, ibilgailuan txertatu behar nituen osagaiak identifikatu behar izan nituen, hala nola kargadorea, bateriak ma-



Mikel Garcia, bigarren eskuko bateriekin lotutako proiektua alboan duela. M.G.

## "NIRE HELBURU NAGUSIA BATERIEI BIGARREN BIZITZA BAT EMATEA ETA APROBETXATZEA ZEN"

niatzeko sistema eta dena komunikatzeko beharrezko txartela. Ondoren, bakoitzaren espezifikazioak ulertu eta dena bat zetorrela ikusi nuen. Behin dena nuela, ekipo bakoitzarekin lanean hasi nintzen, funtzionatzen zuela baieztatuz, eta, gutxinaka, denak elkartzen joan nintzen: alde batetik, karga; eta bestetik, komunikazioa.

**Ze inpaktu dute bateriak inurumenean?**

Lehenik, jakin behar da ze elektrizitate motarekin kargatu den bateriak hori. Esaterako, energia berriztagarrietatik kargatzen bada, agian, bateriak horiek ez du eraginik izango potentzia ematen ari denean; bestetik, berriz, bateriak hori kargatzeko ikatetik sortutako elektrizitatea erabiltzen bada, esan daiteke kliman eragina izango duela. Horrez gain, bateriak ere hon-

dakin bihur daiteke, eta, beraz, kontuan izan behar dugu horiek nola berritu daitezkeen edo nola eman diezaiekegun bigarren bizitza bat.

**Etorkizunera begira ze erronka dituzte ibilgailu elektrikoek?**

Hasteko, esango nuke karga azkarrak bateriaren degradazioan izan dezakeen inpaktua aztertu beharko dela, eta egun aztertzen den gauza bat da. Horrez gain, potentzia iturrien hibridazioa, hau da, baterien degradazioan hartzen duen energiaren kudeaketa ere kontuan hartu behar da. Eta, nola ez, bateriak bera nola birziklatzen dugun ere bai.

**Ze aukera ematen diete Mondragoneko TFG-TFM sarietako gazteei?**

Proiektu berritzaileei bultzada bat emateko balio dute. Zure proiekturako motibazioa aurkitzen baduzu, askoz hobeto garatuko duzu. Nire kasuan, ez nintzen konturatu sari ekonomikoa zegoenik, hasieratik proiektuan interesatua nengolako. Horrelako sarietako gazteen artean interesa pizten dute, era berean, proiektu berritzaile gehiago sortzeko. Aukera paregabea da gazteek dituzten ideia eta proiektuak bistaratzeko.

## Behera egin du langabe kopuruak maitzean

Gipuzkoako Lan Behategiak emandako azken datuen arabera, 2.236 pertsona daude lanik gabe Debagoiengan, maitza aintzat hartuz gero; aurreko hilabetearekin alderatuz gero, 32 pertsona gutxiago, hain justu. Hala, Debagoieneko langabezia-tasa ehuneko zazpia baino handiagoa da, azken datuak kontuan hartuta.

## 75 milioi euroko irabaziak izan zituen Fagorrek 2023an

Garaia Parke Teknologikoan egindako batzar orokorrean eman zituzten aditzera datuak, eta 2022ko datuekin alderatuz %63 egin dute gora Fagor taldearen irabaziek. Bestetik, pertsonen alorrean, 2023ko abenduan 2022an baino 237 langile gehiago ziren Fagorren, eta, horrez gain, 550 bazkide berri egin zituzten iaz.

## Eroskik 70,3 milioi euroko gaindikinak izan zituen iaz

Joan den astean egindako batzar orokorrean erabaki zuten 2023ko ekitaldiko emaitza positiboan gaindikin garbietatik 70,4 milioi euro erreserbetara bideratzea. Bestetik, datozen hiru urteetarako, 2024-2026ko Plan Estrategiko berriaren puntuak zehaztu zituzten. Azkenik, Eroskik "zorra gutxitzen" jarraituko duela esan zuten.

## 130 ikasle izan dira aurtengo Ikastetxe-Klik proiektuan

Aurtengo edizioan Aretxabale-tako, Arrasateko, Eskoriatzako, Bergarako, Elgetako eta Oñatiko hamahiru ikastetxe hartu dute parte; guztira, 130 lagun izan dira. Energia eraginkortasuna izan dute hizpide, eta, joan den astean egindako ikasturte bukaerako ekitaldian, ikastetxeetan sortutako energia batzordeen lana goraiatu zuten.



## TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA

### GAI ZERRENDA

- EGUNA:** EKAINaren 26a, EGUAZTENA  
**ORDUA:** 18:00etan lehen deialdian, 18:30ean bigarren deialdian, eta hala balegokio, 18:35ean hirugarrenean.  
**LEKUA:** Txantxiku Ikastolako PLAZAKO ERAIKINEKO BIGARREN solairua.

- Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
- 2023/2024 ikasturteko kudeaketa bosteneren berri ematea.
- 2023ko Urteko Kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
- 2023ko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
- 2024ko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
- 2024/2025 ikasturtean inbertsioei aurre egiteko bazkideen ekarpenari buruzko proposamena egitea eta, badagokio, onartzea.
- 2024/2025 ikasturteko zerbiltzuen ordainsarien berri ematea.
- Errektore Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
- Galde-eskaak.

### OHARRA:

Bazkideei gogorrazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela Urteko Kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa bostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaizen.

Oñatin, 2024ko ekainaren 4an





ZABALIK

EDORTA ARANA

## Informazioaz gogaitu

Esku artean daukadan inkesta batek esaten du Euskal Herriko unibertsitateko gazteen artean hamarretik zazpi albistegiak saihesten dituztela. Erdiek batzuetan eta ia %15ek askotan edo beti alboratzen dituztela gaurkotasunarekin zerikusia dauzkaten edukiak ([www.ikusiker.eus](http://www.ikusiker.eus)).

Ez dirudi kazetaritza bere momenturik onena bizitzen ari denik. Ohikoak izan zaizkien euskarriak jendez hustuz doaz eta gutxi dira paperezko egunkarien erosle berriak, irratia pizten dutenak edota telebistako albistegiaren ikusi zaleak. Informatzeko nahiago dituzte sare sozialak, Instagram eta Tiktok, besteen aurretik.

Sare sozialen etenik gabeko jarioak informatuta sentiarazten ditu gazteak, oro har, eta ez dute bestelako beharrik sentitzen gehiago bilatzen hasteko.

Txioen edo *story*-en informazioaren kalitateaz ez naiz arituko, baina badago horretaz kezkatuta egoteko motiborik. Oraingoan, informazioaren bizialdiaz idatziko dut, labur-labur. Berri bat argitara eman eta agenda mediatikotik desagertu arteko denbora laburtu izanak kezkatu egiten


nau. Sinistuta nagoelako asko txikitu dela. Eta horrek ondorio nagusi bat dauka: informazioaren espektakularizazioa. Berriak iruditan erakusterik ez badago, ez dira informazioa zabaltzen duten kanaletara helduko. Eta irudi ikusgarriak, gainera. Bost axola aktualitatearen testuingurua, informazio-iturrien aniztasuna, datuen eta iritzien erabilera orekatua eta deskribatzen diren gertakarien ondorioen deskribapena. Horiek ezin dira 20 segundoko bideoetan sartu.

Mikropilula horien bidez, jendeak informatuta sentitzearen beharra asetzen du, eta komunikabideek, horren jakitun, gainera, gero eta iraungitze-data murriztagoko berriak eskaintzen dituzte.

Edozelan ere, badira egunak joan eta egunak etorri barruak astintzen dizkiguten berriak, albistegietan gero eta leku gutxiago lortzen duten arren min egiten dutenak. Palestinako sarraskia da horietatik lazgarrienetakoa.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

### Cyborg bat zuei hizketan

MAIDER GALARDI F. AGIRRE

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/M3H3Y](https://labur.eus/m3h3y)

Gaur ez dut zutabea nik idatzi. A.Ari eman diot nire partez egiteko aukera. Apustua joan den astelehenean akordatu genuen Donostiako elkarte gastronomiko historiko batean. Lekukoak ere, zergatik ez esan, AFIT antropologia feministako ikerketa taldeko historikoak ziren –ez zaie gustatuko nik hau esatea–. Desafiatu egin ninduten: "Ezetz hurrengo zutabea A.Ak idatzi, eta zuk zure sinadura jarri". Esan nien ez zela lehenengo aldia izango

horrelako zerbait egin dela entzuten dudana. Esan nahi dut, badakidala zutabegile batek baino gehiagok, jolasean, eskatu diola A.Ari edo beste norbaiti 1.600 karaktereak betetzeko bere orde baina bere izenpean, eta itxuraz, behintzat, egunkari honetako inor ez dela konturatu edo ez diola kargurik hartu autoreari.

Horretarako, baina, A. Arekin hitz egin dut bilera-bazkariaren ostean –ze bai, asanbladan gure artean egon da, eta asko hitz egin dugu hari buruz, batik bat orain kurtso bukaeran ikasleen hamaika lan zuzendu behar ditugulako–, intimitatean eskatu nahi niolako nire

ahotsa ongi imitatzeko. Kostatu zaio ulertzea, agian ez dudalako ahots propio definitu bat. Edo beharbada nahastuta dago, azkenaldian enkargu asko jaso dituelako. Batzuek eskatzen diote graduko bigarren mailako baten perspektibatik egiteko gizarte egiturei buruzko lan bat, beste batzuek eskatu omen diote Master Amaierako Lanaren marko teorikoa egiteko. Esan dutenez, irakasle batzuek ere erabiltzen omen dute klaseak prestatu edo azterketak zuzentzeko. Kontua da normalean zutabea idazten pasa dudana baino denbora gehiago eman dudala A.Ari aginduak ematen. [...]

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzardea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Ilgone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arexabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK

**Europako hauteskundeak: bakea eta eskubide unibertsalak jokoan****IÑAKI BARRUTIA ARREGI**PSIKOLOGO KLINIKOA  
ARRASATE

Datorren igandean hauteskundeak hitzordua dugu eta pertsona asko utzikeria nihilistaren eta hauteskunde hauen baliozkotasunaren inguruko zalantzaren artean eztabaidatzen ari dira. Europarlamentuaren dimentsioak eta urrutitasunak eta europarlamentuaren osaerari buruzko ezjakintasunak ez dute parte hartzeke motibaziorik ematen.

Nire ustez, arrazoi asko ditugu hauteskunde hauetan parte hartzeke: bakea eta urte askoan lortutako eskubide unibertsalak ditugu jokoan. Gerra-danborrak entzuten dira gure mugetan, desinformazioarako hedabideak testuingurua prestatzen ari dira iritzi-artikuluekin; gazteak gerrarako prest ote dauden jakiteko, adibidez. Eskuin muturra gorantz doa, ezker txepelak eskuinaren agenda erosten duelako eta ez dituelako bere helburuak indartzen. Borroka kulturala kalera eraman behar da eskuin hedabide gehienak indargabetzeko, kontrabotere gisa eta gehiengoan eskubideen defentsan pedagogia egiteko.

Bakea eta eskubide unibertsalak ditugu jokoan. Eta nahiz eta ez uste hauteskundeak nahikoa direnik autoritarismoaren eta militarismoaren olatu hori iraultzeko, parte-hartzea inoiz baino beharrezkoagoa da. Uste dut hauteskunde hauetan etxean geratzeak ekar diezagukeela aurrerago kalera atera behar izatea, gure senideak gerrara eraman ez ditzaten. Gazteak modu bortitzean gerrara joatera behartzen dituzten bideok ikusi besterik ez dago, eta hedabideek ezkututzen dituztenak.

Gaineratu nahi dut ez dela nahikoa izango bozkatzera joatea; sare antimilitarista, aktiboa eta militantea ehundu beharko dugu gerrako aurrekontu ekonomikoei eta arma-industriaren interesei aurre egiteko. Faxismoaren gorakadari kultura gehiagorekin eta konpromiso militantearekin egiten zaio aurre.

Ez dezagun ahaztu gerrak aberatsek eta kapitalak antolatzen dituztela beren interesak defendatzeko, eta bertan langile klaseko pertsonak hiltzen direla; hori bai, kapitalismoaren porrota sistema gisa ezkututzen duten enkoadraketa nazionalistekin, lurraldekoekin, ideologikoekin. Kapitalismoak, bere gainbeheran, birsortu egin nahi du gerrak eta suntsipena sortuz; horregatik, ez diezaiozun eskuin militaristari bere europarlamentua inposatzen utzi.

Botoari eta faxismoari buruzko gogoetak askoz ere konplexuagoak izan daitezke, baina, modu laburrean, hau esango nuke: nik frankismoa bizi izan dut, eta, egun, frankismoaren hondarrak ikusten ditut. Hondarrek faxismoa gorpuzteko balioko duten beldurrez, nik prest daukat nire botoa, errepublikan aldekoa eta ez monarkikoa, bakezalea eta militarismoaren aurkakoa, langile klasearen aldekoa.

**Kaixo, Bergara****IÑAKI GANTXEGI BARRENA**JORRAN BERGARAKO BARATZE PARKE  
ELKARTEAREN IZENEAN  
BERGARA

Jorran Bergarako Baratze Parke Elkartea gara. Dakizuen bezala, San Joxepe auzoan kokaturik dago gure lursaila.

Orain dela urte pasa hasi genuen gure bidea *nekazari* proiektu honetan. Ilusioz beterik lurra jorratu, haziak erein eta mantentze-lanaren ondorioz lehenengo fruituak jaso ditugu dagoeneko.

Komunitate honen parte zahar zein gazte eta jatorri anitzeko pertsona ugari gara. Guztion artean auzolan ederra osatu dugu eta asko ikasi dugu baita ekoizpen ekologikoaren inguruan ere. Azpimarratu nahi genuke elkarrengandik ere asko ikasten ari garela.

Bide honetan guztian, hainbat oztopo ere izan ditugu: animalien bisitak, ekaitzak, lur mugimendua, bandalismoa eta lapurretak...

Azken horiek etsipen sentimendua eta inpotentzia zabaldu dute gudan, gure lana apurtua eta galdua ikusi dugulako. Lursail bakoitzean lanean ari den pertsona bakoitzak jarritako ilusioa itzaltzea ekarri du, zenbait kasutan. Fruitua jasotzeko momentuan, aza eder bat egon beharko litzatekeen lekuan hutsune bat besterik ez dugu aurkitu. Aza aipatu dugun bezala, beste hainbeste barazkirekin ere gertatu zaigu: azalore, baratxuri, porru, tomate, letxuga... Zerrenda luzea da.

Hala ere, baratzeoko erabiltzaileok bertan jarraitzen dugu, jo eta ke, proiektu hau aurrera atera nahian.

Bergarako herritarrok honen guztiaren parte zarete, guztioi irekita dagoen parkea baita, eta gozatu egiten dugu bertatik igarotzen zareten guztiok ematen diozuen bizitasunarekin.

Denon artean zaindu beharreko eremua da gure baratze parkea.

**Sanisidroetako kartelaren inguruan****YOLANDA JIMENEZ SUDUPE**

ARRASATE

Aurtengo Musakolako jaietako kartelak zeresan handia ekarri zuen. Batzordeak hau esan zuen: "Adierazpen librekoa da, eta bertatik pertsona guztiek euren ondorioak atera ditzakete; gizartean debatea eragingo du".

Diotenez, liburu batean azpimarratzen diren hitzak desberdinak izaten dira irakurtzen dituen pertsonaren

arabera, nahiz eta liburu bera izan.

Kartel horrekin horixe gertatu zen: interpretazio, ikuspuntu eta iritzi desberdinak agertu ziren auzokideen eta herritarren artean.

Kartelean bi alde bereiz zitezkeen: jai giro koloretsua eta txakurrez eta beraien kakaz betetako alde iluna.

Jende asko dago txakur-kakak jasotzen ez dituen, baina jende asko ere badago txakur-kakak jasotzen dituen. Eta, modu berean, jende asko dago, nahiz eta txakurrik ez izan, inguruak zikintzen dituen.

Jaietan, goizeko lehen orduetan garbitzaileak pasa aurretik, kaleak zaborrez beteta agertzen dira: latak, botilak, edalontziak, plastikozko eta kristalezko zatiak edonon... Egia da izugarriko zabor pila hori jaiegunen ondorioa dela, baina egunerokotasunean bizi dugun errealitatea antzerakoa da. Goizero garbitzaileek besteek zikindutakoa garbitu aurretik, jolastokietan, lorategietan, autobus geltokietan eta parkeetan dauden eserleku inguruetan, aurreko egunean jan eta edan denaren soberakinak agertzen dira lurtean botata: litxarrerria-poltsak, latak, zigarrokinak, botilak, janari azkarren ontziak... nahiz eta zakarrontziak bertan egon. Herria zikina dago, kaleak, lorategiak, hormak, mendiak, errekek... eta ez da batzuek garbitzen ez dutelako, beste batzuek zikindu egiten dutelako baizik.

Hausnarketa hau kartelaren alde ilunarena da, baina alde koloretsuak ere zeresana ematen du bertan ageri ziren animalien inguruan.

Animaliak sentitzen duten izakiak dira eta jaietan ez da beraien ongizatea errespetatzen; gure entretenimendurako erabiltzen ditugu, objektuak izango balira bezala.

Astoak nahiago du zelaian egon poteoan baino.

Zalditxoak nahiago du zelaian egon haurrak gainean eraman baino.

Bigantxak nahiago du zelaian egon hura zirikatzen dabiltzan haurrez inguratuta egon baino.

Inolako indarkeriarik onartzen ez dugula esaten dugunean, ez da egia: animaliak gutxiagotzat dauzkagu, eta baliabide bezala erabiltzen ditugu, guretzat dibertigarria delako.

Hau ez da jaiak errespetuz ospatzeko modu bat.

**Mila esker!****ELI AYASTUY**AYASTUY-ARANA FAMILIAREN IZENEAN  
OÑATI

Eskerrik asko gure familia-medikuari eta erizainari, Oihana eta Angelica, zuen gertutasunagatik, babesagatik eta laguntzagatik.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

**Eskerrik asko!****EBARUIZ DE AZUA OYANGUREN**SAN JUAN DE DIOS OSPITALEA  
ARRASATE

Gipuzkoako San Juan de Dios Ospitalea Psikiatrikoak, Arrasate-Mondragon egoitzak, eskerrak eman nahi dizkio Caritaseko boluntariotzari, gu kontuan hartu izanagatik eta Eroskin egiten den elikagai-bankuan parte hartzera gonbidatzeagatik. Gure pazienteak hara joan ziren, gure ospitaleko boluntariotzaren arduradunak antolatutako udaberriko kanpainarako, eta bertan oso esperientzia berezia eta aberasgarria izan zuten.

Era berean, esker ona helarazi nahi diogu Mondravember erakundeari, zeinak kontuan hartu eta indarrak batu nahi izan dituen osasun mentala ikusarazteko. Hala, ekainaren 8an, goizean, Urkuluko urtegiaren paseoa bat emango dugu elkarrekin, ordu pare batez. Gutxi gorabeherako hasiera ordua: 10:30. Parte-hartze handia espero dugu.





Arrasateko Udalak eta eragileek astelehen arratsaldean aurkeztu zuten egitaraua. TXOMIN MADINA MILIKUA

# Elkarlanaren fruitu diren jaiak aurkeztu dituzte

Eragileekin batera aurkeztu ditu Udalak 2024ko San Juan jaiak, eta haien lana aitortu eta eskerrak emateko baliatu du. 90 ekintza inguru dituen programazioa da, egun nagusiez harago, ekainaren 14tik 30era iraungo duena; berrikuntzekin, gainera

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Sanjuanetako egitaraua aurkeztu zuen Udalak astelehenean, hainbat eragile sozial eta kulturekin batera, haien parte-hartzerik gabe programazioa osatzea "ezinezkoa" litzatekeela azpimarratuta. "Gure eskerrik beroenak sanjuanetako mahaiko parte diren eragile sozial eta kulturei", adierazi zuen Andoni Arratibelek, Kultura zinegotziak.

Ekainaren 22tik 26ra ospatuko dituzte San Juan jaiak, baina aurretik eta ondoren ere egongo da zertaz gozatu, ekainaren 14an abiatuko dituzte-eta ekintzak; eta hilaren 30era arte iraungo dute. 90 jarduera antolatu dituzte, guztira, eta "denetarik" egi-

teko aukera egongo da: "Dantza, musika, janari dastatzeak, jolasak eta abar. Ohiko bilakatu direnen artean, besteak beste, entzierroak, kantu afariak, Arrasate Musikaleko Musika Bandaren kontzertua, *Zeuk ein zeuk jan*, gazte bazkaria, makalaren igoera, Eguzkilaru eta 80 urtetik gorakoei omenaldia", azaldu zuen Kultura zinegotziak.

Kontzertuei dagokienez, Udalak antolatutako artean Idoia Asurmendi aramaioarrarena (Ikus 12. orria), Esne Beltzarena eta Kiko Venenorena egongo dira; txosnagunean Tapia eta Leturia, Zea Mays, The Clayton eta Dupla izango dira agertoki-iraigoko direnetako batzuk.

## Hiru berrikuntza nagusi

Ohiko ekintzez gain, ordea, berrikuntzak ere badirela nabarmendu zuen Arratibelek; esate baterako, ekainaren 22an egingo dituzten Gazte Olinpiadak. Lehenengoz antolatu dituzte aurten eta harrera "ezin beroa-go" egin diete Arrasateko gazteek: 44 taldetan banatuta, 700 bat lagunek eman dute izena. Egun osoko egitaraua antolatu dute, eta jokoei eta musikak bat egingo dute herriko hainbat txokotan. "Sekulako sariak" iragarri dituzte, gainera.

Horrez gain, Uarkapeko pilota partidua ere berreskuratuko dute: hain justu, Artolak eta Zubizarreta III.ak ekainaren

21ean jokatuko dute San Fermin Torneoaren lau eta erdiko final zortzirenetako partidua. Azkenik, 12 eta 16 urte arteko gazteentzat bazkaria izango da ekainaren 25ean, Txatxilipurdiko hezitzaileekin batera, haiek kozinatuta.

## Haurren Eguna eta gehiago

Hain zuzen, hilaren 25ean egingo duten Haurren Egunaz harago, beste zenbait ekintza antolatu ditu Udalak haurrendako, barraken hutsunea betetzeko: "Ekainaren 23an eta 24an, goizez eta arratsalde, puzgarriak izango dira Biteri plazan. Ekainaren 24an, eguraldi ona bada, uretako puzgarriak izango dira, ur-parke bat sortzeko", dio Gladys Fernandezek, Belaunaldiartekotasun Saileko zinegotziak. Ekainaren 25ean, berriz, "hamaika aukera" izango dituzte gazte-txoenek euren egunaz goza de-

zaten: "Esaterako, arratsaldean, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izango da Monterron parkean".

## 284.149 euroko aurrekontua

Udalak 284.149 euroko aurrekontua izan du aurtengo jaiak prestatzeko, iaz baino 38.700 euro gehiago, egun bat gehitu baitiote egitarauari. Arratibelen hitzetan, iazkoaren aldean aurten igoera "nabarmena" izan da azpiegituren alokatzean, "aurrekontua eta likidazioaren arteko ezberdintasuna 11.000 eurokoa" izan baitzen 2023an.

## GAZTE OLINPIADAK EGINGO DITUZTE, LEHENENGOZ, ETA 700 BAT GAZTEK HARTUKO DUTE PARTE

## Ekainaren 15ean zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak

Santa Barbarako eta Villa Amparoko ur-parkeak ere orduan irekiko dituzte, udako denboraldiarekin batera

### E.A.B. ARRASATE

Musakolako kanpoko igerilekuetako udako denboraldia ekainaren 15ean hasiko dute, zapatua, eta irailaren 15era arte iraungo du. Ekainean, uztailean eta irailean igerilekuak 10:00eta-

tik 20:30era egongo dira zabalik. Tarifei dagokienez, udako abonua 43,37 euro ordaindu behar dute 18 urtez azpikoek; helduek, 72,90 euro; eta 65 urtetik gorakoek, 54,68 euro -10:00etatik 16:00ak arte erabiltzeko-.

Familia-abonuak -seme-alabak 22 urte arte- 116,48 euroko kostua izango du. Era berean, udako denboraldiko abonua eskuratzeko azken unera arte ez itzaroteko gomendioa egin du Udalak: "Denboraldia hasi aurretik komeni da abonua egin da edukitzea, itzarote denborak murrizteko, sarbidean arazorik ez izateko eta jende pilaketak ekiditeko".

Eguneko sarrera 3,65 euro izango da 18 urtez azpikoentzat; eta helduentzat, 6,45 euro.

Hamar sarrerako bonuak ere egongo dira eta 18 urtez azpikoentzako prezioa 29,65 eurokoa izango da; helduek, berriz, 59,10 euro ordaindu behar dute bonu hori eskuratzeko -bonua erosten denetik, urtebeteko epean erabili ahal da-.

Musakolako igerilekuak 1.500 pertsonak erabili ahal izango dute aldi berean, denbora-mugarik gabe. Gainera, hamaka-zerbitzu bat eskainiko dute -egun osoa bi euro eta egun erdia euro bat-, baita itzalkinak edo *son-*

*brilla*-k jartzeko oinarriak ere -doan-. Aurten ere, freskagarriak, izozkiak eta jatekoak eskainiko dituzte.

### Ur-parkeak ere bai

Ekainaren 15ean irekiko dituzte Santa Barbarako eta Villa Amparoko ur-parkeak ere, eta astelehenean domekara egongo dira erabilgarri, 10:00etatik 20:00ak arte. Maiatzean hasi zituzten muntaketa lanak, eta, parkeak ireki ahal izateko, Udalak hainbat lan egin ditu.

## Izen-emateak zabalik daude

Jaietako jarduera batzuetan parte hartzeko izena eman behar da udal webgunean edo BAZen. 80 urtetik gorakoen omenaldirako, esaterako, ekainaren 14a baino lehen eman behar da izena; *Zeuk in zeuk jan*-erako, bestalde, ekainaren 10etik 17ra egongo da izena emateko aukera, eta mila lagunentzako tokia egongo da. Horrez gain, hilaren 14ko kantu afarirako izen-ematea agortu da dagoeneko.

Era berean, hiru ekintza ikusi ahal izango dira balkoitik: ekainaren 15ean, haurren danborrada; eta ekainaren 23an, errementari dantza eta nagusien danborrada. Horretarako, jakina, aurrez izena eman behar da, webgunean edo BAZen, ekainaren 10era arte. Arrasaten erroldatutako 16 urtetik gorakoek eman ahal dute izena. 16 urtetik beharagoek nagusi batekin joan behar dute. Zortzi eta hamar tokiko zozketak egingo dituzte ekintza bakoitzeko: haurren danborradarako, hamar tokiko bi -hogei lagun-; errementari dantzarako, zortzi tokiko bi -hamasei lagun-; eta nagusien danborradarako, beste horrenbeste.

Irabazleei telefonoz, posta elektronikoz edo SMS bidez jakinaraziko diete. Udaletxeko sarreran agertu behar dute -haurren danborrada ikusteko, ekainaren 15ean, 19:30ean; errementari dantza ikusteko, ekainaren 23an, 22:00etan; eta nagusien danborrada ikusteko, ekainaren 23an, 23:30ean-.



# 'Energia hiri jasangarrian' erakusketa zabalik dago

Arrasateko ikasleek Eskolako 2030 Agenda proiektuaren baitan egin dituzten askotariko proposamenak jasotzen ditu eta Kulturateko klaustroan egongo da ikusgai ekainaren 15era arte. Herritarrek informatzea eta sentsibilizatzea da helburu nagusia

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Ingurumenaren Nazioarteko Eguna izan zen eguaztenean, ekainak 5, eta egun seinalatua-ekin zabaldu zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek egindako lana jasotzen duen erakusketa. Bi ikasturteko ikuspegiarekin egindako lanketa da, hiri eta komunitate jasangarriari buruzkoa, batetik, eta energia irisgarriari eta ez-kutsagarriari buruzkoa, bestetik. Udalako Ingurumen Eskolako zuzendari Kandi Fernandezek azaldu duenez, bi ikasturteko ikuspegi izatea mesedegarria da. "Planteamendu honekin, bigarren ikasturtea erabiltzen dugu osoko bilkurara eramandako proposamen horiek ekintza plan batean sartu eta gauzatzeko".

Hain zuzen, ingurumen eskolakoein egin zuten lehen bisita erakusketara eta egindako lanketa azaldu zuten ikasleek eguaztenean. Horrekin batera, bisitariak ezagutu zituzten tximisten zuhaitza, herensuge

handia, haize-errotan maketak, hausnarketa txokoa eta erein eta hazi diren zuhaitz-landareak.

Erakusketaren irekieraren aurretik, martitzeneko osoko bilkura txikian, ikasleek euren proposamenak aurkeztu zituzten udal ordezkariari, eta Hirigintza, Trantsizio Ekologikoa eta Mugikortasuna Saileko zinegotzi Garazi Etxeberriak azaldu du ondo jaso dituztela proposamen horiek. "Haiei esan genien bezala, gai askotan dagoeneko lanean ari gara, mugikortasun jasangarrirako plana berrikusten ari baikara: bidegorri sare lotu bat osatzeko lanean ari gara, baita basoen kudeaketa egokia lortzeko ere. Horrenbestez, ikasleek jarritako

**EKAINAREN 11N, TEKNIKERREKO TEKNIKARI BATEK AHOLKUAK EMANGO DIZKIE HERRITARREI**

etxeko lanak bideratzen saiatuko gara, noski".

Erakusketa zabalik izango da hilaren 15era arte eta Lehen Hezkuntzako 50 bat ikasle taldek bisitatuko dute. Herritarrei begirako beste bisita gidatu bat ere egingo dute; ekainaren 12an izango da, 18:30ean. Interesatuak aurrez eman behar dute izena, [ieskola@arrasate.eus](mailto:ieskola@arrasate.eus) helbide elektronikora idatzita.

**D2030 ekimenaren erakusketa**  
D2030 ekimenaren *Iraunkortasunari hamaika begirada* erakusketa ibiltaria ere jarri dute ikusgai klaustroan, sei panelez eta ikus-entzunezko batez osatuta. Gainera, ekainaren 11n, 16:30etik 20:30era, Teknikerreko teknikari bat egongo da eneriarekin lotutako gaiari buruz aholkularitza emateko. Interesatuak txanda hartu behar dute alde aurretik, [ieskola@arrasate.eus](mailto:ieskola@arrasate.eus) helbide elektronikora idatzita edo 943-77 04 88 telefono-zenbakira deituta.



Eguazten arratsaldean egin zuten erakusketaren irekiera ekitaldia, Kulturateko klaustroan. LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA



NIRE USTEZ

AITZOL ILLARRAMENDI

## Marko Aurelio eta euskara

Gaur egun hain ezaguna den enperadore estoikoak hau zioen lanari buruz: "Hastea da lanaren erdia". Erromatarrek ez ezik, euskaltzaleok ere ondo dakigu zer neketsua den lan berrietan hastea, makina bat proiektu hasi baititugu behin eta berriro, aspaldiko borroka honetan. Lan esparrua euskaratzeko ahaleginetan badaukagu horren adibide bat: euskara batzordeak, normalizazio planak, goitik beherako eta behetik gorako estrategiak... Azken 40 urteetan mila aldiz hasi gara eta lan erdietan gaudela dirudi beti!

"Hasi berriz ere beste erdiarekin eta lana amaituta izango duzu", osatzen du esaldia Marko Aureliok, amaiezina dirudien zeregina 10 hitzetara murriztuz. Berriz hasi besterik ez zaigu geratzen, beraz, eta horretan dihardugu. Joan den astean, AEDK antolatuta, hiru enpresak aurkeztu zituzten beraien esperientziak, lantokietan euskara kudeatzeko garaian. Erakutsi zuten badagoela zer eginga eta nola eginga beste erdi hori osatu eta amaierara heltzeko.

Gainerako enpresetan zer? Hastear, hasten edo hasteko gaude?

## Harremanen Elkartasun Eguna mende laurdenera ailegatu da

Hogeita bosgarrenez egingo dute, bihar, gobernuz kanpoko erakundeak antolatzen duen egun solidarioa

**E.A.B. ARRASATE**

Arrasaten dagoeneko topagune bilakatu da Elkartasun Eguna eta aurten ere ez du hutsik egingo. Ohi bezala, gobernuz kanpoko erakundeek presentzia nabarmena izango dute, bai herrikoek eta baita beste hainbatek ere. "Euren jarduera solidarioen berri emango digute eta hainbat artikulua jarriko dituzte salgai, haiei laguntza emateko. Erakunde horietako batzuk gerra aktiboak dituzten herrialdeetan ari dira lanean, eta, gaur egun, egoera dramatikoa sufritzen dituzten herritarrengandik hurbil. Gu ere herrialde pobretuenen arazoak azaltzen saiatuko gara, beti bezala", dio Cristina Etxenausiak, Harremaneko idazkariak.

**Seber Altuben hainbat ekintza**

Egitarauari dagokionez, aurreko urteetan bezala, hainbat jardueraz osatuta egongo da, 10:30etik 20:30era. Batetik, haurrentzat, puzgarriak, disko-festa, DJ Goiko eta jolasparkea egongo dira; azken hori, Kids&Us akademiaren eskutik.

Bestetik, trikitalarien, dantzarien, klarinete-jotzaileen eta

Arrasate Musikaleko gazte taldearen emanaldiak ere egongo dira. Azkenik, Azkaiter Pelox taldeak ere kontzertua joko du.

Era berean, Harreman Dendako kideak ere han izango dira eta bidezko merkataritza sustatzen eta dituzten produktuen berri emango dute; gainera, txokolatea dastatzeko aukera emango diete herritarrei.

**Tonbola, ezinbestekoa**

Tonbola ere egongo da, Harremanek laguntzen dituen proiektuekiko elkartasuna adierazteko aukera emateko. Tonbolan parte hartuta, Ibai-arte eskaintako ehunka sari eskuratu ahal izango dituzte herritarrek. Horrekin batera, 20:30ean, Ibai-arte denetan gastatzeko 300 euroko bonuaren zozketa egingo dute.

Harremanek "bereziki nabarmendu" gura izan du Ibai-arteren laguntza: "Urtez urte tonbola egiteko aukera ematen jarraitzen du. Eskerrik asko Ibai-arte baxkide parte-hartzaile guztiei, haiek gabe tonbola ezinezkoa izango bailitzateke".

Urtero moduan, tonbolan batutako dirua Indiako Ankur harrera-etxera bideratuko dute.



# Ikastaroetako tasak %3 igoko ditu Gobernuak

Irailaren 1etik aurrera, kiroldegiko ikastaroek, udal euskaltegikoek eta Udalako Ingurumen Eskolakoek %3ko igoera izango dute, udalbatzak hala onartuta; EAJ eta PSE-EE aurka azaldu dira, Udalaren finantza egoera "ezin hobea" dela argudiatuta

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Ekaineko osoko bilkura egin zuten martitzenean, eta 2024-2025eko ikasturteko tasak %3 igotzea onartu zuen udalbatzak. "2023ko apiriletik 2024ko apirilera indizeak igoera hori izan duelako izan da igoera. Azken zortzi urteetan EAJk ez du tasak eguneratzeko politika aktiborik izan eta horrek kaltetu egin ditu udal tributuetatik jasotako diru-sarrerak. Igoera honek gihar finantzarioa indartuko digu etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Jasangarria da, une egokian hartutako erabakia, eta familia zaurgarrienei eragingo ez diena", azaldu zuen Joseba Ezpeletak, Ogasun zinegotziak. Gobernuaren eredia "garbia" dela gehitu zuen Eva Abuinek, Elkarrekin Arrasateren bozeramaileak: "Fiskalitate progresiboa da gure eredia".

Jeltzaleek osoko zuzenketa aurkeztu zioten proposamen horri eta taldeko bozeramaile Ander Garayk "erabateko aurkakotasuna" azaldu zuen tasak igotzearekiko, eta hiru arrazoi eman zituen: "Batetik, Udalaren egoera ekonomikoa ezin hobea da, zero zor egoeran baitago; bestetik, 2023tik hamahiru milioi euroko soberakina daukagu; azkenik, nahikotasun finantza-



Martitzeneko osoko bilkuran egindako bozketak bat. E.A.B.

ria dugu". Gehitu zuen Gobernuak ez duela "inolako dirulaguntzarik jarri" igoera horiek ordaintzeko. Aritz Murua sozialistak bat egin zuen EAJren irakurketarekin: "Udalak baliabide ekonomiko onak ditu, eta ez da beharrezkoa tasak igotzea".

## Kreditu aldaketa, onartuta

Bestalde, 2024ko aurrekontuan kredituak aldatzeko proposamenak ere aurrera egin zuen, eta 2.568.370 euro hainbat proiektutara bideratuko ditu Gobernuak (Ikus eskuineko zatidura). Ha-

laber, gerakinaren zati handiena azpiegituren inbertsioetara bideratuko du. "Zorpetzeko arrisku handia duten inbertsioak ditugu aurretik, Iturripeko kiroldegia eta Amaia antzokiaren eraberritze integrala epe motzean, baita Musakolako kiroldegi berria egiteko beharra ere epe ertainean. Guztiak finantzatzeko zuhurtziazko kudeaketa egitea dagokigu".

Puntu horretan EAJk bi emendakin aurkeztu zituen. "Batetik, Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleetako etxebizitzetako

laguntzetan bi milioi euro gehiago jartzea gurako genuke, etxebizitza batzuk dirulaguntza jaso ezinik geratu direlako. Bestetik, erdialdeko haur parke bat estaltzeko 100.000 euro jartzea proposatzen dugu", zioen Garayk.

EH Bilduren bozeramaile Kepa Urteagak zera erantzun zion: "Auzo konkretu bat hobetzeko eskaera egin zenuten eta jakina zen ez zela helduko etxebizitza guztiendako. Iazko uztailean egon ginen bizilagunekin eta azaldu genien dirulaguntza arruntak bazeudela birgaitze horiek egiteko. Jaurlaritzarekin bildu eta horrelako dirulaguntzak igotzeko eskatuko diogu, herriko atarte guztiak lagundu ahal izateko eta ez mugatzeko bi kaleetara soilik. Haur parkea estaltzeari dagokionez, bagabiltza aztertzen Biterikoa estaltzea eta egungoa birgaitzea. Izan ere, egungo estalpea utzita dago". Ondorioz, aurka bozkatu zuen Gobernuak eta emendakinek ez zuten aurrera egin.

## Kale garbiketa, Prezerok

Beste hainbat puntu ere onartuta geratu ziren. Batetik, kale garbiketa zerbitzua Prezero enpresari esleitzea onartu zuen udalbatzak, urtean 2.029.500 euroko prezioarekin -BEZ barik-, eta lau urterako. Era berean, udalbatzak hala erabakita, Markuleteko E-4-5 poligonoaren baitan dagoen labea dohainik hartuko du Udalak. Horrekin batera, 2024ko lanpostuen zerrrenda eta lantalde organikoa ere onartu zituen mahaiak.

Azkenik, mugimendu feministak Palestinaren alde aurkeztutako mozioak ere aurrera egin zuen; besteak beste, Israelen erasoak gaitzetsi eta berehalako su-etena eskatzen du horrek.

## Gerakinetik eratorritako proiektuak

2.568.370 euroko kreditua, 2024an gauzatzeko.

### Hainbat proiektu:

- BAZ berritzeko obrak: 200.000 euro.
- Zerrajerako malda: 300.000 euro.
- Antoñako frontoia konpontzea: 95.000 euro.
- Grupo San Juango proiektua: 40.000 euro.
- Musakolako gazte txoko berria: 120.000 euro.
- Bizikleten aparkalekuak: 100.000 euro.
- Landa eremuko lursailak mugatzeko proiektua: 140.000 euro.
- Kirol Saileko konponketa eta inbertsioak 139.500 euro igotzea: guztira aurten 239.500 euro.
- Haur parkeak berritzeko partida 50.000 euro igotzea: guztira aurten 75.000 euro.
- Txiki Txokoa hornitzeko 13.000 euro gehitzea: guztira aurten 15.000 euro.
- Turismo aktibitateak sustatzeko 15.000 euro gehiago: guztira aurten 50.000 euro.

## PALESTINAREN ALDEKO MOZIOAK, MUGIMENDU FEMINISTARENAK, AURRERA EGIN DU

## 'Etxe Txikinek 100 urte' liburua, AZEren ekarpen berria

Ehun urte bete dituzte Arrasateko Etxe Txikiek, eta, mendeurrena ospatzeko, *Etxe Txikinek 100 urte-Casas baratas 1924-2024* liburua ondu dute Juan Ramon Garaik, Jose Angel Barruati-bengoak eta Jabier Bengoak, Arrasate Zientzia Elkarte partaideek. Etxe horien historia jasotzea izan dute xede, eta, hala, idatzizko dokumentuak ez ezik,

grafikoak ere txertatu dituzte liburuan, 118 argazki baitaude orotara. Haien esanetan, bi arrazoi nagusi zeuden Etxe Txikiak eraikitzeke: biztanleriaren igoera, eta horrek sortutako etxebizitza eskasia; eta etxe merkeak eraikitzeke legeen agerpena. Horrek ahalbideratu zuen, hein batean, Union Cerrajerak etxe horiek eraiki ahal izatea, Udalak 1924ko ekainaren 2an eman baitzion horretarako baimena.

Ekainaren 18an aurkeztuko dute lana, Kulturaten.

## Ibilgailu klasikoek topaketa egingo dute domekan Arruenan

Goiena Classic Club elkartearen eskutik, askotariko ibilgailu klasikoek topaketa egingo dute domekan Arruenan parkea ekainaren 9an, domeka. Izen-ematea doakoa izango da eta egunean bertan egin beharko da. 30 urte baino gehiagoko ibilgailuak izango dira. 09:30ean irekiko dute eremua eta 11:30ean irteera egingo dute, ohi moduan, herritarrek

ibilgailuak ikusteko aukera izan dezaten. Ondoren, 12:30ean sartuko dira berriro eremura. Sarrera eta izen-ematea doakoa izango diren arren, plazak mugatuak izango dira. Izena ematen duten lehen 100 lagunek oparia jasoko dute, eta 13:30ean egingo dute horien zozketa.

Ekitaldian, arropa, musika eta barra egongo dira, baita *crawler* eta RC ibilgailuak ere. Horrekin batera, 11:00etatik 14:00etara, pedalak dituzten kartak jarriko dituzte haurren artean.

## 'Gure nortasuna' proiektuko eragileak elkartu egingo dira

Gaur, egubakoitza, *Gure nortasuna* proiektuko eragileen artean esperientziak trukatzeko saioa egingo dute Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:00etan, Nikaraguako Diriamba hiritik etorriko baitira bisitan. AMSk eta Garagunek gauzatutako proiektuak Nikaraguako eta Arrasateko ohiturak eta kulturak ezaugaraztea du helburu.





Iazko AKS sarietako ekitaldian sarituak izan zirenak. GOIENA



# Herriko kirolari aitortza AKSetan

Arrasateko Kirol Sarien ekitaldia hilaren 20an (18:30) Seber Altube plazan egingo dute. Herriko kirolari eta kirol talde onenak sarituko dituzte. Aipamen berezia, berriz, herriko atletismoaren sustatzaileetako batek jasoko du: Jose Ignazio Elorza 'Joshe' -k

## Iñigo Barrena ARRASATE

Ate joka dira Arrasateko Kirol Sariak; izan ere, hilaren 20an 18:30ean egingo dute ekitaldia Seber Altube plazan. Aurten, gainera, berrikuntzekin datoz kirolari onenak eta kirol ibilbide aipagarrienak saritzea eta errekonozitzea helburu duten sariak. Izan ere, aurten bakar-kako kirolari onenaren saria eta talde onenaren saria eman-gotitu Arrasateko Udalak. Beti bezala, herritarrek izango dute aurten ere kirolari eta talde onenak aukeratzeko ardura, boto bidez erabakiko baitira sarituak. Udalaren webgunean sartuta eman ahal izango da botoa: [izenemateak. arrasate.eus/arrasateko-kirol-sariak-2024](http://izenemateak. arrasate.eus/arrasateko-kirol-sariak-2024). Atzo ezker zabalik dago botoa emateko aukera eta hilaren 16ra arte hautatu ahal dira kirolari eta talde onenak.

## Kirolari onenak

Bi sari egonda, aurten bederatzita hautagai proposatu dituzte herriko kirolari onenaren saria jasotzeko. Hauek dira hautagaiak: **ANE ZABALA** Korrikalariak 101 kilometroko Hiru Handiak lasterketa irabazi zuen iaz. Arrasate-Udalatz eta Ahuntzen lasterketa ere irabaziak ditu, baita santamas krosa ere.

**IÑIGO ALZOLA** Sasoi onean dago: Udaletxeko tontorrera dauden 5,7 kilometroak eta 910eko desnibela egiteko 39 minutu eta 24 segundo behar izan zituen. Otsailean Antzuolako 8 Miliak

**AURTEN BI SARI EGONGO DIRA: HERRIKO KIROLARI ETA KIROL TALDE ONENAK**

lasterketa irabazi zuen eta iaz txapel-dun izan zen Txindokiko eta Anbotoko kilometro bertikalean.

**ANDER MURUA** Urte bikaina egiten dabil. Hainbat txapel-jantzi ditu; besteak beste, Goñi Memoriala, Bergara Hiria, Abanca-DV eta Antton Pebet memorialekoa.

**YAMAN MJAHED** WOWko lehengo postua erreperatu du, 61 kilokoetan. Maiatzean, Arrasatekoak debuta egin zuen borrokalari profesional moduan, Warlen Lopez brasildarra menderatuta.

**UNAI AXPE** Plater tiroketako Euskadiko txapelketan eta Espainiako Errege Kopan txapel-dun izan da. Foso olimpi-koko modalitatean bigarren kategoriako txapel-dun izan zen arrasatearra, Malagan, 126 plateretik 116 botata.

**MAIALEN GALLARDO** Iaz profesionaletan debuta egin eta gero, Aste Santuan jokatu-tako Europako kickboxing txapelketan irabazlea izan da 48 kilokoetan; Marine Bigey Europako txapel-dun frantziarra hartu zuen mendean. Hiru urte dira kickboxinga egiten hasi zela, eta Sergio Sanchez *Dinamita* du entrenatzaile.

**JARE URRUTIA** Izugarritzko bidea egiten ari da. Iaz, Barbastroko eta Madrilgo Espainiako Kopan parte hartu zuen, eta aurten Iruñean jokatu den infantil eta kadete mailetakoko Espainiako Txapelketan urrezko domina eskuratu du Desoreka taldeko kideak.

**JOKIN HURTADO** Desoreka taldeko kide da hura ere. Iaz, eskal selekzioak hautatua, Jare Urrutiarekin batera Barbastroko eta Madrilgo Espainiako Kopan parte hartu zuen. Aurten, Iruñean jokatu den infantil eta kadete mailetakoko Espainiako Txapelketan urrezko domina eskuratu du.

**MALÉN RUIZ DE AZUA** Espainiako Atletismo Txapelketa irabazi zuen otsailean, Galizian, 4,30 metroko saltoarekin; laugarrenez, Espainiako txapel-dun bilakatu zen. Modalitate honetan duen maila handia berretsi du urrezko domina lortuta.

## Talde onenak

Talde onenaren saria jasotzeko, berriz, sei hautagai daude:

**SAIOA KARATE KLUBA** Iazko bideari jarraituta, txapelketetan hainbat domina lortu dituzte azken hilabeteetan: kyokushinen 43. nazioarteko txapelketan sei sari garrantzitsu eta nazioarteko estiloetako IV. Espainiako Kopan bost domina. Harrobia-ekin lan handia egiten duen kluba da.

**DRAGOI GIMNASIA TALDEA** Turkian izan da, Europako Txapelketan. Taldeka parte hartu dute, eta hirugarren postua eskuratu. Gainera, Dragoiko kide Uxue Azkue eta Pablo Corres seigarren izan ziren bikoteka munduko kopan.

**MONDRATE** Igoera fasea jokatzeko sailkatu ziren, baina kanporatuak gelditu ziren Aurrera taldearen kontra. Dena den, denboraldi oso erregularra egin dute.


**ARRASATE ATLETIKO TALDEA** Herriko eta bailarako erreferente da. Punta-puntako atletak talde horretan hasitakoak dira. Horren lekuko da, adibidez, Ane del Fresnok Gipuzkoako Txapelketa irabazi izana.

**OINTXE!** Liga txapelketa biribila egin ostean, LF2ra igotzeko txartela ematen zuen lauko finala irabazi zuten, historia eginda.

**MONDRA** Liga txapelketa osoan bi partiduko bakarrik galduta, zuzenean igo da Gorengoen Mailatik iaz galdutako tokira, Ohorezko Erregional Mailara, hain zuzen ere.

## Jose Ignazio Elorza omenduko dute

Arrasate Kirol Sarietan Udalak aipamen berezia egiten dio urtero kirolari bati. Aurten omendua Jose Ignazio Elorza *Joshe* izango da. Iazko abenduan zendu zen. Arrasaten atletismoak izan duen sustatzaileetako bat izan zen Elorza. 1969tik egon zen atletismoari lotuta: zuzendaritzan, idazkaritzan eta beste hainbat kargutan, eta 44 urtean zehar santamas krosetako antolaketa taldean egon zen. Herriko atleta izan zen, luzera-jauzian, jauzi hirukoitzean eta abiadurako lasterketan. Baita entrenatzaile eta zuzendari Juventud Deportiva Mondragon klubean. Gaur egungo Arrasate Atletiko Klubaren sortzailea izan zen, eta bertako lehendakaria 1987 eta 1992 urteen artean. Horregatik guztiagatik egin nahi dio "aitortza" Udalak.



# Puntako bi artista izango dira kontzertua ematen

Eilen Jewell musikari estatubatuarra izango da bihar Amaia antzokian kontzertua ematen, 19:30ean hasita. Datorren astean, berriz, ekainaren 15ean Idoia Asurmendi aramaioarraren txanda izango da, Monterronen. Emanaldia 19:30ean izango da baita

## Gontzal Belategi Zubia ARRASATE

Arrasate musikaz beteko da bi aste hauetan zehar. Puntako bi musikari oholtzaratuko dira: Eilen Jewell eta Idoia Asurmendi. Jewell estatubatuarra izango da bietan lehena kontzertua jotzen. Bihar izango da haren emanaldia, 19:30ean hasita, Amaia antzokian. Idoia Asurmendi aramaioarra entzun ahal izateko datorren zapatara arte –ekainak 15– itxaron beharko da. Hark ere 19:30ean hasiko du emanaldia, baina Monterronen izango da. Udalak jakinarazi duenez, bi artisten kontzertuak doakoak izango dira.

Urtean zehar hainbat kontzertu antolatzen dira herrian, baina ez da ohikoa horrelako kontzertuak jarraian egitea. Karmelo Alberdik, Arrasateko Udaleko Kultura teknikariak, adierazi du kasualitatez antolatu direla kontzertuak: "Kasualitatez irten dira kontzertuak. Aspaldian, Amaia antzokiko hall-ean egin izan ditugu horrelako kontzertuak, baina orain ezin ditugu bertan egin. Hala ere, komentatzen ibili ginen denbora bat bagindoazela atzeririk inor ekarri gabe, eta, kasu honetan, eskaintza iritsi zen. Idoiarekin ere berdina. Bira hastear zihonan, eta, datak ikusita, kanpoan egitea barruan egitea baino egokiagoa izango zela pentsatu genuen".

Hasiera batean Jewellen kontzertua ere Monterongo parkean izateko programatu zuten, baina Alberdik jakinarazi duenez, eguraldi iragarpena dela eta, lekualdatzeko erabakia hartu dute azken unean: "Pena izango da, baina nahiago dugu emanaldia salbatu bertan behera uztea baino". Irargarpenaren baitan, posible litzateke Asurmendiren emanaldia ere lekuz aldatzea. Hala gertatu ezker, Udalak alde aurretik jakinaraziko du, Jewellen kasuan egin bezala.



Kontzertua joko duten Idoia Asurmendi eta Eilen Jewell. GOIENA



## EILEN JEWELL ETA IDOIA ASURMENDI IZANGO DIRA ARRASATEN KONTZERTUA EMATEN

### Eilen Jewell

Boisen (Idaho) jaiotako musikari estatubatuarra da Jewell. 1998an hasi zuen musika ibilbidea eta geroztik hamahiru lan argitaratu ditu, azkena, joan den urtean, *Get behind the wheel* izenekoa. Haren musika estiloa country gisa izendatu badute ere, askoz estilo sorta zabalagoa du; besteak beste, americana, bluesa, countrya eta rockabillya. "Oso zuzeneko onak ditu eta fama handia hartu du. Espainiako Estatuan lau kontzertu joko ditu eta bat hau izango da".

Estatubatuarra da, baina, Boisekoa izanik, Euskal Herria ez zaio arrotza Jewelli. Sarritan adierazi du euskal diasporako komunitatearekin harremana duela. Horren adibide da *Queen of the minor key* diskoko azken kantuak *Kalimotxo* izena darabala. Euskal komunitateari eta

Boisen dagoen Gernika tabernari egindako omenaldia da kantuaren izena.

### Idoia Asurmendi

Abeslari, piano-jotzaile, gitarra-jotzaile eta konpositore aramaioarra da Asurmendi. 2019 inguruan hasi zuen ibilbidea, eta ospe handia lortu du euskal eszena musikalean. *De amar y desandar* diskoa argitaratu berri du, eta aurkezpen biran murgilduta dago, haren bandarekin batera. Disko hori aurkezteko asmotan joango dira Monterongo kontzertura. "Euren zein gure partetik interesa zegoen diskoa Arrasaten aurkezteko, eta data egokia zehaztea izan da kontua. Kasu honetan, bi kontzertu jarraian izatea suertatu da".

### Amaia antzokiko lanak

Duela hilabete batzuk iragarri zituzten antzokian egingo diren lanak. Proiektua martxan dagoen arren, luze jo dezakeela dio Alberdik: "Seguruenez, lanak datorren urtean hasiko dira. Proiektua gauzatzeak denbora eskatzen du; gertatzea eta lizitatzea kasu. Lanak 2025ean hasiko direla uste dugu".



Ezberdin Berdinak taldeko antzezleak publikoari eskerrak ematen. G.B.Z.

## Antzezle berriak lan klasikoak taularatzen Amaia antzokian

'OZeko aztia' eta 'Zarata handia ezertarako ez' lanak antzeztu zituzten Dokeko ikasleek Amaia antzokian

### G.B.Z. ARRASATE

Doke antzerki eskolako ikasleek gelan ikasitakoa jendaurrean erakusteko aukera izan zuten joan den martitzenean Amaia antzokian. Bi antzeztan taularatu zituzten: lehena Lyman Frank Baumen *OZeko aztia* eleberrian oinarritutako antzeztana izan zen. Dokeko Ezberdin Berdinak taldea izan zen lan hori antzeztu zuena. Bigarrena, berriz, William Shakespeare dramagile ingelesaren idatzitako *Zarata asko ezertarako ez* antzeztana izan zen. Lan hori Kate Zoro taldeak antzeztu zuen.

### Lan klasikoak oinarri

Emanaldi horretarako, lan klasikoak antzezteko hautua egin zuten Dokeko kideek. Maider Alzelai Dokeko irakaslea izan ohi da ikasleei antzeztan proposatzen dizkiena. Hala ere, Alzelai lan gatazkatsua dela ai-

patu du, bereziki hizkuntzari erreparatuz gero: "Zailtasun ugari izaten ditugu euskarazko antzeztan topatzeko orduan. Egon badaude, baina asko oso infantilak dira. Nerabeentzako lanak aukeratzekoan oreka bat izan behar duzu aspektu horietan: interesgarria izatea, haiei gustatzea, testu egokia izatea eta abar. Ez da erraza horrelako lanak euskaraz topatzea, eta, askotan, lanak itzultzen amaitzen dut". Hala ere, taldeak garbi du euskaraz antzeztu nahi duela.

### Gazteen Antzerki Topaketak

Kate Zoro taldearentzat ez zen izan *Zarata asko ezertarako ez* lana antzeztan zuen lehen aldia. Maiatzaren 23an Donostian antzeztu zuten, Gazteen Antzerki Topaketan baitan. Topaketek lehiaketa formatua dute eta ekainaren 15ean esango dute nortzuk diren irabazleak.

## Txerrikumeak eta Maniaks taldeak izango dira Iratin

Irati taberna-topagunean joko dute Aretxabaletako Txerrikumeak taldeak eta Arrasateko Maniaks taldeak ekainaren 7an, 22:30ean. "Rock-and-rollaren munduan hainbat urte egotearen influentziak sortutako Arrasateko talde berria" da Maniaks, eta hori izango dute estreinako kontzertua. Laster argitaratuko dute *Laberintuak* izeneko diskoa.

## Arrasate Musikalen kontzertu gehiago asteburuan zehar

Gaur da lehena, 19:00etan, Musika Eskolako auditoriumean, Hari Topaketan baitan. Bihar bi emanaldi izango dira: lehena, Euskal Herriko Klarinete-joleen Topaketan bueltan, 12:30ean, Zal-dibarko pilotalekuan; eta bigarrena, Harremanen Elkartasun Egunaren baitan, 13:15ean, Seber Altube plazan, Metal Taldea eta Izan Suzuki taldeekin.



# Europako Txapelketara iritsi, eta jokatu ez

Aramaioko sokatira taldea izan zen Espainiako selekzioaren ordezkaria 1979ko irailaren 8an eta 9an Suedian jokatu zen sokatirako Europako Txapelketan, eta bihar Aramaion jokatu den Euskadiko sokatira finalean omenduko dute orduko taldea

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO Euskadiko Sokatira Txapelketako lur gaineko finala jokatu da bihar Aramaion, eta, txapelketaren ostean, 1979an Aramaio-tik Europako Sokatira Txapelketa jokatzera Jönköpingera (Suedia) joan zen taldea omenduko dute. Jon Andoni Axpe (Aramaio, 1961), Juan Jose Ibabe (Aramaio, 1962), Patxi Jauregi (Aramaio, 1954) eta Heriberto Arriolabengoa (Aramaio, 1963) geratzen dira orduko talde-tik. Lorpen "izugarriak" istorio "harrigarria" dauka atzean, ez baitzuten sokatiran egin.

Eusebio Bengoa *Kubala* entrenatzailea buru zutela joan ziren Julian Ibabe, Javier Jauregi, Javier Maskariano, Julian Etxabe, Jesus Etxabe, Lorenzo Ugarte, Felipe Kortabarria, Valentin Beitia, Benito Jauregi, Jon Andoni Axpe, Juan Jose Ibabe, Heriberto Bengoa eta Patxi Jauregi Europako Txapelketara Espainiako selekzioa ordezkatzuz, aurrez Balmasedaren aurkako lehia irabazita. 18 eta 20 urte bitartean zituzten, gutxi gorabehera. "Guretzat eta, oro har, Aramaiorentzat sekulako poztasuna izan zen", dio Jon Andoni Axpek. "Don Jose apaizak ere sermoian esan zuen: 'Hemen jendea falta da eta ea txapeldun izatea lortzen duten',



Jon Andoni Axpe, Patxi Jauregi, Juan Jose Ibabe eta Heriberto Arriolabengoa. X.U.



Aramaioko sokatira taldea txapelketa batean. ARAMAIOKO UDALA

gehitu du Patxi Jauregik. "Eta guk tiratu ez", erantzun dio Heriberto Arriolabengoak.

## Oinetakoak "arazo"

Abarkak jantzita goman egiten zuten sokatiran, baina Suediako Txapelketa hartan aramaioarrek ezagutzen ez zuten "beste zerbaitekin" tiratu behar zuten, Axperen esanetan: "Imajinatu soldadu-bota batzuk azpian ferrekin. Guk horrelako gauzarik ez genuen eraman". Aurrez saiatu ziren antzeko oinetakoak eskuratzen. Aguraingo zapata-denda batean zer egin zezaketen galdetu zuten, eta Jauregik kontatu du taldekide bat saiatu zela eskiatzeko botei aurreko alde kendu eta ferrak josten.

Mutrikuko taldea ere joan zen eurekin, baina talde modura, eta Juan Jose Ibabe azaldu du haiek gomendatu zietela ez tiratzeko, "gutziz ezberdina" zelako. Hori horrela, sokatira baino lehenagoko pisaketan ere ez zuten parte hartu. Hori horrela izanda, Arriolabengoak aitortu du "turismoa" egin-lehen aldia zuten Euskal Herri-tik kanpo- eta hango sokatiraz gehiago ikastera joan zirela, guztia ordainduta zeukatelako. Bidaia hartatik bota bat ekarri zuten, gero eurek kopiak egiteko, eta mugarrira ere izan zen bidaia, ondoren hasi baitziren lur gainean sokatiran.

## Sokatirako grina

1975ean sortu zen Aramaioko sokatira taldea, eta pisu librean aritzen ziren. Jauregik gogoan du egunkarian irakurri zutela Euskadiko Sokatira Txapelketa jokatu behar zela Urnietan 640 kiloko modalitatean: "Hara joan ginen eta pentsatzen genuen aurkariaren pisu berean zerbait

gingo genuela, baina hasi ginen eta ez genuen ezer lortu". Horren ostean, Arabako Herri Artekoan, festetan eta beste hainbat txapelketatan hartu zuten parte. Axpek nabarmendu du lehen urtean ez baina ondorengoetan Araban nagusi izan zirela. Ez zuten lortu, ordea, Euskadiko txapeldun izaterik.

Aramaioko sokatiraren urrezko aroa 1978 eta 1983 bitartean izan zela dio Jauregik, eta ondoren desagertu egin zela. Eurak ere urte haietan aritu ziren sokari tiraka, baina arrazoi pertsonalak medio sokatira utzi zuten. "Badakizu, ordaindu gabeko kirola azkar amaitzen da", dio, barrez, Ibabe, laurek azaldu dutenez, afaria ordaintzeko beste lortzen baitzuten.

Halere, urte batzuk geroago, gazte mailako talde bat osatu zuten herrian, baina urte gutxiago iraun zuen. "Herri txikietan zaila da taldea mantentzea edozein kirol izanda ere. Afizio handia behar da", gehitu du Axpek.

## Omenaldia bihar

Euskadiko Sokatira Txapelketako gizonezkoen lur gaineko finala, 640 kilokoa, Aramaion jokatu dela aprobetxatuz, omenaldia jasoko dute lau sokatiralariek finalaren ostean, trikiti eta bertso artean. Halaber, finala frontoi azpiko zelaian izango da, 18:00etan hasita, eta sei taldek hartuko dute parte. Talde horien pisaketa 15:00etik 16:30era egingo dute.

## BALMASEDARI IRABAZITA LORTU ZUEN ARAMAIOK EUROPAKO SOKATIRA TXAPELKETARA JOATEA

## Aramaio, Arabako Eskola Txikien Sarearen topagune

Arabako Eskola Txikien Sareko topaketa egingo dute gaur Aramaion. Bigarren edizioa da eta Aramaio Herri Eskolako ikasleekin batera elkartuko dira Maeztuko, Bastidako, Lantziegoko, Gobeako eta Barrundiako ikasleak, herri horiek osatzen baitute sarea; denera, 300 inguru.

10:30ean iritsiko dira ikasleak eta 10:45ean egingo dute hasiera

ekitaldia, eskolan. Ondoren, hainbat ekintza egingo dituzte, taldeetan banatuta, herrian zehar. Haur Hezkuntzako 4-5 urtekoek eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklokoek Andra Marira joango dira eta han jolasak egingo dituzte. LHko 2. zikloko ikasleek jolas tradizionalak egingo dituzte parkean eta LHko 3. ziklokoek orientazio-proba izango dute herrian zehar. 13:30ean bazkalduko dute eta 14:45ean amaiera ekitaldia izango da, eskola txikien kanta eta dantzarekin.

## Europako Mendietara asteburu-pasa, Orixolek antolatuta

Orixol Mendizale Elkartek Europako Mendietara irteera antolatu du ekainaren 28tik 30era, eta izena emateko azken eguna ekainaren 10a da. Hiru eguneko bidaia da, eta, lehenengoan, bidaia egin eta Poo de Cabralesen egingo dute lo. Hurrengo egunean, mendi ibilaldia egingo dute eta La Tenerosako ostatuan hartuko dute atseden. Azken egunean ere

mendi ibilaldia egingo dute eta bazkaritarako katxopoa jateko aukera egingo da.

Bazkideentzako prezioa 120 euro da; bazkide ez direnendako, berriz, 140 euro. Prezioak barne hartzen ditu autobusa, Poo de Cabralesko gaua eta gosaria eta La Terenosako aterpetzeko afaria, gaua eta gosaria. Azken eguneko katxopo-bazkaria gura duenak 18 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Izena emateko, galdetegia bete behar da: [labur.eus/JGimp](mailto:labur.eus/JGimp).

## Bi literatura solasaldi antolatu dituzte datorren asterako

Olatz Mitxelenak *Arrain hezur bat eztarrian* liburua aurkeztuko du astelehenean, 18:00etan, Sastiñan, Irakurketa Klub Feministaren kurtsoari amaiera emateko. Halaber, eguaztenterako, 18:00etan, parkean Nerea Loiolarekin *7G udalekuak* liburuaren solasaldia antolatu du Txirritola elkarteak. Eguraldi txarra bada, kultur etxean izango da.





Babestuz elkarteko hainbat kide herriko berdegune batean. BABESTUZ ELKARTEA

## Katuengan arreta jarrita hasi da lanean Babestuz

Orain dela bi hilabete eratu zuten kaleko katuak babestea eta horien familiak kontrolatzea helburu duen elkarte herriko hainbat lagunek, aurretik egon zenari lekukoa hartuta, eta dagoeneko bederatzi katu eman dituzte adoptatzeko

### Mirari Altube ARETXABALETA

Katuen babeserako elkarte ez da berria Aretxabaletan. Orain dela zortzi urte eratu zen lehengoa, baina iaz bukatutzat eman zuen ibilbidea. Hori jakinik, herriko hainbat lagun elkartu eta erabaki zuten berriro ekitea lanari. Hala, orain dela bi hilabete eratu zuten Babestuz. "Animalien babeserako lege berriaren aurrean, jende multzo esanguratsu batek erabaki dugu elkarte martxan jartzea, Udalarekin elkarlanean, kaleko katuen koloniak kontrolatzeko eta murrizteko", azaldu du Tere Artanok.

Elkartearen zuzendaritzan hiru lagun daude: Tere Artano bera, Laura Benito eta Merche

Vilchez. Eta haien alboan, "egunero egin beharreko zereginetan" laguntzen, beste hainbat dabilta. Hain zuzen ere, argitu gura izan dute horietako hainbatek txartel ofizial bat dutela kaleko katuak elikatzea baimentzeko: "Elkarteko kide bat gauero joaten da jaten ematen herriko hainbat puntutara. Helburua da elikagai egokiak ematea, eta ez ogia; horrek, gainera, arratoiak erakartzen ditu. Horregatik, gogorarazi gura dugu baimenik ez duten herritarrek ezin diete-la jaten eman kaleko animaliei".

### Adopzioa eta esterilizazioa

Elkartearen bi hilabeteko ibilbidean dagoeneko bederatzi

katu eman dituzte adoptatzeko. Sare sozialen bidez eta animalien babeserako elkarten laguntzarekin ematen dute adopzioen berri. "Ez dakit Donostialdean zer gertatzen den, baina eskaera gehienak inguru hartatik iritsi zaizkigu: Errenteriatik, Zumaiatik, Oriotik...", eman du aditzera Benitok. Orain, beste hiru kume dituzte emateko moduan: "Bi hilabete ingurukoak dira eta horietako bi erreserbatuta ditugu". Familiei eman aurretik albaitariarengana eramaten dituzte, oinarriko azterketa bat egin diezaien: "Belarriak eta sudurra begiratzen diete, baita parasitorik ote duten ere".

Bi edo hiru hilabetetik gorako katakumeak ematen dituzte adopzioan, eta familiekin hartu-eman estua izaten saiatzen dira; horregatik, katuak ezagutzeko, etxera gonbidatzen dituzte. "Adopzioan emandakoan kontratu bat sinatzen dute familiek, eta ondoren ere jarraitpena egiten diegu; behintzat, hasieran. Argazkiak eta bideoak bidaltzen dizkigute".

Elkartek bere gain hartu duen beste arduretako bat da katu helduak esterilizatzea: "Herriko kopurua kontrolpean izateko eta neurririk gabe ez ugartzeko, esterilizatzea eramaten ditugu; kumeak izan ostean, adibidez. Izan ere, urtean hiru aldiz erditu daitezke eta bakoitzean hiru, lau edo bost kume izan".

### Lokal baten zain

Babestuzeko kideak "pozik" daude Udaletik jaso duten babeserekin, eta gaur egun lokal baten zain daude: "Sortzen diren beharrei erantzuteko izango da lokala. Adibidez, jatekoa gordeko dugu: pentsu-zakuak, esne-hautsa, biberioiak... Baita amarik gabeko kumeak ere; eta haurdun daudenek leku lasai bat izango dute erditzeko". Datorren astean lokal horren gaineko berrirren bat izatea espero dute.

Udalaren laguntzaz gain herriaren laguntza ere beharrezkoa dela adierazi dute, "gastu asko" sortzen direlako. Dirua batzeko kontu bat zabaldu dute Laboral Kutxan: 0002120020086596.

Era berean, edonork argibideak gura izanez gero edo arazoren baten berri eman, elkarteko zuzendaritzako kideekin jar daiteke harremanetan: Laura Benito (619 98 47 63), Tere Artano (658 73 42 17) eta Merche Vilchez (648 19 10 80).

### 'Galarza: linaje y torre' liburua aurkeztuko dute bihar

Aranzadi Zientzia Elkarteko Eloisa Uribarri Agirrebengoa, Alfredo Moraza Barea eta Alex Ibañez Etxeberria arkeologo eta dokumentalistek egindako lana da *Galarza: linaje y torre. Siglos XV-XX* liburua, eta bihar, ekainak 8, aurkeztuko dute, Arkupen, 12:00etan.

Orain dela hiru hamarkada Galartzako dorretxean egindako indusketa bat izan zen lan horren abiapuntua, eta, hari-mutur horri tiraka, dorretxearen bueltako hainbat aspektu landu dituzte. Hiru kapitulutan banatuta, Leintz bailaren historia, galartzarren familiako kontuak eta dorretxearen eta jauregiaren bilakaera jaso dituzte.

### Batzar orokorra egingo du Loramendik eguaztenean

Loramendi elkarteak ekainaren 12an egingo du ohiko batzar orokorra, eguaztenea, udaletxe zaharrean; lehenengo deialdia 17:45ean da eta bigarrena, 18:00etan.

Bazkide guztiak gonbidatu dituzte bertara, eta landuko dituzten gaien artean daude 30. urteurrenaren bueltako ekitaldien eta 2023ko jardueren berri ematea; 2024rako aurreikuspenak azaltzea; 2023ko ditu kontuak onartzea eta 2024ko aurrekontuak aurkezte. Galderak eta eskaerak egiteko tarte ere egongo da.

Elkarteko ordezkariak jakinarazi dute bazkideen datuak osatzen dabilzala, eta, horretarako, bulegotik pasatzeko eskatu dute.

Leizarra  
musika  
dantza  
eskola

MATRIKULAZIO EPEA 2024 - 2025

Maiatzaren 15etik ekainaren 14ra

Informazio gehiagorako Musika Eskolako bulegoan

ARKUPEKO hirugarren solairuan 16:00etatik - 19:00etara  
leizarra.matrikulazioa@gmail.com

BARRENETIK SENTITU, BIZI, MUSIKA GOZATU.





# Arkupeko oholtza, musika ikasleen topaleku

Ikasturteari bukaera emateko, Musika Astea egingo du Leizarra musika eskolak ekainaren 16tik 21era bitartean, eta egunero izango dira erakustaldiak, Zaraia aretoan; aurretik, astelehenean, Debagoieneko musika eskoletako kideak elkartuko dira han

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Azken txanpan sartu da Leizarra musika eskola, eta aurten, lehenengoz, astebetean egingo dituzte emanaldi guztiak, instrumentuetako ikasleen mailaren arabera taldeak osatuta. Ekainaren 16tik 21era izango dira horiek, Arkupeko Zaraia aretoan, eta Musika Astea izenaren baitan bildu dituzte.

**Kantu emanaldiak hilaren 16an**

"Hainbat instrumentuk egingo dute bat taldetan, ikasleen maila errespetatuta. Hasiberrietatik hasi eta gorengo mailara artekoek joko dute, eta helburua da ikasturtean ikasitakoa erakustea", azaldu du Mariatzen Urkiak, eskolako zuzendariak. Hilaren 17an, 19an eta 20an izango dira horiek, 18:00etan.

Ekainaren 18an, ostera, ikasturte amaierako kontzertua egingo dute; hori ere Arkupen izango da, 18:00etan. "Urterokoa da; dagoeneko mailatxo bat duten ikasleak elkartuko dira hor". Eta 21ean, konbo kontzertuak izango dira, talde formatuan.

Horien aurretik, hilaren 16an kantu emanaldia izango da, 19:00etan. Urkiaren esanetan, kantuko eskolak jasotzen dituzten sei abeslari izango dira oholtzan eta abesbatzako gazteek



Musika eskolako ikasleak, ate irekien saioan, Herriko Plazan. LEIZARRA MUSIKA ESKOLA

ere hartuko dute parte, konbo batekin, hain zuzen.

**Bi bandaren emanaldia**

Astelehenean, hilaren 10ean, ostera, Debagoieneko musika eskoletako ikasleen topaleku izango da Arkupe. Aretxabaletarrekin elkartuko dira Arrasatekoak, Oñatikoak, Bergarakoak, Eskoriatzakoak eta Soralezekoak eta bakoitzak hamar minutuko saioa egingo du.

Udaleko Kultura Sailak antolatutako *7x7 kultura kalean* ekimenaren baitan, berriz, mu-

sika eskolako bandak, Oñatiko banda gaztearekin batera, kontzertua emango du hilaren 14an, 19:00etan, Felix Inurrategi lorategian. Jon Lopez zuzendariaren gidaritzapean, animaliekin eta naturarekin zerikusia duten piezak joko dituzte.

**Matrikulatze epea irekita**

Musika eskolak jaso gura dituenak matrikulatze epea zabalik dauka ekainaren 14a arte. Eskolatik bertatik pasatu daiteke argibideak jasotzeko eta izena emateko.

## Oihan Loiti arrasatearrak irabazi du Euspoteko sari nagusia

'Mugikorrek eta adin txikikoak' izan da XIII. euskarazko spot lehiaketaren gaia eta 87 lan izan dira lehian

**M.A.** ARETXABALETA

*Izan burua, altxa burua* lana izan da XIII. Euspot lehiaketaren irabazle nagusia eta horren egile Oihan Loiti arrasatearrak eskuratu ditu 1.000 euroak, "spotaren kalitate teknikoa eta mezuaren egokitasuna" aintzat hartuta. Hain zuzen ere atzo, ekainak 6, iluntzean ziren banatzekoak sariak Arkupen.

Mondragon Unibertsitateko ikasleen spotik onenaren saria, 500 euro, Unai Cantabrana elgetarrak, Aner Olaizola oreretarrak eta Danel Ezpeleta arrasatearrak

jaso zuten *Distrazioaren adikzioa* izeneko lanagatik.

Publikoaren saria, 500 euro, ostera, *Gora begira mundu berria* spotarentzat izan zen; Julen Calderon, Garazi Prieto eta Zailoa Garcia dira egileak. Gazteen saria, 500 euro, Peru Arrese eta Izadi Zumalde arrasatearrek irabazi zuten *Heldua zu zara, heldutasunez jokatu* spotarekin; eta Arizmendiko ikasleena, 250 euro, Eider Sanchez, Maddi Lasa eta Itxaso Lopez aretxabaletar eta eskoriatzarrek *Zuk zeuk erabaki* lanagatik.

## Andoni Ollokiegiren musika emanaldia dago eguaztenean

*7x7 kultura kalean* ekimenak eguaztenean hasi zuen aurtengo ibilbidea, umeendako pailazoen ikuskizunarekin. Gaur, ostera, txotxongiloak protagonista dituen eta berdintasuna aldarrikatzea helburu duen Bihar taldearen *Amets pirata* txotxongilo emanaldia izango dute 4 urtetik gorako neska-mutikoeak, Santa-kurtz plazan, 19:00etan.

Datorren eguaztenean, musika izango da protagonista: Andoni Ollokiegi abeslari pasaiatarraren emanaldia izango da Mitarte kalean, 19:00etan. *Bekataria* izeneko lehen diskoko kantak aurkeztuko ditu eta beste hainbat kanta ezagun abestu ere bai.

## Oporren aurreko jaialdia egingo dute Kurtzebarriko kideek

Ikasturtea amaitzean da eta Kurtzebarri eskolakoek jaialdiarekin esango diote agur bihar, zapatua. Ikasleak, irakasleak eta gurasoak elkartuko dira egun osoko ospakizunean eta herritarrak ere gonbidatu dituzte bat egitera.

Tarta lehiaketarekin hasiko dute eguna, 10:30ean, baina jaialdiari 12:00etan ekingo diote, txalapartariekin deituta. Ondoren, Kurtzebarriko batukadak girotuko ditu kaleak, buruhandien laguntzarekin. *Eguzkiari agurra* ikuskizuna egingo dute 13:00etan, eta 14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira, pilotalekuan. Bazkalostean, puzgarriak, kart autoak, musika eta bolotoxapelketa izango dituzte.

**INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

# "Egoiliarren ongizaterako laguntza behar dugu"

**EVA MARIA DOLARA** JOSE ARANA ZAHARREN EGOITZAKO ZUZENDARIA

Jose Arana zaharren egoitzan ateak irekiko dituzte etzi, zapatua, goizeko hamaiketan, bertako profesionalak eta egiten dituzten jarduerak ezagutzeko

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA**  
Urte eta erdi darama Eva Dolara (1969, Bilbo) Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako zuzendari. Gustura ari den arren, bertan behar asko dituztela adierazi dio GOIENARI, eta laguntza oro ongiatorria dela.

**Nolako izan da harrera herrian eta egoitzan?**

2022ko abenduaren 27an, Jose Arana egoitzan sartu nintzen, eta lehenengo egunetik oso harrera ona izan dut patronatuaren aldetik, egoitzako lantaldearen aldetik, eta baita Eskoriatzako herriaren aldetik ere. Nabari da maitasun handia diotela egoitzari. Hori horrela, gaur arte, nire esperientzia positiboa izan da, nahiz eta lan handia egiten dugun bertan eta lan ezberdin asko ditugun esku artean; une onez eta txarrez betetako eguneroko ikaskuntzarekin, baina gizatasun karga handiak konpentsatzen zaitu, eta horrek indarberritu egiten zaitu.

**Nolako da Jose Arana Patronatu-kideekin duzun erlazioa?**

Beti gertatzen den moduan, pertsona batzuk gehiago inplikatzeko dira beste batzuk baino, baina, egia esan, patronatuko kide gehienak oso inplikaturik daude egoitzan gertatzen den guztia-rekin. Gaurdaino, kezkarren bat edo premiaren bat adierazi duan guztietan, erabat babestuta sentitu naiz.

**Iritsi zinenetik aldaketak egon dira; zeintzuk?**

Izan dira aldaketak, eta hobetzen ari garela uste dut. Oso zaila litzateke esku artean ditugun lan guztiak hemen islatzea, baina, laburpen bat egitearren, hona hemen adibide batzuk: ia arlo guztietan hobetu dugu kalitatea, oinarrizkoenetik hasi eguneroko higie-ne-produktuak eta logelak berrituz. Ohe guztiak eredu artikulatu berriekin ordezkatu dira, egunero egiten diren prozesu guztiak



Eva Dolara, Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako zuzendaria. IMANOL BELOKI

**"INSTITUZIOETATIK JASOTZEN DITUGUN LAGUNTZAK EZ DIRA NAHIKOAK, NIRE USTEZ"**

aztertu eta hobetu dira, eta, horretarako, txanda bakoitzeko laguntzaileen kopurua indartu egin dugu. Ziurtatu dezaket egoitza Aldundiak arreta ematen dugun egoiliar kopuruarentzat ezartzen duen laguntzaileen ratioa baino askoz handiagoa dela. Egunero hurbiletik zerbitzatzen diren menuak zaintzen ditugu, eta kontziente naiz sukaldeko langileekin dugun zortearrekin. Langile horiek ez dira gure langile propioak, baina ilusio eta inplikazio berezia erakusten dute gurekin. Podologoaren bisita ugari egin ditugu eta ile-apainketa zerbitzua oso gertutik zerbitzua ere lantzen ari dira, eta, horretarako, gela bat ireki dugu. Erizaintzako zainketak bikoiztu egin dira, sail horrek egiten dituen orduak bikoiztuz, orain dela gutxi bes-

te profesional bat sartu da, eta hori oso egokia da guztiontzat. **Jende beharrik badago?**

Gaur egun, Jose Arana Zaharren Egoitzaren plazak beteta ditugu. Guztira, 32 egoiliar ditugu egoitzan eta hamabost erabil-tzaile, berriz, eguneko zentroan. Egunero lan miresgarria egiten duten hamasei gerontologok, gauetan egoiliarrek zaintzen eta laguntzen dituzten lau zaindarik eta lan handia egiten duten garbategiko lau profesionalek osatzen dute taldea. Mantentze-lanetako Asier gabe ez gara ezer, eta Gureak Fundazioarekin batera amaitu dugun Pauso Berriak proiektuaren parte den Maiteren laguntza ere badugu. Gainera, diziplinarteko talde zoragarria dugu egoiliarren bizi-kalitatea zaintzen: Alejandro Albaina, fisioterapeuta; Elena Urresti, gizar-te-langilea; Iratxe Arrillaga, psikologoa; eta gure erizain-taldea, Josefina Garcia eta Ana Sanchez, eta gure medikua, Leire. Hala ere, langile falta beti dago; izan ere, beti dago ordezkapenak egiteko beharra, izan atsedenaldiengatik, o-  
porengatik, edo bajengatik.

**Egoitza irabazi asmorik gabeko zerbitzua da, baina dirua behar da egoera onean egon dadin; laguntzak nahikoak dira?**

Fundazioa irabazi asmorik gabekoa da, erabat altruista, eta helburua ez da onura ekonomikoa, soziala eta humanitarioa baizik. Egoitza egoera onean egon dadin, pertsona fisikoen edo mota guztietako erakundeen dohaintzetatik eratorritako ekarpen ekonomikoak beharrezkoak dira, eraikinak urte dezente dituelako eta beti dagoelako konpontzeko edo eguneratzeko beharra. Instituzioek egoitzaren eraikinaren eta lur-sailen egoera zein den jakin behar dute. Gaur egun, esaterako, eguneko zentroaren zerbitzuari dagokion eraikina barrutik eta kanpotik saneatzen ari gara.

**Zein da egoitzaren gaur egungo egoera?**

Aldundiak ematen du laguntza, baina ez du haratago ikusten zenbait kasutan. Benetako beharrek zeintzuk diren galdetu behar-ligukete; izan ere, behar horiek zentzu gutxiko arauen eta buro-kraziaren artean ezkutaturik geratzen diren sentsazioa daukat. Hori horrela, erakundeek ezarritako laguntzak ez dira nahikoak. Eskoriatzako Udalarekin komunikazio iraunkor, arin eta argia mantentzen dugu; laguntzen digute, baina euren neurrian. Herriari dagokionez, badakit laguntza deia egin den guztietan hori egon direla, eta horregatik eskatuko nuke duten maitasun hori laguntza-bide bihurtzea. Izan ere, egoitza, gaur-gaurkoz, ez da hobe-tuko kanpoko laguntzarik gabe, eta egitura konpontzeko eta espazioak berritzeko beharra dago. Tamalgarria da, adibidez, egoitzako kaperaren eta inguratzen gaituzten lorategien egoera.

**Zapatu honetan ateak irekiko dituzue; eraikina ezagutzeko, ezta?**

Eguneko zentroa ezagutzeko eta bertan egiten den lan handiaren berri emateko irekiko ditugu ateak. Hala ere, gustatuko litzaidake guri laguntzeko asmoa duenak 602 25 37 73 zenbakira deitzea, hitzordua hartzeko eta egoitza bisitatzeko. Egoitza komunitate honen zati garrantzitsua bat da eta herritar guztien bihurtetara iritsi nahiko nuke, herriaren eta herritarren parte dela gogorarazi, eta une honetan haren laguntza behar duela azpimarratu.

## Besarkada gehiago emateko eskaera

Ekainaren 10etik 15era bitartean ospatuko dute Aste Zapatista, EskoZap-ekoek antolatuta

**I.B. ESKORIATZA**

Aurten 24 urte beteko ditu Eskoriatzako Aste Zapatistak, eta zapatistek laguntzen jarraitzeko eta bertako herritarrei kontzientziak pizteko egitasmoak hamaka hitzordu izango ditu, beste urte batez, EskoZapeko kideek antolatuta. Astelehenean, hilaren 10ean, Iurre Romaratezabalaren *Beste mundu bat posible da* hitzaldia izango da herri eskolan; hilaren 11n, Besarkaden Eguna ospatuko da, eta Oihulari Klow-nen performanceaz gozatu ahal izango dute herritarrek; eguaztenean, berriz, *Udaberri paseoa* egingo dute, trikitilariak lagun-duta. Hau da, Jose Arana egoitzako egoiliarrek paseoa atarako dituzte. Eguenean, *¿Qué pasa en Palestina?* hitzaldia izango da Monica Leivaren eskutik; egubakoitzean, gazte-laguntza nerabeekin tako lehiaketa egingo dute eta Txoko Feministan, Inkernu parean, Chico Inferno eta Bad Sound taldeen kontzertuak izango dira; zapatuan, berriz, artisau azoka eta bazkari mexikarra, *Autore erotua* saioa Eñaut Uribesalgoren eskutik eta EZLNren 30 urteko borrokaren gaineko argazki erakusketa jarriko dute kultura etxean ikusgai.

**ION ANDER CASTRO ZABALA**

Era guztietako aulkien konponketa  
Zumezko artikuluen salmenta

**TAPIZERIA OROKORREAN**

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**



# 'Hezi eta hazi' lelopean, eskola publikoaren jaia

Zapatu honetan kolore arrosarekin, herri eskolako kolorearekin, bete nahi dute herria Luis Ezeiza Herri Eskolakoek. Hala, irakasleek eta Koldotxo Guraso Elkarteko kideek antolatuta, egun osoko programazioa prestatu dute, beste urte batez

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Urtero bezala, ekaineko bigarren zapatuan ospatuko da Luis Ezeizako Herri Eskolako Eguna. Adin guztietarako jardueraz betetako eguna izango dute, eta, beti bezala, haurrak izango dira protagonistak. Herri eskolako irakasleek goizeko ekintzen ardua hartuko dute, batez ere, eta arratsaldeko ekintzen ardua, berriz, Koldotxo Guraso Elkarteko kideek izango dute. Aurten berritasun bat ere badute egitarauan; izan ere, herriko txarangak kalejiran parte hartuko du, 10:00etatik 11:00etara bitartean.

## Haurrentzako ekintza ugari

10:00etan hasiko dira, pregoiarekin eta kalejira batekin herrian zehar, eta, horretarako, Ad Libitum txarangaren laguntza izango dute. 11:00etan, berriz, ikasleen emanaldiak izango dira Fernando Eskoriatza plazan. "Haur Hezkuntzako 2, 3, 4, eta 5. mailako dantzak izango dira; gero, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako dantza; eta ondoren, hirugarren mailakoena. Aurkezpenak bertotan egingo dituzte laugarren mailako ikasleek", adierazi du Maitane Gomez de Segurak, Luis Ezeizako irakasleak.

Ondoren, jolasak eta tailerrak izango dituzte: aurpegiak margotzea, karaokea, herri kirolak... eta ondoren, buruhandiak aterako dira. Bazkaria, berriz, eskolako aterpean egingo dute, eta catering-enpresa batek egindako paella jango dute. Gero, Kurtzebarriko DBH-3ko ikasle ohiak kafea eta pastak eramatera joango dira, ikas bidairako dirua lortzeko. Bazkalostean, euskal kantak abestuko dituzte eta bingoan arituko dira. Arratsaldean puzgarriak eta apar festa izango dituzte -euria egiten badu, beste

asteburu batean egingo dira ekintzak-. Eguna amaitzeko, aldiz, 18:30ean DJa izango da Fernando Eskoriatza plazan.

## Eskolako kamiseta jantzita

Eskolako kamiseta arrosa jantzita joateko dei egin dute antolatzaileek. Hala, goizean goizetik eta egun osoan Eskoriatzako kaleak arrosez beteta izateko. Kolore arrosak esanahi ugari ditu; tartean, positibismoa eta inozentzia, baita edertasuna ere. Beraz, edertasunez betekiko dituzte herriko kaleak zapatuan.



laz, Luis Ezeiza Herri Eskolako jaiko dantzaldian. IMANOL SORIANO

## Kukumarrua oinarri, logo berria du Txosna Batzordeak

Eskoriatzako Txosna Batzordeak logo berria estreinatu du. "Aurretik genuen logoak ez du elementu zehatzik herriarekin zentzuzko duena. Hori horrela, kukumarrua aukeratu dugu logorako, herriko kulturaren parte delako. Hainbat proposamenen artean hori izan da aukeratua", adierazi du logoaren egileak, Olaia Benitok.



Logo berria. OLAIA BENITO

## Aingeru Guardako skate parkean skate jaia egingo da gaur

Eskoriatzako Udalak antolatuta, skate jaia ospatuko dute gaur, egubakoitza, Aingeru Guardako skate parkean. 18:00etan hasiko da, eta, lehenbizi, skatearen teknikak ezagutzeko ikastaroa izango da 10 urtetik gorako haurrentzat; ondoren, erakustaldia egingo dute; eta, amaitzeko, skate librea. Ekintzan parte hartzeko ez da izenik eman behar.



Gatzagako Antzerki Taldeko kideak entsegu batean. EIDER SANZ

## Ikasturtea amaitzeko, antzerki taldekoen saioa jendaurrean

'Medikuaren kontsultan' izeneko esketxa aurkeztuko dute gaur antzerki taldeko kideek, 18:30ean, plazan

## Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Debagoienerako Antzerki Plataformako kideek eskaintzen duten hastapenerako antzerki ikastaroko gaztetxoak ikasturte amaierara iritsi dira. Leintz Gatzagako antzerki taldea osatzen dutenek asko ikasi dute orain arte; izan ere, egubakoitzero batu izan dira arte eszenikoen berraztertzeko eta saio horien helburu nagusiari eusteko; hau da, ondo pasatzeko.

Ikasgai ugari izan dituzte ikasturte osoan, Eider Sanz DAPeko kidearen gidaritzapean, eta, barneratutako ideiak praktikan jartzeko asmoz, amaiera boro-bila emango diote ikasturteari. Hain zuzen, plazara aterako dira gaur herritarren aurrean antzezlan bat egitera. "8 eta 11 urte bitarteko haurrak dira Gatzagako antzerki taldea osatzen dutenak; zazpi lagun, guztira. Ikasturtea oso ondo joan da, eta orain, ikasitakoa praktikan jartzea da asmoa", adierazi du Gatzagako antzerki taldeko Eider Sanz irakasleak.

## Ikasitako praktikan jartzen

Hain zuzen ere, *Medikuaren kontsultan* izeneko esketxa prestatzen aritu dira etxekoan, lagun eta saioa ikustera joaten diren guztien aurrean antzezteko. Eguraldi ona egiten badu, plazan izango da ikuskizuna eta eguraldi txarra egiten badu, berriz, liburutegian egingo dute; hain zuzen, Leintz Gatzagako erabilera askotariko gelan. Gaur,

egubakoitza, izango da ikuskizuna, 18:30ean.

## Testu gabe, gorputza erabiliz

"Lehenengo ikasturtea da Leintz Gatzagan antzerki taldea sortu dena. Oso ondo funtzionatu duela esango nuke. Antzerkiak alderdi ludiko bat du eta gure helburua ez da emaitza bat plazaratzea egubakoitz honetan. Ikasturte osoa lana plazaratzea da helburua. Joko bidez egin ditugunez saioak, horrela egingo dugu gaurko antzerkia. Testu gabe, gorputz espresioekin egindako saioa izango da. Izan ere, antzerkia bizitzeko zerbait da, eta adin horretan ondo pasatu behar dute, horrek izan behar du gako. Ahizpea Gonenaren esketx bat hartu dugu, eta haren idatzizko testua abiapuntu gauzatuko dugu. Testu luze lanekin ere ibili gara, baina euren neurrikoa aukeratu nahi izan dugu".

## Taldearen jarraipena

Ikasturteari dagokionez, gurasoen eta ikasleen partetik jasotako feedbacka positiboa izan dela dio Sanzek: "Parte-hartzaileak pozik badaude eta antzerki taldearekin jarraitu nahi bada, izango dugu jarraipena".

**ZAZPI HAUR DIRA GATZAGAKO ANTZERKI TALDEKO KIDEAK, ETASAI OA ESKAINIKO DUTE GAUR, PLAZAN**



**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Eguazten eguzkitsua eta beroa da Bergarako Buruñao auzoko Ziarreta baserrian, eta kazetaria eguerdirako heldu denerako ortuko lanak amaituta dituztela daude, itzaletan, Iñigo Gabilondo, Jone Arizti, Yaya Sarr eta Olaia Blanco, eta haiekin batera elkarriketarako gertu dago Eskubaratz proiektuko kide eta Bergarako Elikadura Mahaiko partaide Ion Ruiz de Egin.

Martxo ezker martxan dagoen Ortulaguntza zerbitzuaz berba egiteko elkartu dira GOIENAREkin, nor bere ikuspegitik, baina guztiak bat datoz ondorio batean: lehen sektoreak bizi duen egoera zailerako ezinbestekoak dira halako ekimenak.

#### Ortuko laguntza zuzena

Debagoienean baratzegintza profesionalean ari diren ekoizle txikiei laguntza zuzena eskaintzeko asmoz, Landa Garapenak eta Debagoieneko udalek Ortulaguntza zerbitzu berria jarri dute martxan. Helburua da lehen sektoreko ekoizle txikiak laguntzea, horien erreleboa bermatzea eta proiektu berrien sorrera sustatzeko laguntza sistema martxan jartzea. Horretarako lanpostua ere sortu zuten; lanpostu hori bereganatu duenak, Olaia Blanco eibartarrak, eskualdeko baratzegintza proiektuetan ortuko lanetan dihardu, otarreak eta eskariak prestatuz, mantentze-lanak eginez edota makineria erabiliz. Horretaz gain, bailarako nekazarien arteko saretzea bultzatzea ere bada haren lana; erosketa kolektiboen koordinazioan, adibidez. Gainera, zerbitzu berriaren koordinazio eta dinamizazio lantaldean ere parte hartzen du.

#### Bergarako Elikadura Mahaitik

Bergarako Udaleko zinegotzi eta alkateorde Ainhoa Letek lehen sektoreak laguntza behar duela azpimarratu zuen zerbitzuaren berri eman zenean: "Beste sektore batzuei eskaintzen zaien laguntzaz haratago, herriko lehen sektoreko ekoizle txikiei ere babesa eskaini nahi genien, nekazaritzan nabarmena den errelebo falta txikitzeko eta bizi duten zaurgarritasun egoeran laguntzeko asmoz. Orain, proiektua eskualde osora zabalduko da Landa Garapena elkarrearen bitartez, eta albiste horrek asko pozten gaitu".



Yaya Sarr, Olaia Blanco, Iñigo Gabilondo, Jone Arizti eta Ion Ruiz de Egin, eguaztenean, Ziarreta baserria atzean dutela. J.B.L.

# Hazia loratu arte, ortuko laguntza

Bergarako Elikadura Mahaitik sortutako Ortulaguntza zerbitzua martxo ezker dago martxan; oraingoz, bailarako zazpi baserrian. Ortutik bizi diren ekoizle txikiei laguntza zuzena ematea du helburu, egoera "oso zaurgarria" bizi duen sektorea hauspotzeko

Bergarako Elikadura Mahaitik sortutako zerbitzua dela gogora ekarri du Ion Ruiz de Eginok, Eskubaratza proiektuan ere buru-belarri diharduen ekoizleak: "Elikadura Mahaiko lanketen artean nabaritu genuen

nekazaritzan apenas dagoela erreleborik; izan ere, datuei erreparatzen badiegu, 2013an Debagoienean hogeitik gora nekazaritza proiektu zeuden eta gaur egun, berriz, hamahiru dira. Egoera horri aurre

egiteko sortu da, besteak beste, Ortulaguntza zerbitzua".

Kezka horretatik tiraka, nekazaritza ekologikoa sustatzea helburu duen Biolur elkarrekin Duina proiektua jarri zuen martxan 2021ean, Ruiz de Eginok

zehaztu duenez: "Ikerketa sakona egin zuten urtebetean Bizkaiko eta Gipuzkoako hamaika etxalderen parte hartzearekin, eta, tartean, Debagoieneko hiruk hartu genuen parte. Datu bilketa baten ostean, ondorio moduan atera genuen ortuko lana karga handikoa dela eta gutxieneko soldata batera heltzeko zailtasun handiak izaten direla".

Hain zuzen ere, lan-karga handiaren ondorio horri aurre egiteko sortu zen Ortulaguntza, eta, Ruiz de Eginoren arabera, ia bi urteko prozesua izan da: "Bergaratik dator ideia, baina hasieratik da bailara mailakoa. Ortulaguntza zerbitzuaren helburuak ondo zehatu eta findu behar izan ditugu, Landa Garapena elkarrekin lan-deialdia atera zuen... Eta martxo ezker lanean dabil horretarako kontratatutako pertsona".

#### Olaia Blanco ari da lanean

Hain zuzen ere, Olaia Blanco eibartarra izan da lan-deialdi horretan baldintza onenak betetzen zituen pertsona. Esandako moduan, martxo ezker dabil lanean: "Debagoieneko ekoizle txikiei laguntza zuzena eskaintzen diet, haien baldintzak hobekien izan daitezten. Esan dezakegu zerbitzu pertsonalizatua dela, ekoizle bakoitzaren egoera ezberdinak delako; batzuk baserrietako familiak dira, beste batzuk lagun talde bat.. Zaurgarria den sektorea izanik, sostengua ematen diet; besteak beste, bajak estaltzeko ordezkapenak, eguneroko lan-karga arintzeko ortuko lanak... Ekoizleen arteko saretzea ere badu helburu zerbitzuak". Ziarreta baserrian harapatu du GOIENAK Blanco, baina beste zenbait baserri ere bisitatu ditu dagoeneko, edo las-

## Azokarako araudi berria, onartzeke

Duela bi urte inguru hasi zen Elikadura Mahaia Oxirondo azoka biziberritu eta lehen sektorearen "topagune" izateko Elikaena proiektua lantzen. Elikadura burujabetza eta bertako produktuak oinarri hartuta azoka garaikidearen kontzeptuari heldu nahi diote: "Baserriarren produktuak lehen lerroan eskuragarri jarri, ordutegi malguaz, kalitatezko eta

konfiantzazko jakiak eskura ipiniz, sensibilizazio jarduerak antolatuz eta jantokien horniketa aukerak landuz". Azokaren beheko solairuaren eremu zabal bat hartuko du Elikaena, ohiko postu finkoen ondoan. Besteak beste, sukalde komunitario bat eta denda bat egongo dira. Hilaren 10erako ezohiko osoko bilkura deitu dute, besteak beste, azokaren erabilera araudia onartzeko.



Oxirondoko lanak amaituta, asmoa da irailean jartzea martxan Elikaena. B.U.



## Ortulanguntza zerbitzuaz, hainbat ikuspegitatik



**ION RUIZ DE EGINU** EKOIZLEA  
ETA ELIKADURA MAHAIKO KIDEA

### "Ortulanguntza su txikian koinatu da, eta ondo doa"

"Ortulanguntza bi urtez su txikian koinatu den zerbitzua da eta, oraingoz, ondo ari da funtzionatzen. Gu, ekoizle bezala, 2013an hasi ginen Eskubaratz proiektuarekin; ez dakit azaltzen zergatik, baina orduan loraldi txiki bat bizi izan zen bailaran, proiektu txiki batzuen jaiotzarekin. Ordutik, hainbat arrazoiengatik, proiektu horietako batzuk desagertu egin dira. Bestalde, Elikaenea izeneko proiektu itxaropentsu bat ere badugu Bergaran; irrikaz gaude Elikaenea martxan jartzeko".



**OLAIA BLANCO** ORTULAGUNTZA  
ZERBITZUKO ARDURADUNA

### "Oso sektore zaugarria da, laguntza behar dute"

"Martxoan ezker ari naiz baserriz baserri eta niretzat oso esperientzia aberasgarria ari da izaten. Ekoizle txiki bakoitzaren errealitatea ezberdina denez, lanak ere ezberdinak dira, eta esango nuke ekoizleek eskertzen dutela. Oso zaugarria den sektorea da eta uste dut gizarteak ez dela behar beste jabetzen ekoizle horiek bizi duten egunerokoaz; konexio hori berreskuratzen joan beharko genuke pixkanaka, eta, hain zuzen, horretan Ortulanguntza moduko ekimenek euren aletxoak jartzen dute".



**IÑIGO GABILONDO** ZIARRETA  
BASERRIKO ARDURADUNA

### "Erosketa ohituretan ere eragitea ezinbestekoa da"

"Lehen sektorearen egoera horren eskasa izanik, Ortulanguntza moduko zerbitzuak oso lagungarriak dira guretzat. Ereindajanak, azoka biziberritzeko proiektuak eta beste edozein laguntzek oxigenoa ematen digute; guri saltzea komeni zaigu eta horretarako erosleak behar ditugu. Bergarara etorrira, ea Elikaenea martxan jartzen denean herritarrek erantzuten duten; topagune erakargarria sortzea garrantzitsua da, baina erosketa ohituretan ere eragitea ezinbestekoa da".

ter bisitatuko ditu. Horien artean daude, besteak beste, Arrasateko Gaizka Olabarrieta, Bergarako Elkoro baserriko Ane Gorosabel, Oñatiko Ortuzabala proiektua, Antzuolako Lapatza baserria eta Bergarako Eskubaratz proiektuko "lagunak".

### Gizarteak, "geroago eta urrunago"

Ekoizleen partetik nolako harrera izan ohi duen galdetuta, honako hau erantzun du Blancok: "Niretzat oso aberasgarria ari da izaten, izugarri ari naiz ikasten. Baina garrantzitsua da eurentzat ere aberasgarria dela, konfiantza sortu ostean ortu bakoitzean ikusten dudana partekatzen dudalako haiekin. Niretzat gozamina da eurekin lan egitea, eta uste dut eskertzen dutela; ezin da ukatu ekoizleentzat berritasuna dela ezer ordaindu gabe pertsona bat euren egunerokoan laguntzera etortzea".

Horrez gain, Blancoren iritzia da baserria eta kalea elkarren artean geroago eta urrunago daudela: "Uste dut kalean bizi garenok ez garela lehen sektorearen errealitateaz jabetzen. Zubi-lan garrantzitsua dago

egiteke; hori bera igartzen dut nire lanpostuan. Izan ere, ni udaletatik nago kontratatuta eta gorputza, eskuak eta ezagutza jartzen ditut ortuan, baina gero, bulegoko lanak ere egin behar ditut; bereziki, bulegoko lan horretan igartzen dut aldentzea, eta esango nuke gizartearen gehiengo oso urrun dagoela lehen sektorean lan egiteak dakarrena jakitetik. Konexio hori berreskuratzen joatea dagokigu, pixkanaka bada ere".

### Ziarreta baserriko lantaldea

Laguntza jasotzen ari den ekoizleentako bat da Ziarreta baserriko arduradun Iñigo Gabilondo. Dio egunerokoan "lan handia" dagoela eta hala komeni dela etekinei begira, baina asko eskertzen du Ortulanguntza moduko zerbitzu bat: "Zerbitzua martxan jarri berri da, hilabete

**ORTULAGUNTZA  
ZERBITZUA  
BAILARAKO ZAZPI  
BASERRITARA HELDU  
DA, ORAINGOZ**

gutxi batzuk dira, baina oso positiboki baloratzen dut. Gure sektorea oso gaizki dago eta edozein laguntza da ondoetorria".

Ziarreta baserriko askotariko lanak hiru lagunen artean daude banatuta: Gabilondo bera arduradun moduan, eta harekin batera daude lanean jatorri senegaldarra duen Yaya Sarr bergararra eta Agroekologia ikasi duen Jone Arizti azkoitiarra: "Hiruron artean egiten ditugu ekoizpen- eta merkaturatze-lanak, baina Ortulanguntza oso ondo dator kigu, bereziki, lan-karga arintzeko. Orain bertan, adibidez, lan-karga handia dago, asko landatu behar delako, eta Olairen laguntza oso ondo dator kigu".

Bestalde, nahiko argi dauka Gabilondok lehen sektoreko lana zergatik ez den erakargarria belaunaldi berrientzat: "Oso lan gogorra da eta ez dago batere ondo ordainduta. Horrekin batera, koinatutako gero eta ohitura gutxiago dago eta erosketak ez dira egunero egiten, lehen bezala. Gure produktua freskoa dela aintzat hartuta, erosketa ohituretan ere eragitea ezinbestekoa izango da".



NIRE USTEZ

AINHOA PARDINA

## Eta euskarazko fikzioa?

Duela gutxi, Eusko Jaurlaritzak euskarazko edukiz betetzen ari den *Primeran* plataforma sortu zuen. Pozgarria da hori. Gainera, badirudi euskarazko fikzioari lehentasuna eman nahi diotela, euskarazko edukia gaztelarazkoa baino lehenago publikatuz. Hori ere pozgarria litzateke, benetan lehentasuna euskarari emango balioke. Ez da hain pozgarria, aldiz, bertan gaztelaraz ekoiztea eta gero euskaratzea, alderantziz izan beharrean. Hori da, hain zuzen, *Touré detektibearen* kasua. Euskaraz publikatu zuten *Primeran* plataforman eta gaztelaraz aurrerago ikusi ahalko da, baina, euskarazkoa ikusi nahi bada, euskal aktore ezagunak bikoiztuta eta beraiena ez den ahotsarekin ikusi eta entzungo dira. Hori ulertzen ez ditugun hizkuntzetan ohikoa da, baina Hego Euskal Herriko euskaldun guztiok gaztelaraz ere badakigu. Baldintza horietan zenbatek ikusiko dute euskaraz? Hori onartzea euskararen aldeko apustua egitea da? Ez ote da beraien burua zuritzea? Euskaraz grabatutako fikzioan inbertitu beharko litzateke dirua, eta gero gainerako hizkuntzetara itzuli, eta ez alderantziz; euskararen alde egin nahi bada, behintzat.

## OHARRAK

### Baso Bizien Egunerako izena ematea

Baso Biziak Plataformak, Kukubasok eta Udalak Baso Bizien Eguna antolatu dute ekainaren 16rako. Usondotik San Martzialera mendi ibilaldi gidatua egingo dute, eta gero ermitan bazkaldu. Izena eman hilaren 12rako: [basobiziakplataforma@gmail.com](mailto:basobiziakplataforma@gmail.com).

### The Badass Project: fanzinearen aurkezpena

Jone Albenizen eta Ion Anduezen argazkiez osatutako *Kale* fanzinearen aurkezpen jaia egingo dute gaur Barrenkale 35. zenbakiko estudioan (19:00). DJ Balzaren saioa ere egongo da 18:30etik 21:00etara. Jan-edanaz gain, laminak salduko dituzte.

### Semicup futbol txapelketan izena eman

Uztailaren 13an izango da Seminarioko patioko txapelketa. Izena eman daiteke Instagramen (@semicup), ekainaren 24rako; 16 urtetik gorako bost jokalaritako taldeko, gutxienez. Prezioa: 15 euro.

### Udaleku irekien aurkezpen bilera

Ekainaren 24tik uztailaren 19ra iraungo duten udaleku irekien gaineko nondik norakoak azaltzeko bilera irekia deitu du Udalak ekainaren 11rako; Seminarixuan izango da aurkezpen bilera, 18:00etan hasita.



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugarte-aroztegia.com](mailto:aroztegia@ugarte-aroztegia.com)

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak



Empresa Registrada N° 00/025



Agorrosin kiroldegi kanpoko igerilekua goraino beteta, artxiboko argazki batean; sorosleak kontrolatuko du edukiera. GOIENA

# Gaurtik hasita, 100 egun igerilekuez gozatzeko

Udako kanpainak ekainaren 7tik irailaren 13ra arte iraungo du aurten Agorrosin kiroldegian eta Labegaraietako ur-txorroten gunean. Aurtengo nobedadeetako bat da pergola batez erdi-estalitako terraza bat jarri dutela kanpoko igerilekuen eremuan

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Aurten uda ofizialki ekainaren 20ko 22:51n hasiko bada ere, bergararrek Agorrosin kiroldegiko kanpoko igerilekuez gozatzeko aukera uda hasi aurretik izango dute; izan ere, udako kanpaina gaur bertan abiatuko du Udalak, eta, hasiera batean, asmoa da irailaren 13ra arte

kanpoko igerilekuak zabalik izateko. Horrek esan nahi du uda sasoiak hamalau aste eta egun bat iraungo duela Agorrosingo kanpoko igerilekuetan. Era berean, Labegaraietako kiroldegi ondoan dauden ur-txorrotak ere bihar jarriko dituzte martxan eta irailaren 13ra arte zabalik izatea aurreikusten

dute, baina aukera egongo litzateke luzatzeko; betiere, egurraldiaren arabera.

## Udako ordutegi berezia

Gaur hasi eta irailaren 13ra bitartean honako hau izango da Agorrosin Ekintza Guneako ordutegia: astelehenetik egubakoitzera 06:30etik 21:25era eta udako

asteburuetan, jaiegunetan eta abuztu osoan 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik kiroldegia. Hala, kanpoko igerilekuak 10:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik –berdegunean egon ahal da 20:30ak arte–.

## Edukieraren kontrola

Igerilekuko sorosle edo begiraleen ardura izango da kanpoko igerilekuaren edukiera kontrolatzea. Izan ere, gehienez ere, 187 erabiltzaile ahalbidetzen dira uretan aldi berean, eta horrek, egun jendetsuetan, sarbidea debekatzera behartu dezake. Hau da, uretan edota uretako perimetroan txandakartzetik ez badago, sorosleak barruko erabiltzaileak 20 minutuan behin irtetera behartu ditzake.

Udako kanpainak irauten duen bitartean, goizetan sorosle bat arduratzen da kanpoko igerilekua kontrolatzeaz. Arratsaldeetan, berriz, erabiltzaile-indizierik handienak daudenean, bi sorosle egon ohi dira. Bestalde, estalitako barruko bi igerilekuetara alboko ateetatik sartu ahal izango da bainua hartzeko; barruko igerilekuetan sorosle-kopuru propioa dute.

Aurten ere erabiltzaile partikularrak euren hamakekin sartu ahal dira, eta estali gabeko gunean utzi ahal izango dituzte, egunero hamaka horiek garraiatzen ibili behar ez izateko. Gainera, debekatu dago eguzkitakoak eta baloiak

erabiltzea eta beirazko elementuekin sartzea.

## Terraza bainutoki ondoan

Aurtengo udarako ekipamendua azken urteetako bera izango den arren, badago hobekuntzarik. Horren adibide da bainutokiaren ondoan egokitu duten terraza berria, zurezko pergola eta guzti. Zurezko pergola horren azpian bost mahai eta eserlekuak jarri dituzte, itzal partziala eskaintzen dutenak. Aldageletatik berdegunerako sarreran, Ipintzako harmailaren ondoko korridorean, antzeko ezaugarriak dituzten beste hiru mahai ere jarri dituzte. Hobekuntzak 22.000 euroko inbertsioa egitea ekarri du.

## Ikastaroak hilaren 24an

Udako ikastaroei dagokienez, talde berriak ireki dira haurren, gazteen eta helduen eskaintzan. Ikastaroak ekainaren 24an hasiko dira, eta kontsultak zein izen-emateak Agorrosingo kiroldegian egin beharko dira. Helduendako, adibidez, bodypower, bodylates –body balancearen eta pilatesaren arteko nahasketa bat da–, pilates eta yoga ikastaroak antolatu dituzte.

## UDAKO IKASTAROAK EKAINAREN 24AN HASIKO DIRA; AGORROSINEN EMAN BEHAR DA IZENA

## Labegaraietako kiroldegiko tabernan lapurretan egin dute

Kutxa bera eta barruan zeuden 500 euro inguru, mugikor bat eta ordenagailu eramangarri bat ostu dituzte, asteen

**J.B.L.** BERGARA

Martitzenetik eguaztenerako gauean lapurretan egin zuten Labegaraietako kiroldegiko tabernan. Bertako arduradunak GOIENARI adierazi dioenez, kutxa, ordenagailu eramangarri bat eta herritar baten mugikorra eramane zituzten, eta baita apurketa batzuk eragin ere.

**Identifikazioa "zaila" izango da** Kiroldegiko tabernako arduradunak 04:30ean jaso zuen segurtasun enpresako enpresari deia: "Lo geundela, alarmak jo zuela-eta



Kiroldegiko atea, eguazten goizean. O.E.

esnatu gintuzten. Kalte aipagarriena da kutxa eramane zutela; 500 bat euro izango genituen barruan. Kutxa berri bat erosi behar badugu, 2.000 edo 2.500 euro izango dira. Horrez gain, aldageletan agertu zen mugikor bat ere bagenuen kutxaren gainean, eta hori ere eramane zuten; galtzen diren objektuak kutxa gainean jarri ohi ditugu guztion bistara egon daitezzen. Eta ordenagailu eramangarria ere ostu digute. Ertzainen arabera, segurtasun kamerak grabatutako irudietan lapurrak kaputxa jarrita zuten eta hatz-markak hartuko badituzte ere zaila izango da identifikazioa; ezin da ahaztu hemen joan-etorri handia dagoela...". Egungo arduradunak jasan duen lehen lapurreta da; maiztean bi urte bete ziren Labegaraietako taberna hartu zuenetik.

## San Martzial jaiak: aulkiak, mahaiak, kantina eta txosna

Ekainaren 30ean ospatuko den San Martzialgo erromeriaren bueltan zenbait ohar eman ditu Udalak. Batetik, mahaiak eta aulkiak alokatzeko bi egun zehaztu ditu, hilaren 5a eta 12a; Seminarixoko leihatilan egin behar dira eskaerak, 18:00etatik 20:00etara. Mahai bat eta zortzi aulkirendako prezioa 25 euro da.

Bestalde, bertako kantina eta txosna kudeatzeko deialdia ere ireki du Udalak. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 10ean 12:00etan bukatuko da, eta udaltxeko BAZ zerbitzuan edota modu telematikoan aurkeztu beharko dira eskaerak. Edozein zalantza argitzeko, [kultura@bergara.eus](mailto:kultura@bergara.eus)-era idatzi behar da.

## Ekintza ugari antolatu ditu San Joxepe elkarteak ekainerako

Ekaina ekintzaz bete dator San Joxepe elkarteak. Pandemiaren eraginez eten zen argazki lehiaketa berririko jarriko dute martxan: "Ordura arte, ugari izaten ziren partaideak, eta haien jatorriak. Itzaropentsu gabiltza berpiztu nahian". Argazkiak uztailaren 8rako aurkeztu behar dira: [sjoxepe@gmail.com](mailto:sjoxepe@gmail.com). Ekainaren 11rako bazkideendako irteera antolatu dute Santanderrera eta hilaren 14an Agijupens erretiratu-zentroen federazioak antolatutako jokoen finalak izango dituzte Elgoibarren; San Joxepe bi finalista izango ditu han. Ekainaren 20an, berriz, mendi irteera egingo dute; izena eman behar da hilaren 10erako.



# la 100 talde Saskibaloia Egunaren bigarren aldia

laz egindakoari jarraipena emango diote aurten, eta, saskibaloiaz eta garagardoaz gain, berrikuntzaren bat ere izango du bigarren edizioak. Zapatuan 09:00etan hasiko dute txapelketa gaztetxoek eta 16:00etan gainontzeko kategorietako taldeek

**Julen Murua Mesonero** BERGARA

Asteburuan egingo dute Saskibaloia Egunaren bigarren aldia, eta bi ekintza nagusik osatuko dute egitaraua: hiruko saskibaloia txapelketa eta garagardo azokak. Seminarioko plazan biak. Udako hiruko saskibaloia txapelketaren XVI. edizioari dagokionez, ekainaren 8an jokatu da –euria egiten badu, Labegarietako kiroldegian–. Goizean benjamin, alebin eta infantil mailetakoko taldeak arituko dira, 09:00etan hasita; arratsaldean, berriz, 16:00etan hasita, kadete, junior, senior eta senior misto kuadrillen txanda izango da. Hiruko txapelketako sari banaketa 20:00etan izango da, garagardo azokaren karpan.

## Garagardorik ez da faltako

Bergarako Saskibaloia Egunean beti izaten da garagardo azoka, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Egubakoitzean 19:30ean irekiko dute karpa eta zapatuan, berriz, 10:00etan. Askotariko garagardo motak dastatzeko aukera egongo da, eta edatekoarekin batera jatekoa ere izango dute bertaratuek, *foodtruck* zerbitzua egongo baita. Arratsaldea girotzeko, kontzertuak egongo dira karpan: egubakoitzean, K-PO, Blind 09 & Linzo eta DJ Basero igoko dira oholtzara, 21:00etan hasita; eta zapatuan, Unai Cantabranak, Alde-Kideak taldeak eta DJ Masterrekak emango dute kontzertua, 20:30ean hasita. Antolatzaileek aurreikusten dute "2.000 litro inguru" kontsumituko dituztela aurtengo edizioan. "Iaz baino 500 litro gehiago", Borja Elkoroberecibar Soraluze BKEko lehendakariaren hitzetan.

## Gisaski zirkuiturik ez

Aurtengo edizioak berrikuntza nagusia izan behar zen Gisaski zirkuitua –Gipuzkoa Federazioak probintziako hainbat klubekin



lazio hiruko saskibaloia txapelketako partidu bat. BERGARAKO SASKIBALOI ELKARTEA

## 99 TALDEK HARTUKO DUTE PARTE AURTEN; HORIETATIK 61EK GOIZEKO TXAPELKETA OSATUKO DUTE

elkarlanean sortu duen ekimen berria–, baina talde kopuru minimoak parte hartu behar du zirkuitua jokatu ahal izateko, eta Bergaran ez da horrela izan. Gipuzkoako Federazioak kudeatutako txapelketa bat izanik, parte hartzeko asmoa zuten taldeek ezingo dute hiruko Bergarako txapelketa jokatu, izen emateak ez baitoaz batera.

## Arrakasta handia

Guztira, 99 taldek eman dute izena txapelketan, eta, kopuru hori kontuan hartuta, izena emateko epea ixtea erabaki dute antolatzaileek. Bergarako taldeez gain, Oñatiko, Urretxuko, Legazpiko, Arrasateko eta Zumarragako taldeek ere eman dute izena; guztira, hogeitahiru talde. Iazko 70 taldeekin alderatuta, kopurua igo izanak ez du harrituraz harrapatu Xabat Irazola,

Bergarako saskibaloia elkarteko kirol zuzendaria: "Bergaran saskibaloia gero eta indar handiagoa hartzen ari dela ikusten dugu, eta horrek izugarri pozten gaitu. Ez gaitu harritu ia 100 taldek parte hartu gura izanak, baina egia da asko poztu gaituela, badelako herrian duen indarraren erakusle. Nabarmentzkoa da goizeko saioan 61 talde egongo direla, eta gaztetxoek saskibaloian jokatu nahi dutela ikustea izugarria da". Horrez gain, txapelketaren maila igo egin dela aitortu du: "Ikusi dugu bai Bergaran eta baita inguruko herrietan izena eman duten taldeak nortzuek osatzen dituzten, eta badakigu nahiko maila altua egongo dela. Kanpotik datozen taldeek igoko dute txapelketaren maila, baina herriko taldeak ere ez dira urrun ibiliko. Borroka polita ikusiko dugu, ziur". Aurtengo edizioa oraindik jokatu ez bada ere, antolatzaileak hasi dira dagoeneko datorren urtekoaren inguruan hitz egiten. Aurtengo parte hartzea "oso-oso positiboa" izan dela aitortu du Irazolak, eta horrek "motibazio izugarria" ematen die txapelketari jarraipena emateko.



Soraluze BKEko jokalariek eta entrenatzaileek, Deba kopa irabazi ostean. SORALUZE BKE

## Deba kopa irabazita esan diote agur aurtengo denboraldiari

Urrietari 29-23 irabazita, Deba kopako garaile izatea lortu zuen Soraluze BKE joan den asteburuan

**J.M.M. BERGARA**

Modu ezin hobean amaitu du denboraldia Soraluze BKE taldeak. Liga erregularra laugarren postuan amaitu zuten bergararrek, eta, Deba kopako multzoan aurreneko postuan nagusitasunez amaitu eta finalerdietako partiduan Hernaniko taldea txapelketatik kanpo utzi ostean, garaikurra etxera eramatea lortu dute Joseba Elortzarenek, Urrietari 29-23 irabazita.

## Final gogorra

"Markagailuko tarteak erakusten duena baino gogorragoa"

izan zen Urrietaren aurkako finala, bergararren esanetan; izan ere, lehenengo zatian Soraluze BKE markagailuan aurretik egon arren, atsedendialdaren aurretik eginiko hainbat akats baliatu zuten urrietarrek markagailua berdintzeko (11-11).

Atsedendititik bueltan, bergararrek ez zuten bi goleko abantaila gainditzea lortzen; baina azken minutuetan Aimar Arkotxak atean eginiko lana eta mahoneroek erasoan izandako eraginkortasuna nahikoa izan ziren bi goleko tarte seikoa bihurtu eta kopa irabazteko.

## Finalerdietarako txartelaren irabazlea Ataunen erabakiko da

Joaneko kanporaketa atundarrek irabazi bazuten ere (1-2), bergararrek bizirik jarraitzen dute txapelketan

**J.M.M. BERGARA**

Herriarteko pilota txapelketaren itzulerako partiduak jokatu dira gaur, Ataunen, eta guztia erabakitzeke dago Bergararen eta Ataunen arteko kanporaketan. Bergarako kadeteek 22-4 irabazi zuten joaneko partiduan, gazte mailako bikoteak 6-22 galdutuz eta seniorrek ere ez zuten lortu atundarrak garaitzea, 21-22 galduta. Hala ere, emaitzak ikusita, mahoneroek badute finalerdietara igarotzeko itzaropena. Horretarako, gutxienez, bi partidu irabazi beharko

dituzte, eta, hori ez ezik, egindako tanto kopuruaren aldeak ere atundarrek lortutakoa baino handiagoa izan beharko du.

## Pilotarien aldaketa

Bigarren kanporaketarako aldatetako egongo ditu Bergarak. Alde batetik, Ilarduiak jokatu du Ormaetxearen ordez gazte mailako partidua, azken horrek min hartu baitzuen joaneko neurketan; bestetik, seniorretan, Etxanizek hartuko du –joaneko partidua ezin izan zuten jokatu– Martinen lekua.

# Ekainean, eguaztenak egubakoitzen ordeez

Bost urte bete ditu Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenak, eta kontzertuak antolatu dituzte ekaineko eguaztenetarako. Ekainaren 12an Debagoieneko "talde sorpresa" baten txanda izango da eta hilaren 19an Bergarako Ktarsia taldea igoko da oholtzara

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenak bost urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko hiru kontzertu antolatu dituzte. Emanaldiok egunez aldatu eta eguaztenetan egingo dira, arratsaldeko zortzietan hasita, kartzela zaharrean. Kontzertuak doakoak izango dira. Lehen emanaldia asteon izan da: Arrasateko Julene eta Unai bikotea aritu ziren oholtzara. Ekainaren 12an "talde sorpresa" izango da eta hilaren 19an, berriz, Bergarako Ktarsia taldea arituko da.

Urtemugako kontzertuak eguaztenetan egitearen arrazoia "udako giro" hori izan da. Unai Elkoro da ekimenaren antolatzaileetako bat, eta azaldu du ez zutela "ondo ikusten" kontzertuak ekaineko egubakoitzetan egitea, herritarrak planak egiten hasten direlako asteburura begira: "Orduan, antolakuntzan komentatu genuen aste barruan egitea ez litzatekeela gaizki egongo, eta asteguneko erdiko puntuan egitea pentsatu genuen, astea pixka bat poztoko". Aste barruan izanik, ordua ere aurreratu dute, ordu "ona" delakoan "iluntze ederra" pasatu eta etxera joateko, berandutu barik.

## Bertako musikariak

Debagoieneko taldeen aldeko apustua egin du ekimenak, "etxe-koendako eta herriarendako" zerbait egin nahi zutelako. "Bailaran ere baditugu jarraitzaile batzuk, eta euren aldeko zerbait prestatu nahi genuen. Horregatik egin dugu bailarako gazteen aldeko apustua", dio Elkorok. Kontzertuen beste berezitasuna akustikoan egingo direla da, emanaldiak kartzela zaharreko atzeko patioan egin nahi baitzituzten eguraldi onarekin.

## Ezustekoa datorren astean

Sorpresak amaierarako uzten badira ere, "talde sorpresaren"



Julene eta Unairen kontzertua eguaztenean kartzela zaharreko atzeko patioan. E.B.

## KONTZERTUAK AKUSTIKOAN IZANGO DIRA, KARTZELA ZAHARREKO ATZEKO PATIOAN, 20:00ETAN

konzertua bigarrena izango da. Aurreratu duena da Debagoieneko "talde on" bat dela. Gainera, kartzela zaharreko urteurrena ere ekainean izaten da eta horrekin ere lotu dute ekimena: "Ekainean egiten den kartzela zaharreko urteurrenean hilabete osoko egitaraua antolatzen da. Datorren asteko asteburu horretan, normalean, bazkariak eta kontzertuak egiten dira. Aurten bazkaria egongo da, eta hausnarketa bat goizean, baina, hain justu, Loratzen ekimena dago goizetik gauera arte, eta ez dugu kontzerturik egingo asteburu horretan gaztetxean. Ez genuen nahi haiekin gainjartzerik. Horregatik, talde sorpresa ekarriko dugu".

## Espero gabeko bost urte

Duela bost urte elkartu ziren "zenbait lagun musikazale" Egu-

bakoitzak Berreskuratzen sortzeko: "Hasi ginen Kooltur Ostegunak bezala. Ikusi genuen zerbait falta zela Bergaran eta ia-ia hilero kontzertuak antolatu ditugu. Egia da pandemiak harrapatu gintuela, eta, orduan, bost urte horiek ez direla bost urte oso, baina bost urte egin ditugula ospatu beharko da".

Bost urteen balorazio positiboa egin du Elkorok, ez baitzuen espero halako erantzunik eta ibilbiderik izaterik: "Oso-osoz pozik gaude. Talde pila ekarri ditugu. Talde onak, talde handiak, talde txikiak... Denetik apur bat. Eta horren aldeko apustua egiten dugu". Adierazi du denek eman dietela aukera eta euren nahiz herritarrek gustuko dituzten taldeak ekarri dituztela: "Jende askok proposatzen dizkigu taldeak eta beti saiatzen gara herrian zer nahi den eta gure gustuko taldeak ekartzen".

Ekaineko kontzertuen ostean, etenaldia egingo du Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenak, eta, ikasturte hasierarekin batera, irailean edo urrian itzultzea aurreikusten du Elkorok. Bien bitartean, ekaineko kontzertuetara animatu ditu herritarrak.



Nerea Arriola, Olatz Beobide eta Maitane Perez. SEMINARIXOAN

## 'Olagarrua' antzezlan izango da ikusgai bihar Seminarixoan

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak bekarekin sortu dute lana Olatz Beobidek, Nerea Arriolak eta Maitane Perezek

**I.A.A.** BERGARA

Antzerki Aroak eta Ttipia konpainien *Olagarrua* helduendako antzezlan izango da ikusgai bihar, arratsaldeko zortzietan hasita, Seminarixoan. Sarrerak salgai daude, zortzi eurotan.

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak bekarekin –Zumaiaiko Udalaren babesean– eta arte eszenikoen produktiorako Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin Olatz Beobidek, Nerea Arriolak eta Maitane Perezek sortutako antzezlan da, eta eurak izango dira zapatuan oholtza gainean arituko direnak ere. Klara Ba-

diola kontalariak ere bideratzen du antzerkiaren haria.

Iraia Eliassen eta Amancay Gaztañagaren kanpo-begirada izan duen komediazko lana da eta errua dauka oinarri, erruari buruz hausnartu eta hari pisua kentzea baitu helburu; batik bat, euskal identitateari lotutako erruetan zentratu dute. Sinopsiak dioenez, errua desagerrarazteko saiakera bat da *Olagarrua*. "Garbitzeko, gainetik kentzeko. Gorputzetik, plazeretik, fantasiatik". Eta hiru aktore horien helburua da herri horretako erruak amaitzea.

## San Antonio auzoko jaiak ospatuko dituzte ekainaren 12tik 16ra

Hilaren 12an 18:00etan lore-arkua jarriko dute ermitan, eta kanpaikadekin eta txupinazoarekin emango diete hasiera festei. San Antonio egunean meza izango da, 11:00etan, karpan, eta San Joxepe abesbatzak emanaldia egingo du. Zapatuan 16:30ean zezentxoak eta poneyak egongo dira eta 18:00etan buruhandiak aterako dira. Tabernan edaria erosteagatik sardinak emango dituzte doan. Eguna musikarekin amaituko da. Domekan txistulari eta erraldoien diana izango da, 11:00etan, eta kontzertua ere emango dute. Azkenik, bazkaria eta San Antonio Euskadiko Txirringulari Txapelketako erlojupekoa egingo dira.

## 'Itakak' argazki erakusketa ikusgai Aroztegi aretoan

Txokophoto kolektiboaren *Itakak* erakusketa dago ikusgai Aroztegi aretoan, hilaren 23ra arte, eta Manu Barreiro, Jose Beut, Mar Biosca, Alvaro Del Val Tobalina, Juan Luis Duran, Javier Fernandez Ferreras, Oskar Gaskon, Agustin Gurruchaga, Oscar Manso, Luis Martinez Aniesa eta Santos Moreno euskal eta valentziar argazkilarien argazkiak daude. Autore bakotzaren hiruna argazki daude, koloretan eta zuri-beltzean. Martitzenetik ostiralera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeka eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara bisitatu daiteke erakusketa.





# DEBAGOIENENKO OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### VITALDENT

Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11  
43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11





Eguna antolatzen ari den taldea, eguazten arratsaldean, gaztetxe kanpoan. ANTZUOLAKO GAZTE ASANBLADA

## Gaztetxearen urteurren festa ospatuko dute

Bihar, zapatua, izango da eta herri bazkarirako 50 lagun inguru elkartuko dira. Gaueko kontzertutarako jende gehiago espero dute eta antolatzaileek adierazi dute egunerako atera dituzten kamisetek oso erantzun ona izan dutela, 100 inguru salduta

**Amaia Txinturreta Guridi** ANTZUOLA Antzuolako gaztetxeak hainbat etapa izan ditu eta azkenekoz horren kudeaketaren ardura hartu zuen taldeak erabaki du orain urteurren festa ospatzea. Hauxe azaldu du Gazte Asanbladako kide Irati Lizarralde: "Zehazki ez dakigu zenbat denbora pasa den hasi ginenetik, baina Asanbladan komentatu genuen zerbait egin behar genuela, hasi ginenetik ez dugulako Gaztetxe Egunik edo halakorik antolatu. Biharko data hau jarri dugu, hala, hurrengo urteetarako ere eguna zehaztuta izateko, ospakizuna egiteko".

### Oraingo jarduna

Azkenaldian, gaztetxearen kudeaketa herriko gazte talde batek darama. Hamabost pertsona inguru dira normalean bi aste behin elkartzen direnak –nahiz eta taldean 35 lagun inguru izan–. 18 urtetik hasi eta 25 urte bitartean dituzte, gehienak neska, nahiz eta mutil batzuk ere

badauden. Eta hilabetero kontzertu bat antolatzeaz arduratzen dira –nahiz eta astean zehar bertso eskola eta txalaparta saioak ere izaten diren gaztetxean–.

Orain artekoaren balorazio positiboa egin du Lizarralde, baina azkenaldian jende gutxiago dabilela dio: "Hasieran oso harrera positiboa izan zuen herri gaztetxeak, sekulako erantzuna izan zuelako. Baina egia da denbora aurrera joan den heinean geroz eta jende gutxiago etortzen hasi dela. Hasieran gehiago etortzen ziren, agian booma izan zelako, eta orain badakite hor dagoela eta jendea ez da askorik gerturatzen. Gainera, izan diren lapurreten kon-

**JAITSI EGIN DA BERTARA JOATEN DEN GAZTE KOPURUA, ETA ATEAK ZABALIK DITUZTE**

tuak ere kalte handia egin digu eta desmotibaziora ere eraman gaitu momentu batzuetan, baina orain berriro motibatuta gabiltza, neurriak ere hartu ditugulako". Dena den, edozein herritarrek taldera batu nahi badu ateak zabalik dituela gaineratu du.

### Biharko festa

Egitarau hau prestatu dute biharko: 12:30ean karro-poteoa egingo dute Kalebarrenen; 14:30ean herri bazkaria egingo dute frontoi txikian –50 lagunendako txartelak saldu dituzte–; bazkalostean Edu Zardoyaren kontzertua izango da; eta, 22:00etan hasita, gaztetxean bertan kontzertuak emango dituzte Kontralde, Kaparrak eta Oihu taldeek eta DJ Artzek. Urteurrenerako egindako 100 kamiseta saldu dituzte.

Aurrera begira, uda ostean erabakiko dute aurrerantzean zer eta noiz antolatu, gaztetxeak orain baino gazte gehiago erakartzeko asmoz.

## Jaietako Kuadrillen Egunerako bazkarirako txartelak, salgai

Uztailaren 12ra bitartean erosi ahalko dira jaietako egubakoitzean egingo den bazkarirako tiketak, online

### A.T.G. ANTZUOLA

Aurten uztailaren 18tik 21era bitartean ospatuko dira herriko jaiak, eta egubakoitzean, uztailak 19, ospatuko da Kuadrillen Eguna, urtero bezala. Egun horretako bazkarira joan nahi dutenek dagoeneko eskuragarri dituzte txartelak *Entradium.com* plataforman, bilatzailean testu hau sartuta: *Antzuolako Jaiak. Bazkaria Ostirala*; edo zuzenean esteka honetan sartuta: <https://labur.eus/dVzHR>.

Helduendako ohiko menua edo beganoa dago aukeren artean, 22 euroren truke –ikasleek 18

eurotan erosi ahalko dute–. Eta 2 urtetik 14 urte bitartekoendako menuak, berriz, 12 euro balio du. Uztailaren 12a izango da Kuadrillen Eguneko bazkarirako txartelak erosteko azkenengo eguna.

### Jai Batzordea martxan da

Aurten ospatuko diren jaietan ere adin eta gustu guztiendako herritarrendako aukera egon dadin, dagoeneko Jai Batzordea lanean dabil, festa horietarako egokien ikusten dituzten jarduerak lotzen, oraingoan ere Antzuolan jai herrikoiak ospatzeko.



Iazko jaietako Kuadrillen Eguneko bazkariaren une bat. GOIENA

## NIRE USTEZ



JON KORTABARRIA MANTZIDOR

## Hiriak 'green', herriak 'black'

Azkenaldian, zero emisiodun kotxeak sustatzea da *green* politika nagusia. Ziurrenik, inpaktu txikiagoa du auto arrunta luzaro mantentzeak. Baina tira, *green* ei da hori, koherentea ez den arren.

Laster, hirietan sartzeko ere pegatinak ordaindu beharko ditugu. Guztia CO2 isurketen kontra. Dirudienez, isurtzeagatik nori ordaintzen diogun eta isurketa non egiten den da benetan axola duena. Izan ere, Donostia erdian ezingo dugu gasoliorik erre, baina handik oso gertu hondakinak, aldiz, bai. Ez dirudi koherentea, baina *green* ei da.

Donostiako Udalaren eta baso-kudeaketa arautzen duen Foru Aldundiaren buru den alderdia bera da. Bitxia, basogintzan eukalipto baimentzen duelako. Kontrara, aspalditik diote adituek eukalipto ez dela *green*, eta CO2 emisioak handitzen dituela.

Ez dio axola, guk jarraituko dugu hiriak *green* izan daitezen ordaintzen, gure bazterrak *black* bilakatzen diren bitartean.



# Gazteen lokalen araudian, lehen urratsak eginda

Beste herri batzuetako ereduak erreferentziatzen hartu eta gazteen lokalen araudia osatzen aritu da Udala, udalbatzak hasierako onarpena eman dion arte. Lokalen erabiltzaileen eta bizilagunen arteko bizikidetzeta eta segurtasuna bermatzea du xede

**Amaia Ramirez de Okariz**  
**Kortabarria** ANTZUOLA

Lehen urratsak egiten hasiak dira Antzuolako Udalean gazteen lokalen araudiari dagokionez, udalbatzak hasierako onarpena eman baitzion maiatzaren 30ean eginiko osoko bilkuran, EAJko hiru ordezkariaren –Rakel Velasco ezin izan zen egon– eta EH Bilduko zazpi zinegotziren aldeko botoekin. Hala ere, Olatz Lezeta alkateak nabarmendu du bidea duela egiteko oraindik araudiak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren –asteon argitaratzekoa zen– hilabeteko epean egon behar baitu jendaurrean: "Bigarren iragarkia ateratzen denean sartuko da indarrean".

Lezetaren hitzetan, beste herri batzuetako araudiak adibidetzat hartu eta Antzuolara egokitu dituzte, "zirriborro bat" egiteko; ostean, Sormen Batzordean aurkeztu zuten, eta bizilagunekin eta gazteekin ere hitz



Maiatzaren 30ean eginiko osoko bilkura. A.R.K.

egin dute, eurretako norbaitek zerbait gehitu nahi izanez gero. Izan ere, batik bat, arazo batek abiatu dute araudia: "Ez da lehenengo aldia gazteen lokalekin arazoak daudena herrian, bere garaian ere egon baitziren,

eta itxi egin behar izan zituzten, azkenean. Orain bada lokal bat, behintzat, baina bizikidetzeta arazoak daude; batez ere, zaratarekin lotutakoak".

Hori guztia ekidin dadin, beraz, bizikidetzaren alde eta zarata

murrizte aldera, zenbait puntu zerrendatu dituzte ondu berri duten araudian. Hasierako onarpenaren dokumentuan jasotakoaren arabera, gazteen lokalak ez dira 24 orduz erabiltzeko, eta auzokideen eskubidea errespetatuta izatea "ezinbestekoa" da. Hori dela eta, ordutegia zehaztu dute intsonorizatuta ez dauden lokalentzat: astelehenetik eguenera eta domeka zein jaiegunetan 22:30ean itxi beharko dira lokalak; gainontzeko egunetan, gaueko hamabietan.

## Beste arau batzuk

Bestelako arau batzuk ere jaso dituzte araudian. Esate baterako, gazteen lokaletako erabiltzaileek ekidin egin beharko dute kantatzea, txistu egitea, oihukatzea eta ateak edo pertsiak etengabe ireki edo ixtea. Horrez gain, kanpoaldean eta inguruan ezingo da aulki, mahai edo antzeko altzairurik jarri.

Osasunaren arloan ere arau batzuk bete behar dituzte erabiltzaileek: adibidez, hondakinak dagokien egunetan atera beharko dira, pilatuta gera ez daitezela. Segurtasunari dagokionez, berriz, lokal barruan norbait baldin badago, irteteko ateak ezin dira kanpotik giltzaz itxi, eta ezta pertsiak jaitsita laga ere.

Dena den, Lezetak azpimarratu du araudia aldatzeko aukera ere badagoela, zerbait kentzekoa edo gehitzekoa, horretarako beharra antzemanez gero, bedere.

ren. Gogoan izan behar baita, gainera, hasierako onarpen fasean dagoela.

## Arau-haustekak

Lokalen erabileraren araudian jasotako arauak ez betetzeak ondorioak izan ditzakeela jaso du Udalak araudian, hiru mailatan banatuta: arau-haustea arina izango da, batetik, araudiari jaramonik ez bazaio egiten behin; larria izango da, bestetik, ez zaionean kasurik egiten bi aldiz; eta oso larria, azkenik, ez denean kontuan hartzen hirutan. Zigorrei dagokionez, arau-haustea arinetan eta larrietan idatzizko ohartarazpena helaraziko zaie erabiltzaileei; oso larrietan, idatzizko ohartarazpenaz gain, litekeena izango da lokala ixteko agindua ematea, hasiera honetan landutako araudian jasotakoaren arabera.

## ARAUDIA ORAINDIK EZ DA ABIAN: ALDIZKARI OFIZIALEAN KALERATU ETA JENDAUURREAN EGON BEHAR DU

## ZARATARI, OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI LOTUTAKO NEURRIAK ZERRENDATU DITU UDALAK ARAUDIAN

## Gaueko irteera egingo dute Irimora gaur, han ekitaldia egiteko

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, gaueko irteera egingo dute gaur, ekainak 7, Irimo ingurura, *Iluntasunean ere Irimo bizirik* lelopean. Horretarako, iluntzeko zortzietan izango da lehen hitzordua, herritarrak Trekutzen elkartuko baitira elkarrekin afaltzeko eta ondoren mendi ibilaldia batera egiteko. Hain justu, 21:00etan abiatuko dira Irimorantz, eta hamarretan elkartuko dira Zumarragako eta Urretxuko herritarrek batera tontor gainean. 22:15ean hasiko dute ekitaldia; motza izango da, baina askotarikoa, bertsoak, txalaparta eta irakurketak izango baitira, besteak beste.

## Antzerki, gimnasia eta trikiti emanaldiak datorren astean

Ikasturtean ikasitako guztia erakusteko asmoz, ikuskizunak egiten dihardute asteon ikasleek, eta hala egingo dute datorren astean ere. Ekainaren 11n, martitzena, antzerki ikastaroan aritu diren txanda izango da, antzerki emanaldia egingo baitute Torresoroan, 18:00etan. Ekainaren 12an, berriz, gimnasten txanda izango da, Ariznoa gimnasia erritnikoko taldekideek erakustaldia egingo baitute; 17:30ean hasiko da, udal pilotalekuan. Azkenik, ekainaren 14an, egubakoitza, Secundino Esnaola musika eskolako (Zumarraga) trikiti ikasleen entzunaldiaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan, 18:30ean.

## 'Nola dantzatzeko da Antzuolan?' mintegian izen-ematea abian da

Dantzan Ikasi programak –Gipuzkoako Foru Aldundiak abiatua– eta Oinarin dantza taldeak antolatuta, *Nola dantzatzeko da Antzuolan?* mintegia egingo dute ekainaren 15ean, zapatua, Torresoroa aretoan, 10:00etatik 13:30era. Mikel Sarriegi dantzari eta ikertzailea izango da gidaria, eta martxan da izen-ematea: [labur.eus/kCtZZ](http://labur.eus/kCtZZ). Bi zati izango ditu, hain justu, saioak: teorikoan, Gipuzkoako dantzatzeko erak izango dira aztergai, eta baita 1970eko hamarkadatik aurrerako Antzuolako dantza sistema ere; praktikoan, berriz, praktikan jarriko dira azaldutako egite horiek, Antzuolako dantzarien laguntzarekin.

## GORA ETA BEHERA



## Kaxetako atsedengunean garbiketa lanak egin beharra

Herriar batek salatu du "zaindu gabe" dagoela Kaxetako atsedengunea: "Esaterako, belarra mozteko dago". Beraz, erabilgarriago egon dadin, garbiketa lanak egiteko eskatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



# "Sekulako hilabetea da EuskarAbentura"

**NOA ANDUEZA PORCEL** EUSKARABENTURAKO BEGIRALEA

Seigarren espedizioa hastear da. Laugarren urtez hartuko du parte Anduezak. Lehena partaide gisa egin zuen eta gainerakoak, begirale gisa. Errepikatze prest da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Uztailaren 1ean hasiko da abentura eta Euskal Herriko zein diasporako 16 eta 17 urte arteko 127 gaztek zeharkatuko dute Euskararen Lurralde. Oinez egingo dituzte 400 kilometro eta Noa Andueza Porcel (2003, Elgeta) izango dute begiraleetako bat. Elgetarrak ondo ezagutzen du EuskarAbentura; laugarren aldiz hartuko du parte.

**Zalantzarik gabe, gustuko duzu EuskarAbentura.**

Parte-hartzaile moduan egin nueneko oroitzapen oso onak dauzkat. Esango nuke EuskarAbentura dela gauza asko oso gutxirekin. Irteetan zara zure etxetik motxila batekin non bi kamiseta eta bi praka sartu dituzun eta sekulako hilabetea pasatzen duzu. Sekulako jendea ezagutzen duzu eta Euskal Herri osoko lagun oso onak egiten dituzu.

**Euskara ohiturak trinkotzeko egitasmoa da; lortzen du?**

Elgeta euskara arnasmune bat da eta euskaraz bizi naiz ni, baina EuskarAbenturan parte hartu nuenean ikusi nuen Euskal Herriko txoko askotako gazteek ez dutela aukerarik izan euskaraz bizi ahal izateko, eta batzuek badela hautu bat. Horregatik, nire kasuan bai izan zen hizkuntzarekiko kontzientzia hartze bat, eta gaur oraindik ere harremanetan nago nirekin EuskarAbentura egin zutenekin. Saretuta gaude eta urtetik urtera jende gehiago ezagutzen noanez esan daiteke Euskal Herriko txoko askotan ditudala lagunak.

**Argi dago askotariko hizkuntza errealitateak ditugula; esango zenuke areagotu egin dela zure euskararekiko atxikimendua EuskarAbenturan parte hartu eta gero?**

Bai. Ni beti bizi izan naiz euskaraz, baina uste dut euskararekin nuen harremana ez zela hain kontzientea. Esango nuke EuskarAbenturari esker gauzak

beste modu batera ikusten ditudala, ikusi dudalako euskaraz hitz egitea badela hautu bat jende askorendako.

**EuskarAbenturak ez du kosturik parte hartzaileendako; nola aukeratzeko dituzue?**

Zoritarrez, plazak mugatuak dira. Hala, parte hartzeko interesa dutenek bi lan aurkeztu behar izaten dituzte: alde batetik, bideo bat nork bere burua aurkezteko; eta, bestetik, lan bat jarritako gaietako baten inguruan. Aurtengo gaiak izan dira euskara eta euskalkiak, emakumea eta kirola, eta utopia. Aurkezpen bideoak EuskarAbenturako kideok baloratzen ditugu, eta lanak Eusko Ikas-

**"ATHARRATZETIK ABIATUKO GARA ETA 400 BAT KILOMETRO EGINGO DITUGU OINEZ HILABETEZ"**



Nora Andueza Porcel. L.Z.L.

kuntzako kideek baloratzen dituzte. Egia da gazteen jatorria, zein hizkuntza eremutakoak diren, euskararekiko duten atxikimendua, neskak edo mutilak diren eta abar ere kontuan hartzen ditugula; izan ere, Euskal Herriaren errealitate ezberdinen isla izan nahi du EuskarAbenturak. Hautaketa prozesua abenturan hasten da.

**127 laguneko taldea osatu duzue; lortu duzue errealitate ezberdinerik islatzea?**

Nahiko egitura osatua gelditu da. Lapurtarrak, baxenabartarrak eta zuberotarrak hemezortzi izango dira, aurreko urteekin alderatuta bikoitza. Diasporako gazte bat ere izango dugu, Perukoa. Eta, gainerakoan, aurre-

ko urteetan baino arabar bat gehiago izango dugu.

**Begirale lanetan arituko zara aurretan ere; zein izaten da zure lana?**

Talde handia izatera, talde txikiagoetan antolatzen gara. Nire egitekoa izango da 12-13 laguneko talde batez arduratzea. Elkarrekin gosalduta, bazkaldu eta afalduta dugu eta hilabetez pertsona horien erreferentziako begiralea izango naiz.

**Atharratzetik abiatuko zarete, uztailaren 1ean.**

Mauletik abiatu izan gara beti, eta aurretan Atharratzetik. Zazpi probintziak zeharkatuko ditugu eta hartuko dugu autobusen edo trenen bat, baina puntuala izango da; izan ere, 400 bat kilometro egingo ditugu oinez.

## Eguneroko trebeziak lantzeko, arreta zerbitzu berria Udalak

Alor kognitiborako ariketak, gimnasia egokitua, mahai jokoak eta sukaldaritza egingo dituzte astean bitan

**L.Z.L.** ELGETA

Arreta zerbitzu berria iragarri du Elgetako Udalak: eguneroko trebeziak lantzeko eta gizarte harremanak sustatzeko saioak izango dira. Ikasturte osorako proposamena da, eta taldea osatzen bada astean bi saio egingo dituzte, kultura etxeko erabile- ra askotariko gelan. Alor kognitiboa lantzeko ariketak eta jokoak, eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak, gimnasia egokitua, eskulanak eta mahai jokoak, sukaldaritza... Askotariko jarduerak egitea da asmoa.

Arreta zerbitzu berria pentsatuta dago 65 urtetik gorakoen dako, mendekotasun egoeran daudenendako, bakardade edo arrisku egoeran daudenendako zein gizarte zerbitzuen irizpideen arabera onura ekar diezaiokeen ororendako. Prezioa norberaren egoera ekonomikoaren arabera finkatuko da; betiere, 2 eta 20 euro artean hilean.

Informazio gehiagorako zein izena emateko, interesatuek udal gizarte zerbitzuetara jo behar dute: [gizarte@elgeta.eus](mailto:gizarte@elgeta.eus) edo 943-76 80 22 zenbakira deituta.



INTXORTAKO RALLYSPRINTA

## Nagusi hirugarren kategorian

Mendi Mendira Racing taldeko Mikel Beretxinaga eta Oskar Sarasua atzera ere errepidean ikusteko aukera izan zen aurreko zapatuan, lehen aldiz jokaturako Intxortako rallysprintean. Urduri irten ziren, baina ondo moldatu ziren ia-ia buruz ezagutzen duten errepidean. Azkarrenak izan ziren hirugarren kategoriako ibilgailuen lehian.

## Xalbadorpek deituta, Bergarako Orkestra Sinfonikoa Elgetan

Iaz Bergarako Banda izan zen Elgetan eta aurretan Orkestra Sinfonikoaren txanda izango da. Espaloia kafe antzokian izango da emanaldia, hilaren 14an, 20:00etan.

Bestetik, podologoaren hilero-ko kontsulta hilaren 17an izango da. Txanda hartzeko, deitu egin behar da 669 99 81 65 zenbakira (Maite Elkoro).

Hurrengo data seinatatuak ekainaren 22a eta 23a izango dira. Zuzendaritza batzordeko kideak Ozkarbi elkartearen izan- go dira 11:00etatik 13:00etarako izen-emateak hartzeko jaietako bazkarirako -14 euro- zein uztailaren 3an Hondarribira egingo den irteerarako -30 euro-.



# Hamar urte jaiekin auzotarrak alaitzen

Beheko kaleko Jai Batzordearendako egun garrantzitsuak dira; atzo hasi ziren jaiak eta gaur dute egun handia. Hamargarren urteurrena ere badute, eta urteotan guztietan jaiak handitzen joan dira; sorrerako ekintzei berriak gehitu zaizkie

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Ekain hasieran izan ohi dira Beheko kaleko jaiak eta ez dira gutxi izaten han batzen diren herritarrak. Jai Batzordeko ki-deek, ordea, urte osoan darabilte buruan jaietarako finantzaketa nola lortu, eta dagoeneko lekua dute egutegian Gabonetako zein udaberriko bingoek, otarre zozketek eta tonbola jokoei. Makineria urte osoan da martxan.

## Parte hartze handia

16:30ean egingo duten bizikleta lasterketa Beheko kaleko jaien nortasun-ikurretako bat da. Hasieratik egiten dute eta umeak irrikaz egoten dira. Amaia DJ eta Gauargi taldearen erromeria ere klasikoak dira. "Hasieratik eman digu atenzioa zelako parte hartzea egoten den. Kale bateko jaiak izateko, ume zein nagusi, denak daude prest kanturako eta dantzarako. Aurten ere, disko-showa egiteko 37 haur



Bizikleta-jokoak duela bi urteko Beheko kaleko jaietan. L.Z.L.

## BIZIKLETA JOKOekin HASI ETA MOJITO GAUERA ARTEKOAK, GAUR, BEHEKO KALEKO JAIETAN

daude izena emanda, eta ez dut zalantzarik erromeria ere polita izango dela", esan du Amaia Txintxurretak. Nobedadea da, aurten, igel-toka lehiaketa. 19:30ean jokatuko da, eta lehen txapeldunak izendatuko dituzte.



Gaztetxoan afari-merienda, iaz. L.Z.L.

## 150 bat lagun auzo-afarirako

Betiko lez, afaltzeko bi txanda izango dira Beheko kaleko jaietan. Aurrealmenta nola joan den ikusita, Jai Batzordeak espero du 150 bat lagun elkartzea; 75 gaztetxoan afarian eta beste 75 helduenean. Gehienez ere, 180 lagunendako lekua dute.

## Gaurko egitaraua

- **16:00** Eguraldi ona.
- **16:30** Bizikleta lasterketa. VIII. Mendi Kriteriuma.
- **17:30** Entzierroa eta buruhandiak.
- **18:30** Disko-festa: Amaia DJ.
- **19:00** Dantza-showa.
- **19:30** Igel-toka lehiaketa.
- **20:00** Topa egitea.
- **20:45** Gaztetxoan afari-merienda.
- **21:30** Auzo-afaria.
- **23:00** Suzko erruberek eta Gauargi taldearen erromeria.
- **00:00** Mojito jaia.



GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO BOLA-JOKO TXAPELKETA

## Hirugarren sailkatu dira

126 txirlo jota, Elgeta A taldeko kideak hirugarren sailkatu dira Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola-joko txapelketan. Boni Plazak, berriz, 5. egin du sailkapen orokorrean eta 2. beteranoetan. Mateo Guenagak, Bittor Astigarragak, Boni Plazak, Gorka Bereziartuak, Xabier Ortuzarrek eta Sebas Aranzabalek osatu dute taldea.



L.Z.L.

## Gutxienez, bost saguzar espezie

Naturzaindiko Ion Fontenlak jakinarazi du gutxienez bost saguzar espezieen deiak erregistratu zirela barikuan egindako irteeran: ferrasaguzar handia, pipistrela txikia, pipistrela mediterranearra, kuhl pipistrela eta leiser gau-saguzarra. "Beste saguzarren dei batzuk ere izan ditugu, baina ezin dira baieztatu, dei gainjarriak egon direlako".

## Jaiek badute kartela

Zaldibarko Itxaso Gaztelurrutia Blancoren kartela aukeratu dute elgetarrek Ferixa Nagusiko jaiak iragartzeko. "245 boto heldu dira, eta Gaztelurrutiaren lanak 61 jaso ditu", azaldu dute Jai Batzordetik. Hamahiru proposamen izan dira lehian. Gauzak horrela, Gaztelurrutiak jasoko du 100 euroko saria eta haren lanak iragarriko ditu 2024ko jaiak.



ITXASO GAZTELURRUTIA BLANCO



# Udalak ere badauka jazarpenen aurkako gida

Lan- eta sexu-jazarpenaren aurkako barne protokoloa onartu du udalbatzak, aho batez, bertako langileei zuzenduta egongo dena. Bestalde, Bailara elkartera atxikitzea ere onartu du, 2024ko ekintza plana garatzeko dirulaguntza emanda

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Lan- eta sexu-jazarpenaren aurkako barne protokoloa onartu du, aho batez, udalbatzak maiztzeko osoko bilkuran. "Udalak, gaur egun, Berdintasun Plan bat du, herritarrei begirakoa, kanporakoa; eta, aldiz, orain onartu duguna da Barne Berdintasun Plana. Horrek jasotzen du udal mailan, batez ere, udal langileek protokolo bat izatea", azaldu du Izaro Elorza alkateak.

## Formakuntza mahaikideek

Berdintasun Saitetik etorrita, batez ere, sexu eta generoarekiko jazarpena lantzen du protokoloak, baina baita beste jazarpen mota batzuk ere; esaterako, lan-jazarpena. Hori guztia martxan jartzeko, berriz, mahai bat eratu dute, langilea gerturatu dadin jazarpen egoeraren bat gertatuz gero. "Pertsona zehatz batzuk egongo dira, eta, halako egoeraren bat gertatzen bada, langile bakoitzak erabakiko du norengana jo. Eta hor mahai bat

eratuko da egoera aztertzeko, momentuan momentuko erabakiak hartzeko; hori egin ahal izateko, formakuntza espezifikoko jasoko dituzte mahaikide horiek".

## Elkar ezagutu eta laguntzeko

Oñatiko udalbatzak, bestalde, onartu du Udalak atxikimendua ematea Bailara elkarteari, 10.000 euroko dirulaguntza emanez 2024ko ekintza plana garatzen laguntzeko. Debagoienan kokatutako sektore askotariko enpresa taldea da Bailara elkarteak, eskualdeko ehun sozial eta ekonomikoa indartzeko eta enpresa elkartearen irudia eta lehia-kortasuna hobetzeko lan egin nahi duena. "Batez ere, enpresa txikiekin eta ertainekin lan

egiten dugu, baina handiak ere ongietorriak dira, bai. Egun, bailarako hamasei enpresa dira bazkide, eta beste askok dagoeneko badute interesa izateko. Elkar ezagutu, elkarren berri izan eta sarri kanpoan egiten diren lanak bertan egitea posible bada, horixe sustatzea da helburua, enpresen ikusgarritasuna handitzen laguntzarekin batera. Guztia koordinatuko duen dinamizatzaile baten beharra dugu orain, eta horretarako izango da hitzarmenen bidez lortzen dugun dirua, hein handi batean", azaldu du Bailarako lehendakariordeak, Alaitz Osa oñatiarrak. Herriko enpresak horra batzera gonbidatu ditu, bide batez, Elorzak.

## 'Txutxin' gogoan

Corpus jaien bezperan egin zen maiatzeko ohiko osoko bilkura eta Jesus Irizar *Txutxin* izan zuten gogoan udal ordezkariak; esker hitzak izan zituzten, hark egindako lanagatik.

## UDALA BEZALA, HERRIKO ENPRESAK BAILARA ELKARTERA BATZEA GONBIDATU DITU ALKATEAK



Joan den astean egindako aurkezpena. A.A.

## Emakumion Etxiaren lantaldeak osatzeko deia zabalik dago

Espazioa zabaltzen denerako dena prest egotea da helburua; udal webgunean sartuta eman daiteke izena

## O.E.G. OÑATI

Emakumion Etxia izango den espazioaren helburuak eta erabilera finkatzen ibili dira azken bi urteetan talde irekietan batuta, eta, egindako lanketa herritarrei erakutsita, lantaldeak osatzeko deia egin dute orain. Landutako oinarri teorikotik praktikara eta ekintzara salto egin gura dute. "Bakoitzak bere gaitasunetik abiatuta, parte hartzeko aukera izango du, adibidez, etxearen antolamenduan, estrategia pentsatzen edo komunikazioa eta harreman arloa lantzen", azaldu du Garapen Komunitario

eta Partaidetzarako udal teknikari Onintza Andresek. Eraikinen obrak egin bitartean, jarraitu egingo dute parte-hartze prozesuarekin, lantaldeak martxan jarrita. Udal webgunean eman daiteke izena.

Orain arteko balorazioaz galduta, positiboa izan dela adierazi du Udaleko Berdintasun teknikariak, Jone Arriolabengoa: "Oso polita, oso indartsua izan da orain artekoa. Aurrera begirako urratsetan ere espero dugu mantentzea harremanak, parte hartzeko grina eta espazioaren zaintza".



Maiatzeko ohiko osoko bilkura, joan den asteko egunean. O.E.G.



O.E.G.

## San Lorentzokoa ere, erabilgarri

Aste honetatik dago erabilgarri Eltzia aurrean, ur-uhinen parkean, jarritako komun publikoa. Berez garbitzen den komuna da eta urte osoan egongo da irekita, herriko gainerako komun publikoen ordutegi berarekin. Izan ere, 2022ko partaidetzazko aurrekontuen prozesuan aukeratutako proiektuetako bat izan zen.



Duela hiru urte, 2021ean, Santa Ana antzokian egindako Hauspotu Bizitza jaialdiaren emanaldietako bat. L.T.E.

# Elkartearaz arduratzeko festa, trikitiarekin gozatuz

Hauspotu Bizitza trikiti festa antolatu du zapatarako Lizargarate Trikitizale Elkarteak, trikitilariendako zein zaleendako. Emanaldiak egongo dira goizean Olarako auzoko jaietako oholtza gainean eta kalejirak eguerdian eta iluntzean

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Elkarteari ondorengoak ematea eta etorkizuna bermatuko duten horiei trikitia zentzu zabalenean erakustea dira Lizargarate Trikitizale Elkarteak bere buruari jarri dizkion erronketako bi, eta horiek lortzen laguntzeko antolatu du zapatuko trikiti festa.

## Nork bere estiloan

Jai eta ospakizunen egutegiari begiratu eta egun propio bat jartzea erraza ez dela ikusita, Olara auzoko Jai Batzordekoekin jarri ziren harremanetan, bien asmoak uztartzeko. Horrela, biharko, zapatua, trikiti festako emanaldia auzo horretako jaietarako muntatu den oholtza gainean izango da, 11:30ean. "Elkarteko kide batzuek eta musika eskolako hainbat trikitilarik joko dute. Taldetxoak osatu dituzte eta nork bere estiloan, librean, joko ditu bizpahiru pieza", azaldu du Lizargarate Trikitizale Elkartearen Irati Barrenak.

Oholtza gaineko emanaldiaren ostean, kalejira egingo dute Olara auzoan zehar, eta trikitizale edonork parte hartu ahal izango du; baita eguerdian gaztetxean egingo duten bazkari ostekoan ere, kaletik auzora bueltan joateko egingo duten kalejiran, alegia.

## Zaleekin batera

2021ean, herriko beste eragile batzuekin egin zuten antzerako festa bat Santa Ana antzokian; dantzariekin eta bertsolariekin kasu. Aurtengoa kalean izango da, trikitizaleendako egun bat osatuz, gaztetxoak eta zaleak elkarera erakarritik. Elkartearen kide Garazi Billarrek azaldu du azken urteetan gorabehera han-

**HELBURUAK: TRIKITIA ZENTZU ZABALENEAN ERAKUSTEA ETA JENDEA ELKARTERA ERAKARTZEA**

diak izan dituela elkarteak eta onartu du gero eta zailagoa egingo zaiela jende berria elkartera erakartzea: "Trikitia mundu konkretu batekin lotzen dugu askotan, baina gizarteak aldatzen joan den heinean joan da hori ere aldatzen, euskal kultura ere aldatu da eta. Zapatuan lortu gura diren helburuak dira, batetik, ondoren etor daitezkeenei erakustea gauza ezberdinak egin daitezkeela trikitiarekin eta berdinean gozatzen jarraitu, eta, bestetik, elkartearen sustatzea. Gainera, zale guztiak gonbidatu gura ditugu egunaz gozatzerako, elkartearen ez dutelako musika egingo dutenek bakarrik osatzen".

## Lizargaraten abuztuaren 31n

Elkarteko kide berriek aurreratu dute Lizargarate Eguna mantendu egiten dutela, baina aurten abuztuko azken zapatuan izango dela, 31n. "Egunak berak beste itxura bat izango du, baina trikiti doinuak eta giro ona ez dira faltako".



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

## 'Txutxin'

Maiatzaren lehenengoan, ezustean eta Gorpuzei egunerako hilabete bat falta zela, Jesus Irizar *Txutxin* hil zitzaigun.

Orain, Oñatiko festa berezia ospatu ondoren, hura gogoan hartu nahi dut. Tradizioak, kulturak, folkloreak eta erlijioak bat egiten duten festa hori, Corpus Christi festa, *Txutxin*-ek modu bikain batean uztartu zuen bere pertsonan.

Kristau fededuna, oñatiar peto-pettoa, herria bihotzean zeramana, antzinako ohituren zalea bezain moldatzailea, eta dantzari trebea eta gogotsua.

Euskal dantzak gure herriko nortasunaren erritualak dira. Antropologo kulturalak erritoari sekulako garrantzia ematen diote. Herriek ohorea eta ospea guztiz neurtutako dantza hauengandik jasotzen dituzte.

Korpus eguneko dantzak, *Txutxin*-i eta bere jarraitzaileei esker, gure identitatearen parte izango dira, seinale izango dira guretako datozen urteetan ere.

Eskerrik asko, *Txutxin* eta konpainia.

## Fan Hemendik Eguna izango da berriz aurten, ekainaren 22an

Manifestazioa egingo dute egun horretan, eta baita ekitaldiak ere ekainean zehar mezu horrekin

## O.E.G. OÑATI

"Indar okupatzaileek Euskal Herrietik irten behar dute. Herri honek bakean bizi nahi du, indar okupatzaileen presentziarik gabe". Aldarrikapen horrekin antolatu dute, beste behin, Fan Hemendik Eguna: "Ahaztu ez dezaten ez ditugula herrian nahi, kuartelik gabeko herria izan nahi dugu". 22an izango da, baina ekainean zehar hainbat ekintza egingo dituzte mezu horren baitan; kontzertuak gaztetxean, mural margotzea eta pintxo-potea, esaterako. Torturari buruzko hitzaldia

ere egongo da, martitzenean, 19:00etan, kultura etxean.

Hilaren 22a izango da, baina, eguna bera. Poteoa eta bazkaria egongo dira, eta manifestazioa 18:00etan, plazan hasita. "Ikusgarritasuna jaitsi bada ere, bertan jarraitzen dute. Ziklo haren bukaerak, baina, ez du beraien presentzian aldaketa nabarmenik ekarri, ez eta joateko intenziorik agertu ere. Zergatik jarraitzen dute, bada, oraindik hemen? Badakite beraien irteera gatazkaren balizko konponbiderako urrats handia dela".

## Haurren danborradan parte hartzeko izen ematea zabaldu dute

Zabalik dago izen-emate epea herriko jai nagusietan egingo den haurren danborradan parte hartzeko. Datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako hirugarren edo laugarren maila hasiko duten gaztetxoak aterako dira. Izena online eman behar da, ekainaren 12a aurretik, ikastetxeen bidez banatu duten lotura elektronikoko baten bitartez.

## 'Go!azen'-eko kantak abestuko dituzte etzi 100 bat umek

Ganbara Faktoriako 100 bat umek hartuko dute parte domekarako antolatu duten kontzertuan. Azken hiru hilabete hauetan landutako piezak erakutsiko dituzte *Uda, goazen kantari* izeneko emanaldian. Kanta ezagunak izango dira denak, *Go!azen* telesailen abestutakoak. Emanaldia Santa Ana antzokian da, domekan, 19:00etan.



# Hirukoa Aloña Mendik, saskibaloia sustatzeko

Lehen aldiz egingo du hiruko saskibaloi txapelketa Aloña Mendik, kirol hori zabaltzeko eta jokatzeko. Ekainaren 15ean izango da, kantxa berdean, eta lau kategoriatako jokalariek hartu ahal izango dute parte, hiruko eta lau taldeetan

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Aloña Mendiko saskibaloi taldeak hiruko txapelketa antolatu du, aurten lehenengo aldiz. Hilaren 15ean egingo da eta helburua da, "batez, ere, saskibaloia gaztetxoan artean sustatzea, batetik, eta lagunekin elkartu eta saskibaloiaz gozatzea, bestetik".

## Hiruko edo lau taldeak

Kategoriak egingo dute txapelketa, Zubikoako kantxa berdean, eta apuntatzen den talde kopuruak baldintzatuko du partiduen iraupena. "Saski bakarria erabiliko da partidu guztietan, eta, horrela, partidu bat baino gehiago jokatu dira aldi berean kantxa berdean. Iraupena edo puntu kopurua izango da muga, baina hamar bat minutuko norgehiagokak izatea da asmoa, laburrak izango dira", dio antolatzaile lanetan dabilen Pablo Zubiak.

Benjamin (2014-2015), alebin (2012-2013), infantil (2010-2011) eta kadete (2008-2009) kategorietan sartzen diren gaztetxoendako txapelketa izango da. Hiruko edo lau taldeek har dezakete parte eta talde mistoek ere izena eman ahal izango dute; baldintza bakarria da talde bakoitzean bi federatu soilik egon daitezkeela, gehienez.

## Doan izango da

Taldekieen izenak jarrita egin behar da izen-ematea. "Gaztelekuko Kuboan eta kiroldegiko sarreran jarri ditugu paperak betetzeko eta ontziak, betetako orri horiek barrura sartzeko. Bestela, karteletan datorren QRan sartu eta agertzen den galdetegia beteta ere eman daiteke izena", dio Zubiak. Txapelketa bera doan da eta izena emateko azken eguna, berriz, ekainaren 12a, datorren eguaztena.

Taldekieak eurek nahi duten kamisetarekin joan ahal izango dira eta beharra izanez gero



Hiru gaztetxo saskibaloian jokatzeko Zubikoan. ALOÑA MENDI

txalekoak erabiliko dituzte, antolatzaileek taldeen arteko bereizketa egiteko. "Arbitratzen, saskibaloi saileko zuzendaritzako kideak, entrenatzaileak eta senior mailako jokalariek ibiliko dira. Asmoa da gazteenei oroigarri bana ematea txapel-

**IZENA HILAREN 12A AURRETIK EMAN BEHAR DA, ONLINE EDO PAPERAK BETE ETA ONTZIRA SARTUTA**

ketaren amaieran; beste kategorietan sariak egingo dira finalistendako".

## Balorazio "ona"

Denboraldiaren balorazioa eskatuta, "ona" izan dela adierazi du Zubiak: "Mutilen gorengo taldea mailaz jaitzi da, eta hori ez da ona, baina entrenatzaile eta laguntzaile izateko jende asko etorri da elkartera eta oso pozik gaude. Talde guztietan entrenatzaile pare bat ditugu orain eta horrek sendotasuna ematen dio saskibaloitari".

## Uztailean ere egingo dira kirol ikastaroak Zubikoako kiroldegian

Ikasturtean zehar egindako moduan, datorren hilean ere, uztailean, egingo dira kirol ikastaroak Zubikoako kiroldegian. Pilatesa, crossfita, body pumpa, body balancea, luzatzeak, TRX, kore strecha, zunba eta gimnasia terapeutikoa dira Egoitek enpresak datorren hilean eskainiko dituen aukerak. Uztailean letik 30era egingo dira ikastaroak, batzuk astean behin eta beste batzuk birritan. Bakoitzak bere prezioa du, eta desberdina da bazkide direnendako eta ez direnenendako. Ikastaroek plaza mugatuak dituzte eta bete arte egingo da izen ematea zabalik. Kiroldegiko harreraren eman behar da izena.

## Igerilekuak itxita egingo dira zapatu arratsaldean

Bihar, zapatua, igeriketako Txanxiku Saria jokatu da Zubikoako igerileku handian, eta, ondorioz, ez da erabilgarri egingo. 15:00etatik aurrera itxita egingo dira igerilekuak ohiko erabiltzaileendako; txapelketa bukatzen denean zabalduko dute berriz, iluntzean, baina ordutegia zehaztu barik, probaren arabera izango da eta.

## Astondoa, Gisasola, Zaldua eta Mugerza etzi Olakuan

Herri kirolen erakustaldia egingo dute domekan Olakua auzoan, bertako jaien barruan. Irati Astondoa eta Karmele Gisasola, batetik, eta Xabier Zaldua eta Ugaitz Mugerza, bestetik, kirolari ezagunak joango dira erakustaldia egitera. Eguerdiko parrilladaren ostean, 13:00 aldeira izango da, jaigunean bertan. Domekako kirol erakustaldi horrez gain, umeendako mendi bizikleta irteera dute antolatuta zapatu eguerdirako.

Zelan ez, txorimaloak, auzo bazkaria, mus txapelketa eta musika kontzertuak ere egingo dira Olakua auzoko jaietan, gaur, egubakoitza, 19:00etan hasita, eta domeka gauera arte.

## Akordioa sinatu dute Ulmak eta Oñatiko Mendi Martxak

Ulmak eta Oñatiko Mendi Martxak datozen hiru urteetarako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, aste honetan jakinarazi dutenez. Horrela, datozen hiru edizioetan elkarlanean arituko dira, "partekatzen" dituzten balioak aintzat hartuta. 2015ean egin zuten lehen Oñatiko Mendi Martxa; aurtengoa irailaren 15ean izango da.



GOIENA

## Ohorezko Mailan dira berriz

"Taldea eginda" eta "igoera lortuta, pozik" daude Aloña Mendiko futboleko maila goreneko jokalariek datorren urtean berriz Ohorezko Erregional Mailan jokatu dutelako. Joan den denboraldian jaitzi ziren mailaz, eta igotzea lortu dute, Aloña Mendi kirol elkarteak 75. urteurrena ospatzen ari den urte berean.



Hau da hau  
desastria egin dotena.  
Oin, baten batek konpondu  
biherko dost hau.



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n

**goienaOkmgida**

Debagoiengan baldin badago,  
hemen dago.



Goiena  
Okm Gidaren  
eskaintza osoa.



# Gipuzkoako Futbol Sariak banatuko dituzte gaur

**FUTBOLA** Aloña Mendiren 75. urteurrena baliatuko du Gipuzkoako Federazioak urteroko ekitaldia Oñatin egiteko. "Urteurren borobila da, eta hasieratik pentsatu genuen toki aproposa dela ekitaldia ospatzeko", adierazi du Manu Diazek

**Xabier Urtzelai Atxa OÑATI**

Gipuzkoako Futbol Federazioak, Aloña Mendi KEren 75. urteurrenarekin bat eginez, urteko gala ospatuko du gaur, hilak 7, Oñatiko Santa Ana antzokian (19:00). Kirol sariaketa horretan sari mordoak banatuko dituzte; besteak beste, denboraldian zehar futboleko eta areto futboleko jokalariek, entrenatzaileek, taldeek eta epaileek egindako lana eta esfortzua errekonozitzeko helburuarekin. Ekitaldiak ere balio du, baina, garai batean erreferente izan ziren haiek ere omentzeko.

**Arantza del Puerto**

Futboleko Mitoaren Saria jasoko du, esaterako, Arantza del Puerto (Donostia, 1971) jokalaria ohiak. Arantza del Puerto 70 aldiz izan zen internazionala, eta Añorga taldearekin Liga eta Kopako txapeldun izan zen. Harekin batera, Realeko emakumezkoen entrenatzaile izateari utzi berri dion Natalia Arroyo eta Sid Lowe kazetaria ere sarituko dituzte –Gipuzkoako futbolaren balioen hedapenean egindako lanagatik–, eta SD Eibarrek 2023-2024ko denboraldiko klub onenaren saria jasoko du. Horrekin batera, Joaquín Urio Velazquez eta Mikel Perez Lasa epaileen ibilbideen errekonozimendua ere egingo dute.

Sari horiek aurrerapen bat baino ez dira, asko daude eta. Eta Federazioko presidente Manu Diazek aurreratu du Debagoienean ere geratuko dela sari bat baino gehiago. "Hasteko, Federaziotik ekitaldiaren anfitrioiarekin detaile bat izango dugu, baina, horrekin batera, Antzuola Kirol Elkarteak ere saria jasoko du. Klub handien lorpenekin batera klub txikiek egiten duten lana eta futbolari egiten dioten ekarpena aitortzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, eta uste dugu Antzuola oso lan ona



lax, Aloñaiko presidente Javi Azpiakuz jaso zuen errekonozimendua. GFF

## ARANTZA DEL PUERTO JOKALARI OHIA ETA NATALIA ARROYO ENTRENATZAILEA SARITUKO DITUZTE

egiten dabilela. Horrekin batera, saritu gehiago ere egongo dira, baina ez dugu dena aurreratuko".

**Aloña Mendi, ospakizunetan**

Oñatiko taldea kirol sarien bezperan mailaz igoko zenik ez zegoen aurrekusterik, baina, zalantza barik, gogo aldarte on hori ere igarriko da gaurko ekitaldian. "Ezin genuen gidoian halakorik aurreikusi, baina, filmetan gertatzen den moduan, futboleko ere gertatu da. Zalantza barik, urteurrenarekin batera Aloña Mendiko seniorren talde nagusia mailaz igo izana oso positiboa da, eta halakoak ondo ospatu behar dira. Gainera, ona da bai Aloña Mendirendako, baina baita bailarako futbolarendako ere. Bergara, Mondra eta Aloña Mendi Ohoerzko Erregional Mailan egongo dira datorren urtean, eta, bes-

talde, ea Aretxabaleta Hirugarren Mailara igotzen den [Joan den astean Bermeon berdindu eta gero (0-0), asteburuan UDAk atsedena izango du]".

**Hirugarren edizioa izango da**

Gipuzkoako Futbol Sariak hirugarren edizioa izango dute gaur; formatu horretan bai, behintzat. "Gu Federaziora iritsi aurretik, sari banaketa ekitaldia urteroko batzarrarekin batera egiten zen, baina aldatzea erabaki genuen. Urteko batzarrean gauza serioez egiten da berba, tonu oso formaleko ekitaldia izaten da, eta futbol sariak beste tonu batean banatu nahi genituen, Gipuzkoako futbolaren jai bat antolatu nahi genuen. Azken batean, izen ezagunak eta futbol amateurraren bueltan lanean dabilzanak batzeko eguna da hau, eta egiten duten lan hori errekonozitzeko eguna. Horrela hasi ginen duela hiru urte, eta aurrekoak Tolosan eta Andoaingo ospatu eta gero aurtentzen Oñatira etorri behar genuen. Gainera, leku oso aproposa da Oñati, efemeride ederra ospatzen dabilta eta oso herri futbol-zalea da", adierazi du Diazek.



Intxortako rallysprinteko podiuma, zapatu iluntzean, Angiozarren. GOIENA

## "Badugu zer hobetu, baina egingo dugu bigarren edizioa"

**AUTOMOBILISMOA** Intxortako lehenengo rallysprintak pozik utzi ditu zaleak, pilotuak eta antolatzaileak

**X.U. ARRASATE**

Intxortako rallysprinteko antolaketa taldeko kide Urko Arregi (A+Gas) pozik zen zapatuko lasterketaren ondoren, sari banaketan momentuan. "Pilotuak eta kopilotuak gustura geratu badira, gu pozik geratzen gara. Baina egia da sentsazio arraroak direla hauek, egun osoan urduri egon garelako; eta, aldi berean, orain lasaitasuna ere sentitzen dugu, dena joan delako ondo. Ez da istripu larririk izan, txapa-kolpe txikiren bat edo beste egon da, halakoak normalean egoten dira, baina osasun zerbitzuetako lagunek ez dute lanik egin, ambulantiak ez dira lekutik mugitu, eta hori beti da albiste ona". Halaxe baloratu zuen Arregik Intxortako lehenengo rallysprintak emandakoa, eta garbi erantzun zuen bigarren edizioa ere antolatuko dutela: "Lehenengoaren ostean bigarre-

na etortzen da, eta bai, egingo dugu bigarrena. Badugu zer hobetu, horretaz ere kontziente gara, baina gustura geratu gara".

Hain zuzen ere, Intxortako lehenengo edizioak 42 pilotu batu zituen irteera puntuan, eta, lehenengo edizioa izateko, ez da zenbateko txarra: "Beti esan ohi da lehenengo lasterketan kostatu egiten dela jendea erakartzea. Baina nahi izan duten horiek lasterketan egon dira, eta auto kopuru polita batu da. Akaso, zaleen partetik ez da jendetzarik egon, baina eguraldiak berak ere ez du askorik lagundu".

**Lehia estua aurrean**

Lasterketari dagokionez, Iker Etxeberria eta Maitane Martiarena (BMW3) izan ziren azkarrenak, eta segundo batera geratu ziren Gorka Idigoras eta Andoni Perez (Clio Sport).

## ENDUROA Ekainaren 30ean lasterketa egingo dute Arrasaten

Sustrails zirkuitu barruan dagoen enduro lasterketa egingo dute ekainaren 30ean Arrasaten –izen-ematea, *rocktheSport*-en–. Zirkuitu horren barruan sei lasterketa egingo dituzte eta Arrasatekoa egutegiko hirugarren hitzordua izango da –aurrekoak Lesakan eta Larra eta Belaguan egin dituzte–. Hurrengo hitzorduak uda ostean izango dira.



Pilotu bat jaitsiera batean. GOIENA





Ikazkin Trail mendi lasterketako antolatzaileak, lasterketaren aurkezpenean. MIRARI ALTUBE

## Bi ibilbide izango ditu III. Ikazkin Trail lasterketak

**MENDI LASTERKETAK** Izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko, eta bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute lasterkariak: luzea, 23,2 kilometro eta 1.300 metroko aldaparekin; eta laburra, 14,8 kilometro eta 920 metroko aldaparekin

**J. Murua Mesonero** ARETXABALETAK Irailaren 7an jokatu da UDAn hirugarrenez antolatu duen mendi lasterketa. Izena emateko epea zabalik izango da irailaren 1a arte *rockthesport.com* atarian, eta, guztira, 300 lagunendako lekua egongo da. Berritasun gisa, bi ibilbide izango ditu lasterketak: luzea, 23,2 kilometrokoa -iazkoa baino bi kilometro luzeagoa-, eta laburra, 14,8 kilometrokoa.

Luzeak iazko antzeko ibilbideak izango duela argitu du antolatzaille taldeko Mikel Arriolak, baina bi kilometro gehiagorekin: "Bidegorritik Urkulura igoko dira, eta Kurtzebarriko hegitik tontorrera. Han dago, hain zuzen ere, zona teknikoena, Kurtzebarritik Elorretako Haitz puntara. Basobaltzetik jaitsiko dira gero, eta, Degurixatik pasatuta, Andarto atzetik buelta eman eta Gaztanbidetik Urkulura jaitsiko dira, eta bidegorritik zuzenean Aretxabaletara iritsiko dira".

Motzean, igoera berbera egin go dute: "Igo bide beretik igoko dira Kurtzebarri, eta jaisterakoan, pagadira iritsi aurretik, zelaian behera Elizabarriraino; pistatik jarraitu eta Tontorreko txabolatik pasatuta Arentza auzora egingo dute. Bidegorritik Aretxabaletara jaitsiko dira".

Aretxabaletako lasterketari balioa eman gura izan dio Arriolak: "Ez da atzera geratzen beste inoren parean, eta bertakondako paraje oso ezagunak izan arren, benetan merezi duen lasterketa da".

Ainara Urrutia mendi lasterkari aretxabaletarra ere ildo beretik mintzatu da: "Herrian parte hartzeak beste xarma bat du, lagunak eta etxeok bertan

**IBILBIDE LUZEA ETA LABURRA IZANGO DITU IKAZKIN TRAIL MENDI LASTERKETAREN HIRUGARREN EDIZIOAK**

egoten direlako. Baina egia da sekulako giroa sortzen dela horren bueltan Aretxabaletan, eta lasterketa ederra da, gainera, paraje zoragarriak dituelako". Beldurrik uxatu eta parte hartzera animatu ditu herritarrak: "Seguru asko, ez egin izanaren damua izango du batek baino gehiagok, baina egin izanarena inork ez".

### Herritarrei deia

Irailaren hasiera mendi lasterketa batendako ez dela data ona sarri entzun dute antolatzailleak. Baina parte-hartzaile kopuruari dagokionez urtetik urtera gorantz doa eta hirugarren honen erabat erroto gura dute. Horretarako, herritarrak animatu gura dituzte lasterketan edo horren bueltako kontuetan parte hartzera: "Ekimen hau aretxabaletar guztiena dela sentiarazi gura dugu, lasterka egin edo ez. Horregatik animatzen ditugu, gura izanez gero, boluntario lanetara, edo mendira igo eta lasterkariak animatzera".


## Zilarra Oihana Kortazarrentzat, taldeka, Europako Txapelketan

Zortzigarren amaitu zuen lasterketa Kortazarrek, baina taldekako sailkapenean bigarren postuan geratu ziren

**J.M.M. ELGETA**

Zilarrezko domina jantzi zuen Oihana Kortazarrek joan den asteburuan Annecyn, Frantzian, jokatu zen Europako Mendi Lasterketako Txapelketan. 6.12.35eko denbora eginda zeharkatu zuen helmuga elgetarrak -zortzigarrena izan zen-, eta hura izan zen Espainiako selekzioko korrikalari azkarrena; haren atzetik iritsi ziren Gemma Arenas (6.24.08) eta Mar Pastor (6.40.33).

Bosgarren postua lortzeko lehian aritu zen Kortazar ia lasterketa osoan -43 kilometroz-, baina azkenengo 17 kilometroetan hiru postu galdu zituen, "hanketako giharretako mina" tarteko. Hala ere, Kortazar "oso harro" dago, sare sozialen bidez bidalitako mezu batean esan duenez, "lasterketa amaitzea lortu izanagatik". Era berean, aitortu du hiru postu galdu



Kortazar, lasterketan. J.M. MUÑOZ

izan ez diola "frustraziorik eragin" eta badakiela "ikasteko asko" duela. Mezu berean, "eskerrak" eman nahi izan dizkie Espainiako Atletismoko Federazioko entrenatzaileei eta lasterkariei, txapelketan "guztia eman izanagatik".

## Ander 'Pacheco' Lehen RFEF Mailara igo da Barakaldorekin

Orihuelaren aurka jokatu du Barakaldok kanporaketa, eta, joanekoan 3-1 galdu arren, zapatuan, itzulerakoan, Lasasarren 2-0 nagusitu zen Bizkaiko taldea, eta, hortaz, datorren urtean Lehen RFEF-n jokatu du. Hala ere, ekainaren 30ean amaituko zaio kontratua aramioarrari, eta "datozen asteetan" izango du klubeko informazioaren berri.

## Entrenamendu ireki baterako deialdia egin dute ARTko neskek

Arrasate Rugby Taldeko neskek irailean entrenamendu ireki bat egiteko proposamena egin dute. Mezua bailarako gainontzeko neskei zuzenduta dago, arratsalde batean Mojategin elkartu eta errugbia ezagutzeko asmotan. Momentuz, Whatsapp talde bat sortu dute, eta interesa duen oro sartu daiteke bertan informazioa jaso ahal izateko.

## Brontzezko domina Patricio Binirentzat Espainiakoan

Espainiako kickboxing eta muay thai Txapelketak jokatu ziren Guadalajaran joan den asteburuan, eta, 800 parte-hartzaile baino gehiagoren artean, hirugarren onena izan zen Patricio Bini, Euskadiko txapelduna eta Saioa gimnasioko Tano Team taldeko irakaslea. Binik dioenez, "esperientzia ahaztezina" izan zen eta "itzultzeko gogoz" dago.



Bini, dominarekin. SAIOA KARATE TALDEA



# "Denon artean dastatzemenu ona eskaini dugu"

**ANDER MALBADI 'ALGARAKA' BAKARRIZKETA LEHIAKETAKO IRABAZLEA**

Afizioz aktore den albizturtarrak eskuratu du 1.000 euroekin eta Bergarako tostoiekin eta erreilenoekin osatutako saria egubakoitzean jokaturako 'Algaraka'-ren finalean

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**

BERGARA

Ogibidez ingeniaria den baina aktore lanetan ere jarduten duen Ander Malbadik (Albiztur, 1989) irabazi du *Algaraka* bakarrizketa lehiaketako sari nagusia.

**Zorionak! Pozik sari nagusia irabazita?**

Oso pozik! Astebete pasa bada ere, digeritze prozesuan oraindik.

**Zer jaso duzu ingurukoen eta lehiakideen partetik?**

Esango nuke denak saiatu gara lehiaketa bigarren mailan uzten eta denok ikusi dugula *Algaraka* umore-plaza moduan, nahiz eta sailkapen bat eskatzen duen. Niri egokitu zait lehenengo izatea, baina garbi daukat beste edozein egunetan besteren bat izan litekeela irabazle nagusia. Zoriondu beharreko jende asko dago lehiaketa horren inguruan.

**Gustatu zaizu *Algaraka*?**

Bai; iruditzen zait mimo handiz egindakoa izan dela. Badakit Goienak eta Jardunek eskarmentua dutela askotariko ekimenak antolatzen, eta oraingoan ere lehiaketa bat izan arren produktu txukun bat plazaratzea lortu dutela argi dago. Hiru areto ezberdinetan emanaldi oso politak gelditu direla uste



Ander Malbadi, Seminarixoan jokatu zuten *Algaraka*-ren finalean. IMANOL SORIANO

dut. Mimoa nabaritzen da antolakuntzan, dekorazioan, aurkezleen gidioetan... Eta ez dut hori esaten barruan egon naitzela; hartzaile edo ikusle moduan ere hala sumatu dut. **Lehiaketaz harago, telebista saio bat izan da; traba izan dira zuretzako kamerak?**

Egia da astero EITBko *Piztu telebista* saioan azaltzen naizela, baina bizipen eta egiteko modu ezberdinak dira; hau da, *Piztu telebista*-ren kasuan, nire etxera datoz kamerak, ez da telebista plato bat, eta aldamean nire haurtzaroko lagun bat dut. Hala ere, antzokian ez

naute horrenbeste arduratu kamerek, presio puntu handiagoa sorrarazi dit lehiaketa izateak.

**Zerk animatu zintuen *Algaraka* lehiaketan parte hartzera, plaza gogoak, bereziki?**

Erabat! Nire kasuan, bai; izan ere, partaide gehienek moduan, orain dela gutxi hasi nintzen bakarrizketak egiten. Hamar urte daroat Katiuska antzerki taldean parte hartzen, baina iazko azaroan egin nuen estreinakoz bakarrizketa saio bat. Harrezkero suertatzen zaizkidan aukera guztiak aprobetxatzekoak dira niretzako.

## Lehenengo aldia, "arrakastatsua"

Bergarako Jardun Euskara Elkarteak eta Goiena Komunikazio Taldeak antolatu dute estreinakoz *Algaraka* bakarrizketa lehiaketa, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako Udalak babestuta eta Zumarragako eta Urretxuko udalen eta Zumaiako Udalaren laguntzarekin. Guztira, hamabi parte hartzaile aritu dira; hala, hiru kanporaketa eta finala jokaturatu, lau bakarrizketarik irabazi dute sari bana.

Iosu Zubia, Idoia Torregarai eta Aner Peritz epaimahaikideen eta finalean gonbidatua izan zen Yogurinha Borova artistaren boto gehien jasota, Ander Malbadik eskuratu zuen sari nagusia –1.000 euro eta Bergarako tostoiak eta erreilenoak–; Ion Martinez *Txiki*-rentzako izan zen bigarren saria: hau da, Bergarako gozoez gainera, 600 euro; Bergarako Zumelaga jatetxean afaria eta Lamaino Etxeberri nekazari-etxean gaua eta gosaria eskuratu ditu, berriz, hirugarren sariaren irabazle Asier Galartzak; eta Debako Manex Astigarragari eman diote Bergara Saria: Bergaran erabiltzeko 250 euroko bonua, hain zuzen ere.

Kanporaketa guztiak bezala, finala ikusteko aukera izango da Goiena telebistan: gaur, egubakoitza, 20:30ean; bihar, 23:00etan; eta domekan, 18:00etan eta 23:30ean. EITBren Primeran streaming plataforman dagoeneko ikusgai daude saio guztiak.

**Saio ia guztietan moduan, finalean ere aretoa beteta; pozik ikusten da hori taularen gainetik, ezta?**

Bai, horixe! Hasteko, Seminarixo hutsik ere polita da, eta horri gehitzen badiozu aurreko egunetan agortu direla sarrerak, eta, gainera, publiko beroa izan dugula aurrean, bada, itzela da! **Zer iruditu zitzaizkizun beste lehiakideen kontakizunak?**

Denak saiatu ginen finalean zerbaite gehiago eskaintzen: Ion Martinez *Txiki*-k musika erabili zuen; Asier Galartzak beste baliabide bat eskatu zuen eta asko jokatu zuen horrekin, asko pentsarazi zigun bakarrizketa sakonagoa egiteko; eta Manexek estilo propioa du. Hori izan da politena, bakoitzak bere ukitua eman diola elkarrekin dastatzemenu anitza eskaintzeko. **Bukatu da *Algaraka* zuretzako?**

Ez, oraindik ez; oholtzaren atzeko aldetik ikusitakoak hobeto ikusi gura ditut pantailaren bitartez orain.

**Jan dituzu tostoiak eta erreilenoak?** Ari naiz poliki-poliki, baina gurasoei eman nahi dizkiet, nik denak ez jateko.

**Eta pentsatu duzu irabazitako 1.000 euroak zertan inbertitu?**

Oraindik ez, baina oso ondoetorriki dira; hala ere, aurrez esan moduan, plaza nahi nuen, bereziki, nik, eta irabazteagatik plaza gehiago lortzeko aukera badut, ederto!

**"UMORERAKO PLAZA BAT IZAN GURA NUEN, ETA HIRU PLAZA HANDI IZAN DITUGU 'ALGARAKA'-REKIN"**

## 'HIZKUNTZEN KUDEAKETA ETA EUSKARA GURE ENPRESETAN'

**MAHAI-INGURUA**

EGUBAKOITZEAN, EKAINAK 7, 21:30EAN  
ZAPATUAN, EKAINAK 8, 19:00ETAN  
TXOMIN MADINAK GIDATUTA



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.







Mainer Arregi, Ane Zuazubiskar, Oihana Arana, Aitor Tatiegi eta Haizea Arana bertsolariak. BERTSOZALE ELKARTEA

# Bost txartel eskuratuta, lehiatzeko "gogotsu"

Arrasateko Ane Zuazubiskar, Eskoriatzako Haizea eta Oihana Arana ahizpak eta Oñatiko Txinparta eskolako Mainer Arregi eta Aitor Tatiegi udazkenean abiatuko den Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketan lehiatuko dira, txartel bana lortuta

## Aitziber Aranburuzabala Juldain

ARRASATE  
74 bertsolarik abiatu zuten, apirilean, Gipuzkoa Bertsotan ekimena, eta dagoeneko 34 bertsolarik dute udazkenerako txartel bana; bost debagoiendar daude haien artean.

## Orain arteko lanarekin "pozik"

Eskualdeko bederatzi bertsolari ziren hasieran, eta Oñatiko Mainer Arregi eta Aitor Tatiegi, Arrasateko Ane Zuazubiskarrek eta Eskoriatzako Haizea eta Oihana Aranak egin dute aurrera. "Gustura" daude sailkapen faseko saioekin. "Gauza batzuk ondo egin izanaren sentazioa dut eta gauza batzuk

fintzeko eta hobetzeko gelditzen zaizkit", dio Oihana Aranak, eta zera gaineratu du Zuazubiskarrek: "Lan txukuna eginda, pozik nago ni ere". Bide beretik jardun du Mainer Arregik, "lasai eta lagun artean bertsotan gustura" ibili dela gaineratuta.

Saioetan izan duen jarreragatik "pozik" dago Tatiegi, nahiz eta "penaz" dagoen eskola bereko Urko Arregi atarian geratu delako. Eta Haizea Aranak ez zuen azkenekoan "askorik gozatu", baina "pozik" dago eman duen irudiarekin.

## Udarako, etxeko lanak

Oporrak entrenatzeko aprobetxatuko dutela diote guztiek:

"Lagun artean bertsotan egingo dugu eta bestelako ariketa gehiago ere egin beharko ditugu formatuak, formak, doinuak, gaiak eta errimak lantzeko".

## Bihar, Señora sariketa

Udazkena heldu bitartean, bestelako plazak ere entrenamendugune izango dituzte, eta horien artean bihar, zapatua, Portugalen jokatuiko duten Señora sariketa. Zortzi bertsolarik jardungo dute; haien artean, Arrasateko Ane Zuazubiskarrek. Egun osoko egitaraua prestatu dute Ahalduntze bertso-eskola kideek: 12:30ean, bertso-poteoa; bazkaria 14:30ean; eta 17:30ean, berriz, bertso saioa.

# Sastiñako musika festibala gaur eta datorren egubakoitzean

Incomprendida Cassandra eta Ale & The Hopes taldeak gonbidatu dituzte Aramaioko ekaineko musika ziklora

## A. Aranburuzabala ARAMAIO

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Aramaioko Udalak herriko erdigunean dagoen Sastiña ermitaren kanpoaldean musika agertoki bilakatuko du. Bi egitarau prestatu izan ohi dituzte,

ekainean bat eta irailean bestea; gaur, egubakoitza, abiatuko dute lehenengoa.

## Incomprendida Cassandra gaur

Gitarra akustikoa, perkusioa eta ahotsa lagun, nazioarteko

askotariko kantu ezagunak interpretatuko ditu Incomprendida Cassandra hirukoteak. "Pop-rock doinuak eskainiko dituzte, talde ezagunen kantuekin osatuta errepertorioa; esaterako: U2, Pink Floyd, Black Crowes, Guns N'Roses, Muse, Aurora Beltran eta Amaral taldeen kantuen entzungo ditugu. Kontzertua dohainik da, 19:30ean hasita", azaldu dute antolatzaileek.

Ekainaren 14an izango da hurrengoa, eta Ale & Hopes taldea gonbidatu dute.

## Goienakideen txokoa

### EKAINEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua  
Kobo Nia  
e-booka



Parte hartzeko sariaren izena: ebook



### Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus | Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia  
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzeakileen artean egingo da zozketa. Inberran dagoen 2019/15/1999 legearen arabera, jabearen dago: sare-eta datu pertsonalari Goiena komunikazio Zerbitzuen Bategiaren bitartez datuak jasotzen dira. Datu-bilaketaren helburuak dira: eraberran dagoen zozketaren prestatzea. Eskakizunak: datuak jasotzeko, biek zozketakoa ez ditzate; helbete lehenetalditza: goienakide@goiena.eus

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: ekainak 11

943 25 05 05 | goienakide@goiena.eus | "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jotetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIA

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasaten.** Arrasate Pasealekuan pisu bat alokatzen da garajearekin. Nahi dituenak bidali email bat Ekieleane@hotmail.com helbidera.

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergaran. Bergarako** Bolun garajea salgai. Neurriak: 3x6. Ate motorizatua dauka. 659 30 54 49 edo 602 32 06 58

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Aldizkari banatzailea Oñatin.** Goienak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldizkariak banatzeko. Autoa beharrezkoa da. Harremanetarako: 943 25 05 05 edo harpidetza@goiena.eus

## 402. ESKAERAK

**Antzuola-Bergara.** 20 urteko neska naiz. Udan umeak zainduko nitzuke. 609 32 73 39

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Erreferentziak ditut. 666 07 42 98

**Bergara.** Neska eskalduna, gazte eta ardurasua uztaila eta abuztua

## ALDIZKARI BANATZAILEA OÑATIN.

Goienak banatzailea behar du Oñatiko baserri auzoetan Goiena eta Puntua aldizkariak banatzeko. Autoa beharrezkoa da. Harremanetarako: 943 25 05 05 harpidetza@goiena.eus

bitartean umeak zaintzeko gertu. 688 62 90 09

**Bergara.** Pertsona nagusiak paseatzera ateratzeko edota garbiketa lanak egiteko prest nago. 642 37 01 92

**Bergaran eta Elgetan.** Neska eskalduna uztailan umeak zaintzeko gertu. 653 48 55 64 (June)

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo beste la lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota etxe, hotel eta enpresetako garbiketa lanak egingo nitzuke. Sukaldean ere arituko nintzateke. 612 44 06 32

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu 602 01 32 58 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gaztea pertsona nagusiak

zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. Asteazken zehar eta asteburuetan orduka lan egingo nuke. 632 63 77 38

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko gertu nago. Orduka lan egingo nuke astean zehar zein asteburuetan. Deitu 612 56 12 39 telefono zenbakira

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Ekide Group partizipazioak salgai.** Ekide group partizipazioak saltzen ditut. Nahi dituenak bidali email bat Ekieleane@hotmail.com helbidera.

## 809. ERRENTAN EMAN

**Lursaila Aretxabaletan.** Aretxabaletan lursailak ematen dira errentan. Aproposak orturako, txakurkuntzako, eta abar. 618 76 34 40

## GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN

## BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Honen bidez, 2024ko ekainaren 19an, eguztina, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako deia egiten dut.

Batzara Arrasateko Polo Garaien Itzango da. Muru gelan, 17:30ean lehendakalki eta 18:00etan bigarrenean.

## GAI ZERREDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea
2. 2023ko ekainaren 15eko batzar orokorrerako akta onaren onarpen txostena inakurtzea.
3. 2023ko kudeketaaren memoria azaltzea
4. 2023ko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena inakurtzea.
6. 2024ko kudeketa plana onartzea.
7. 2024ko aurrekontua onartzea.
8. Bazkide ekarpenen eguneraketa.
9. Errektore kontseilua onartzea.
10. Kontseilu sozialeko kide berriak izendatzea.
11. Galdenak eta eskaerak.

1. Euzkadiko Kooperatiben Legearen 24.4 artikuluan arabera, bazkidei jakinarazten zaie euren enpresa dituzten kooperatiben egoitza sozialean, ekitaldiak, Urteko Kontuak, emaitzen erabilera txostena eta Kudeketa txostena jasotzen dituzten dokumentuak.

4. Euzkadiko Kooperatiben Legearen 36.7 artikuluan ezarritakoaren bat etortze, beraz, adierazten da bazkide guztiak eskubide dituzten kooperatiben egoitza sozialean aztertzeke gai arrendakotzako puntua dugutik aurrera.

Amasaten, 2024ko ekainaren 4an.

**Monica Belastegi Aranzabal**  
Errektore Kontseiluko presidentea

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

## ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Eki Solupe Beitia**  
Ekainaren 13an, 6 urte. Zorionak, Eki! Zoragarri ospatu zure eguna. Eskerrik asko gure bizitza alaitzeagatik!



ARRASATE  
**Oinatx Guzman Arregi**  
Ekainaren 11n, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, artista! Primeran ospatu zure eguna. Muxu handi bat etxeko denon partetik!



ARRASATE  
**Aimar Kortazar Gonzalez**  
10an, 4 urte. Zorionak, Txapeladun! Eguz zoragarria izan eta... Gora Esko! Besarkada bat etxeko danon partetik eta batez ere Noraren partetik.



OÑATI  
**Alai Olabe Casais**  
Ekainaren 10an, 9 urte. Zorionak, maitia! 9 belarri tirakada zuretat. Azkenean heldu da horrenbeste esperotako eguna eta edarto ospatuko dugu. Muxu erraldoi bat familia danon partetik. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA  
**Lea Barkero Kortabarria**  
9an, 6 urte. 3,2,1... Heldu da zure eguna be! Indarrak hartu amamak indako tartako kandelari putz itzeko! Maite zaitzugu politxo!



OÑATI  
**Natale Orueta Santos**  
6an, 9 urte. Zorionak, polittor! Ondo pasau zure eguna! Muxu erraldoi bat familia danon partetik eta bereziki Peru eta Martxelen partetik! Dantzatu Bizitza!



BERGARA  
**Malen Eguren Roman**  
6an, 2 urte. Zorionak, Malen! Bi urtetxo gure bizitza alaitzen! Muxu bat aitaxo amaxo eta familia guztiaren partetik, bereziki Junen partetik! Maite zaitzugu!



BERGARA  
**Ander Txurruka Jauregi**  
Ekainaren 6an, 11 urte. Zorionak, Ander! Ondo ondo ospatu!



ARRASATE  
**Jon Bereziartua Zabala**  
Ekainaren 5an, 9 urte. Zorionak, potxolo! Bederatzi urte munduari irribarre egiten, bederatzi urte guretzako bizipoz iturri izaten. Segi horrela, polit hori!



BERGARA  
**Araiz Gutierrez Cenitagoya**  
3an, 8 urte. Zorionak, maitia! Jarratu ezazu orain arte moduko alai eta jator. Besarkada handi bat familiaren partetik, bereziki Uhaizten partetik.



ARRASATE  
**Abril Enriquez Stabile**  
Ekainaren 1an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Ondo ondo pasa zure eguna ta muxu potolo bat Enara ta familia guztian partetik. Maite zaitugu!

oñargi

**OÑARGI** udal enpresa da, Oñatiko Udalaren jabetzakoa, Oñatiko banaketa sare elektrikoa kudeatzen duena.

**Elektrikari** baten lanpostu finko bateko plazara apuntatzeko deialdia egiten dugu.

**Zereginak:** Sare elektrikoaren mantenu eta ikuskaketa, matxuren konponketak, zerbitzu kalitatearen kudeaketa...

**Ezinbesteko baldintzak:** Elektrizitate arloko Goi Mailako Heziketa titulua eta euskarazko 2. hizkuntza eskakizuna.

**LKS Next**

- Interesa duten pertsonak hila bere barako epean LKS Next Selection webguneko "www.lksnextselection.com, Lan Eskaintzen LINKS, Gure bezeroen lan eskaintzak" atalean izena emate eta CV-s atxiki beharko dituzte.
- Ematen diren datuak konfidentialtasunez tratatuko dira, Datu Pertsonalak Babesteko 15/19999 Legeak (1999ko abenduaren 13koa) ezartzen dituen irizpideei jarraituz.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti  
inmobiliaria

**Bergara: Masterreka,**  
75m<sup>2</sup> erabilgarri, 3 logela eta egungo dekorazioarekin.  
135.000€



**Bergara: Burdiñate,**  
65m<sup>2</sup> erabilgarri, 2 logela, igogailua, trastelekua, bizitzera sartzeko.  
150.000€



**Bergara: Aumategi bidea,**  
96m<sup>2</sup>, 3 logela, trastelekua duplexa egiteko aukerarekin; lur saila aparkaleku bezala erabiltzeko. 155.000€



Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
www.inmokokorosti.com

Informazio gehiago:





URTEURRENA

**Esperanza Ugarte Orue**

Luis Mendarozketaren alarguna

2023ko maiatzaren 31n hil zen, 91 urte zituela.

*Alaba, ahizpa, emazte, ama, amama paregabea zu, poza, zorion, adeitasuna, eredu egin dituzu. Eman diguzun guztiagatik mila esker, mila musu, gure artean bizirik eta goxo jarraituko duzu. Zure familia.*

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 9an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Etorriko zaretenoi eskerrik asko. Arrasaten, 2024ko ekainaren 7an.

ESKER ONA

**Maria Angeles Ibabe Elorza**

—Goian bego—

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko ekainaren 7an.

ESKER ONA

**Jose Antonio Caamaño Rodeiro**

2024ko ekainaren 4an hil zen, 64 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten-Aretxabaletan, 2024ko ekainaren 7an.

URTEURRENA

**Moises Arriaran Iñarra**

2023ko ekainaren 7an hil zen. 2023ko ekainaren 7an hil zen.

Eskerrik asko babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztiok.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 9an, 11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Angiozarren, 2024ko ekainaren 7an.

ESKER ONA

**Mari Luz Arregi Irastorza**

Goyo Arbuluren alarguna

2024ko maiatzaren 29an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2024ko ekainaren 7an.

ESKER ONA

**Juana Odriozola Igartua**

2024ko ekainaren 3an hil zen, 98 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2024ko ekainaren 7an.

OROIGARRIA

**Ascen Irazabalbeitia Biteri**

2024ko ekainaren 4an hil zen, 66 urte zituela.

*Beti izango zara gure bihotzetan.*

Zure kuadrilla. Bergaran, 2024ko ekainaren 7an.

OROIGARRIA

**Jesus Arregi Irastorza**

2013ko ekainaren 7an hil zen.

*Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango.*

Antzuolan-Urretxun, 2024ko ekainaren 7an.

ESKER ONA

**Pedro Maria Ubera Basauri**

2024ko maiatzaren 31n hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2024ko ekainaren 7an.

## HILDAKOAK

- **Kepa Mondragon Jauregi.** Aramaion, maiatzaren 31n. 89 urte.
- **Manuela Davila Murillo.** Aretxabaletan, maiatzaren 30ean. 83 urte.
- **Jose Antonio Caamaño Rodeiro.** Aretxabaletan-Arrasaten, ekainaren 4an. 64 urte.
- **Rufino Diaz Moraza.** Arrasaten, ekainaren 2an. 91 urte.
- **Josefa Albizu Arriola.** Arrasaten, ekainaren 2an. 101 urte.

- **Manuel Rodero Toribio.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 77 urte.
- **Encarna Arzamendi Emparanza.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 94 urte.
- **Maria Teresa Ortubay Beitia.** Arrasaten, ekainaren 3an. 96 urte.
- **Ana Bilbao Mujica.** Bergaran, ekainaren 2an. 98 urte.
- **Maria Begoña Gonzalez Angulo.** Bergaran, ekainaren 4an. 72 urte.
- **Nuria Elkoroberezibar Ormazabal.** Bergaran, ekainaren 3an. 48 urte.

- **Ascen Irazabalbeitia Biteri.** Bergaran, ekainaren 4an. 66 urte.
- **Pedro Mari Ubera Basauri.** Elgetan, maiatzaren 31n. 85 urte.
- **Antonio Moto Benitez.** Eskoriatzan, ekainaren 2an. 61 urte.
- **Fidel Inza Kortabarria.** Oñatin, ekainaren 3an. 95 urte.
- **Juana Odriozola Igartua.** Oñatin, ekainaren 3an. 98 urte.
- **Joxe Mari Axpe Elkoro.** Oñatin, ekainaren 4an. 85 urte.

**Oroilore** BABESLEA

*Hileta zerbitzuak*

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak euren bidea azaltzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beronenak guzen izan dituzten konfiantzagarri eta maitasunagatik.

Mario, Iban, Mariñi eta Cristian

617 44 21 55  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



## ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**'ALGARAKA' LEHIAKETAKO FINALA**

Finalean gertatutakoa ikusteko unea heldu da. Seminarixoko finala Miren Nogalesek eta Jon Olivaresek aurkeztuko dute.

'Algaraka' Zapatua, 23:00 eta domeka, 18:00

**MAHAI-INGURUA**

Hizkuntzen kudeaketa eta euskara gure enpresetan izeneko solasaldia, Txomin Madinak aurkeztuta.

'Bereziak' Egubakoitza, 21:30 eta zapatua, 19:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:  
[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## BERRI-ZAKUA

**Jesus Mari eta Arantxa**

"49 urte ezkondu! Egun ederra pasa eta segi zoriontsu izaten. Muxu bana, familiaren partez".

**Urrezko ezteiak**

Mariasun Abarrategui eta Felix Ayala 1974ko ekainaren 7an ezkondu ziren Arrasateko parrokiaren. "Zorionak familiaren eta lagunen partetik. Asko maite zaituztegu!".



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 7****ARAMAIO Arabako Eskola Txikien Sareko Topaketa**

Jolas tradizionalak, orientazio jolasak eta ibilaldiak egingo dituzte. *Aramaion, 10:30etan.*

**ELGETA Beheko kaleko jaiak**

Informazioa osoa 27. orrian.

*Beheko kalean, 16:00etan.*

**ARRASATE Proiektuen arteko esperientzia trukatzeko**

*Gure nortasuna proiektuaren gaineko esperientzien trukatzeko, AMSk eta Garagunek antolatuta. Kulturaten, 18:00etan.*

**ARRASATE Kurtso amaiera Emakume Txokoan**

Jabetze Eskolara eta Emakume Txokoaren egitaraura hurbildu direnentzako hitzordua. *Emakume Txokoan, 18:00etan.*

**ESKORIATZA Skatearen teknikak ezagutzeko ikastaroa**

Ondoren, erakustaldia izango da; eta bukatzeko, skate librea. *Skate parkean, 18:00etan.*

**ARRASATE Hari-instrumentuen topaketa**

Arrasate Musikaleko ikasleak. *Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:00etan.*

**OÑATI III. Gipuzkoako Futbol Sariak**

Aloña Mendiren 75. urteurrenarekin lotutako ekitaldien barruan, Gipuzkoako Futbol Federazioaren eskutik. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

**ARETXABALETA 'Amets pirata' txotxongilo ikuskizuna**

4 urtetik gorakoendako, 7x7 kultura kalean ekimenaren baitan. *Santa Kurtz kalean, 19:00etan.*

**OÑATI Olakuako jaiak**

19:00etan, jaien hasiera, trikitilariak eta Atzeko kaleko txorimaloak eta erraldoiak; 19:30ean, euskal hanburesak; eta 21:00etan, Hiru Handiak, Sua, Bad Sound eta Azken Sustraiak. *Olakua auzoan.*

**ARAMAIO Incomprendida Cassandra taldea**

Sastiñako Musika Festibalaren baitan. *Sastiñan, 19:30ean.*

**ZAPATUA 8****ARETXABALETA Kurtzebarri eskolako jaiak**

Informazio guztia 15. orrian. *Aretxabaletan, 09:30ean.*

**BERGARA Kalean Ehuntzeko Mundu Eguna**

Black3 Bordados dendan elkartuko dira, Amillagako 6. pabiloian. *Bergaran, 10:00etan.*

**ARETXABALETA Kalean Ehuntzeko Mundu Eguna**

Harizko eskulanak egingo dituzte. *Danona tabernako terrazan, 10:00etan.*

**OÑATI Olakuako jaiak**

10:30ean, haur jolasak; 11:30ean, *Hauspotu bizitza* emanaldia; 12:00etan, haurren mendi-bizikleta irteera; 14:00eta, bazkaria; 18:00etan, trikitilariak eta txorimaloak; 18:30ean, talogileak, eta erromeria; eta 22:00etan, Korrontzi. Ondoren, Jabi Sound DJ. *Olakua auzoan.*

**OÑATI Bigarren eskuko azoka**

Askotariko produktuak trukatzeko eta saltzeko aukera. *Foruen plazan, 10:00etan.*

**ESKORIATZA Luis Ezeiza Herri Eskolaren jaiak**

Informazio osoa 17. orrian. *Luis Ezeizan, 10:30ean.*

**ARETXABALETA Osasun mentala ikusarazteko ibilaldia**

Urkuluri bira emango diote, Gipuzkoako San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoaren eskutik. *Urkulun, 10:30ean.*

**ARRASATE 24. Elkartasun Eguna**

Puzgarriak, jolasak, musika emanaldiak, lbai-arteren zozketa eta beste hainbat. Informazio osoa 9. orrian. *Arrasaten.*

**BERGARA Bisita gidatuak Bergaran**

11:00etan eta 12:30ean. Erreserba egiten duen lehenak aukeratuko ditu bisita mota eta hizkuntza. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen.*

**ESKORIATZA Jose Arana egoitza: ate irekiak**

Zerbitzuaren aurkezpena, bertako profesionalak eta egiten diren jarduerak ezagutzeko aukera. *Egoitzan, 11:00etan.*

**BERGARA 'Markos Gimenez karteletarak' erakusketa: bisita gidatua**

Joseba Sarrionaindiak gidatuta. *Olaso dorrean, 11:00etan.*

**ARRASATE Klarinete-joleen topaketa**

11:30ean, kalejira; eta 12:30ean, kontzertua Zaldibar pilotalekuan. *Arrasaten.*

**ARETXABALETA 'Galarza: linaje y torre' liburua aurkezpena**

Alfredo Moraza Bareak eta Alex Ibañez Etxeberriak aurkeztuko dute. *Arkupen, 12:00etan.*

**BERGARA Bisita gidatua Olaso dorrean**

Gaur, gaztelaraz. Izena emateko: 943-76 90 03. *Laboratoriumen, 12:15ean.*

**OÑATI Bertso saioa txondorren ondoan**

Eñaut eta Unai Agirre anaien emanaldia. *San Martingo hariztian, 12:30etan.*

**ANTZUOLA Gaztetzearen urteurrena**

12:30ean, karro-poteoa; 14:30ean, bazkaria; eta 22:00etan, Kontralde, Kaparrak, Oihu eta DJ Artze. *Gaztetzearan.*

**ARRASATE Euskal Herriko klarinete-joleen topaketa**

Hainbat lekutatik etorritako klarinete-joleek parte hartuko dute. *Zaldibar frontoian, 12:30etan.*

**OÑATI Txantxiku saria**

Aloña Mendiren eskutik. *Zubikoan, 15:00etan.*



**ARAMAIO** Euskadiko lur gaineko sokatira txapelketa

640 kiloko gizonezkoen finala jokatu da.

Frontoiaren atzeko zelaian, 18:00etan.

**ARRASATE** Bidaien kronika: Senegal

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

**ESKORIATZA** 'Hitzak' antzezlan

Isladak Antzerki Sozialaren eskutik. Sarrerak, bost euro.

Zaldibarren, 19:00etan.

**ARRASATE** Eilen Jewell-en emanaldia

Country, gospel eta rockabilly doinuak Boisen (Idaho) jaiotako musikariarekin.

Amaitz antzokian, 19:30etan.

**BERGARA** 'Olagarrua' antzezlan

Antzerki Aroaren eta Ttipiaren eskutik. Sarrerak, zortzi euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

**DOMEKA 9****OÑATI** Sai arreak behatzeko irteera

Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus.

Arantzazuko Parketxean, 10:30ean.

**OÑATI** Olakuako jaiak

11:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza; 12:00etan, parrillada; 13:00etan, herri kirolak; 16:30ean, mus txapelketa; 17:00etan, Oñatz dantza taldekoen erakustaldia; eta, 19:30ean, bertso saioa.

Olakua auzoan.

**ARRASATE** Azken festaren prestaketak

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

**OÑATI** 'Uda, goazen kantari' emanaldia

Ganbara Faktoriako talde guztiek hartuko dute parte.

Santa Ana antzokian, 19:00etan.

**ASTELEHENA 10****ESKORIATZA** 'Beste mundu bat posible da' hitzaldia

Yurre Romaratezabalak egingo du berba, Aste Zapatistaren baitan.

Luis Ezeizan, 11:00etan.

**DEBAGOIENA** Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran.

Herri horietan, 12:00etan.

**ARAMAIO** 'Arrain hezur bat ezta' liburuaren aurkezpena

Olatz Mitxelena egilea egongo da. Sastiñan, 18:00etan.

**ESKORIATZA** Yoga familian

Hazia Zentroko Anne Roesselekin, Aste Zapatistaren baitan. Ondoren, gozo-eltze mexikarra.

Kontzejupean, 18:00etan.

**ARETXABALETA** Musika eskoletako ikasleak

Arrasate, Bergara, Oñati, Eskoriatza, Soraluze eta Aretxabaleto musika eskoletako ikasleen kontzertua.

Arkupen, 18:00etan.



ISLADAK

**ESKORIATZA** 'Hitzak' antzezlan

Isladak Antzerki Sozialak taldearen eskutik. Lau obra labur eskainiko dituzte, non hitza den sentimenduak, emozioak, ideiak eta pentsamenduak transmititzeko tresna nagusia. Sarrerak, bost euro.

Bihar, zapatua, Zaldibar antzokian, 19:00etan.

**ARRASATE** Proiekzioa eta hitzaldia

Fadia's tree filma ikusi eta ostean Palestina gaur berbaldia egingo dute, Harremanen eskutik.

Kulturaten, 18:30ean.

**BERGARA** 'Errozabalgo guda eta Iruñeko erresumaren sorrera' hitzaldia

Xabier Irujak egingo du berba.

Olaso dorrean, 19:00etan.

**MARTITZENA 11****ANTZUOLA** Antzerki emanaldia

Antzerki ikastaroan parte hartu dutenen saioa.

Torresoroan, 18:00etan.

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Segundo premio Domeka eta astelehena: 19:30.

Lagunak erreskatara! Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

Segundo premio Egubakoitzak: 22:00.

Zapatua: 19:30, 22:00. Domeka eta astelehena: 19:30.

**GASTEIZ****FLORIDA**

La ultima sesión de Freud Egubakoitzak eta zapatua: 19:00, 21:30. Domeka: 20:45. Astelehenetik eguenera: 19:30.

Siempre nos quedará mañana Egubakoitzak: 19:00. Zapatua: 12:00, 19:00. Domeka: 12:00, 20:30. Astelehenetik eguenera: 19:30.

Amigos imaginarios Egubakoitzak: 18:45. Zapatua: 12:00, 18:45. Domeka: 12:00, 16:30, 18:30.

Astelehenetik eguenera: 17:15.

Back to black Egubakoitzak eta zapatua: 16:30, 21:30. Domeka: 17:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

La promesa de Irene Egubakoitzak: 16:30, 21:30. Zapatua: 19:00, 21:30. Domeka: 19:30. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30.

Un año difícil Egubakoitzak eta zapatua: 16:45, 22:15. Domeka: 17:30. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Bad boys:**

ride or die Egubakoitzak: 16:45, 19:15, 21:45. Zapatua: 12:00, 16:45, 19:15, 21:45. Domeka: 12:00, 17:30, 20:30. Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00. Martitzena: 17:00.

Furiosa: de la saga de Mad Max Egubakoitzak: 19:15, 21:30. Zapatua: 12:00, 19:15, 21:30. Domeka: 12:00, 20:00. Astelehenetik eguenera: 19:30.

**Robotia**

Zapatua: 17:00. Domeka: 16:30.

**EGUAZTENA 12****ARRASATE** Kalean Ehuntzeko Mundu Eguna

Harizko eskulanak egingo dituzte. Seber Altuben, 10:30ean.

**ESKORIATZA** Udaberriko paseoa

Jose Arana egoitzakoekin, Aste Zapatistaren baitan. Eskoriatza, 17:00etan.

**ANTZUOLA** Gimnasia erritmikoko erakustaldia Ariznoako gimnasten eskutik. Frontoian, 17:30ean.

**ARETXABALETA** Loramendiren batzar orokorra Bazkide guztiak daude gonbidatuta. Udaletxe zaharrea, 17:45ean.

**ARAMAIO** Literatura solasaldia Nerea Loiola idazlearekin. Parkean, 18:00etan.

**OÑATI** 'Relacionarse: por la vida, contra la soledad' hitzaldia

Juan Jose Sagarzazurekin. Pake Lekun, 18:00etan.

**BERGARA** Udaleku irekien aurkezpen bilera

Gurasoendako. Seminarixoan, 18:00etan.

**ESKORIATZA** 'Besarkada eguna' emanaldia

Oihulari Klownen performancea, Aste Zapatistaren baitan. Kalean zehar, 19:00etan.

**OÑATI** 'Tortura Euskal Herrian' hitzaldia

Fan Hemendik Egunaren baitan. Kultura etxean, 19:00etan.

**ARETXABALETA** Literatura solasaldia

Azahara Alonso idazlearen Gozo liburuaren gainekoa. Udal liburutegian, 18:00etan.

**BERGARA** San Antonio jaiak

Lore-arkua ipiniko dute ermitan, eta ostean etxafuegoak eta kanpai-hotsak.

San Antonio auzoan, 18:00etan.

**ARETXABALETA** Andoni Ollokiegiren kontzertua

Bekataria diskoa aurkeztuko du, 7x7 kultura kalean ekimenaren barruan.

Mitarte kalean, 19:00etan.

**BERGARA** Talde sorpresa

Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoa. Debalde. Kartzela zaharrea, 20:00etan.

**BERGARA** 'El mal no existe' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

**EGUENA 13****ESKORIATZA** Gimnasia erritmiko erakustaldia

Kurtso amaierakoa.

Kiroldegian, 17:30ean.

**ARRASATE** 'Haurrekin bizitza hizpide' hitzaldia

Amaitz eta elkarteko kide Naroa Martínez Suarezekin egingo du berba. Kulturaten, 18:00etan.

**ANTZUOLA** Irakurle taldea

Arantxa Urretabizkaiaren Kuaderno zuria liburua izango dute hizpide, egilearekin berarekin. Olaranen, 18:00etan.

**ESKORIATZA** '¿Qué pasa en Palestina?' hitzaldia

Monica Leivak egingo du berba, Aste Zapatistaren baitan. Kultura etxean, 18:30etan.

**ELGETA** Musika ikasleen kontzertua

Ikasturte amaierakoa. Espaloian, 19:00etan.





AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

## Israeli boikot

Buñuelen film surrealista da *Askatasunaren mamua*. Eszena batean, Aliette haurra desagertu egin da eskolan eta gurasoak bertara doaz. Irakaslea zerrenda pasatzen hasten da; Aliette gurasoengana altxatu, eta hauek isiltzeko eskatzen diote, irakaslea hizketan ari dela argudiatuz. Gurasoak, umearekin batera, poliziarengana doaz desagertzea salatzen. Haurraren aurrean, bere ezaugarri fisikoak apuntatzen hasten da polizia, betiere Alietteri isiltzeko aginduz.

Espainiak Estatu gisa aitortu du Palestina. Ekintza sinboliko hutsa, ordea: Europako hauteskunde kanpainarako aurpegia zurituz eta Israelekin harremanik eten gabe. Mendebaldeko potentziek diote genozidioaren soluzioa bi estaturen konponbidearekin emango litzatekeela. Espainia eta Europar Batasuna Alietteren gurasoak eta polizia dira.

Ez dute Aliette entzuten. Ezezagun erraldoi batek txokolate tableta lapurtu eta horren bila joan zelako galdu zen. Haurrak ez du ulertzen zergatik den zuzena lapurrari ontzen gehiengo uztea eta lurrean zapaldutako ontza laurdena izatea beretzat. Gurasoaren ezdeusaren aurrean, beraz, Aliette entzun eta erraldoi zapaltzaileari boikot egitea ezinbestekoa dugu, ontzaz ontza, haurrari berea dena itzuliarazteko asmoz.

## BUKATZEKO



Pertsonen Orientazio Zerbitzuak antolatuta, gazteen eta helduen arteko ibilaldian egindako geldialdi bat. TXOMIN MADINA

# Belaunaldi arteko ibilaldi osasuntsua, tipi-tapa

Oñatiko Pertsonen Orientazio Zerbitzuak antolatuta, hiru kilometroko ibilaldi osasuntsua egin zuten, atzo, eguena, helduek eta nerabeek elkarrekin, Santa Ana antzokitik aterata. Amaitzean, hamarretakoa egin zuten guztiek batera

**Imanol Beloki Unamuno** OÑATI

Oñatiko ohitura osasuntsuen orientazio zerbitzua da POZ. Herriko biztanle ororentzako doako zerbitzua, bakoitzaren gaitasun eta zailtasunetara egokituz bizi ohitura aktibo eta osasuntsuagoak sustatzeko lan egiten duena. Jarduera fisiko modu erregularrean egiteak onura ugari eragiten dizkio

osasunari, eta hainbat gaixotasuni aurre egiteko eraginkorra dela frogatu da, hala nola hipertentsioari, diabetesari edo depresioari. Jarduera fisikoak, elikadurak, atsedanak eta emozioek ongizatea hobetu dezake. Hala, bizimodu aktiborantz laguntzea helburu izanda, eta belaunaldien arteko elkar-batzea oinarri, Nerabeak Astintzen

izeneko egitasmoaren azken jaia egin zuten atzo.

**Ikasgaiz betetako ibilbidea**

Ibilaldia Santa Ana hasi zuten, eta San Martinen egin zuten lehenengo geldialdia. Natur Eskolako langileek azalpen batzuk eman zituzten, eta, gero, Natur Eskola atzeko anfibioen urmalean ere jaso zituzten

zenbait azalpen. Amaitzeko, azken jaia izanda, luntxa egin zuten Santa Anan.

**Informazio transmisioa**

"Ikasturtean, nerabeak astintzen aritu gara, hitzak dioen moduan, eurak zirikatzen, mugimenduen eta elikaduraren ohiturak erakusten. Eta belaunaldi ezberdinak batzeko aprobetxatu dugu azken jaia. Helburua izan da ibilaldi osasuntsua egitea eta bi belaunaldi horien informazio transmisioa egitea", adierazi zuen Pello Uriartek, Nerabeak Astintzen ekimeneko ki-deak. Azpimarratu zuen duela lau urte hasi zela Nerabeak Astintzen egitasmoa, eta programak eboluzio bat izan duela. "Ikasturtean askotariko lanketak egin ditugu, osasuna lehenengo lerroan jarrita. Urteko balorazioa positiboa da".

# 'ALGARAKA'

BAKARRIZKETA LEHIAKETA, FINALA

**GOIENA TELEBISTA**

ZAPATUAN, EKAINAK 8, 23:00ETAN

DOMEKAN, EKAINAK 9, 18:00ETAN

**MIREN NOGALESEK ETA JON OLIVARESEK AURKEZTUTAKO SAIOA**

NAHERAN  
**PRIMERAN**  
STREAMING  
PLATAFORMAN

**goiena**  
Zu hemen zaude.

